


LOYOLA' TAR IÑAZIO DEUNAREN
GOGO JARDUNETAKO
(EJERZIZIOETAKO)
GOGORAKIZUNAK

AGIRE'TAR JORKE AITA *Jesulagunak bildu ditu.*



Euskaldun batek beste bati: Loyola'tarak Xabier'tarari:
*¿Zer irabazten dezu, Xabier, mundu guzia irabazi aŕen,
betiko bizitza galtzen badezu?*



LO YOLA'TAR INAZIO DEUNAREN

GOGO JARDUNETAKO

GOGORAKIZUNAK

1875

1876

1877

n-27118
R-15556

ATU-10.195

5— LOYOLAKO ARGIZPIAK —5

*LOYOLA'TAR INAZIO DEUNAREN
GOGO JARDUNETAKO
EJERZIZIOETAKO*

egi ta erakutsi gogoragarrienak

Jesus'en Lagundiko Agire'tar Jorke Aitak
bildu ta atera ditu.



JESUS'EN BIOTZAREN DEYA renean

APARTADO 73.—BILBAO.

EDITORIAL VASCA, S. D.
CELAYA Y COMP.
ZARAUZ
1928



Imprimi potest:

SEVERIANUS AZCONA, S. J.

Praep. Prov. Castell.

Nihil obstat.

PHILLIPPUS A ZUGAZAGA, S. I.

Imprimatur:

† Fr. ZACHARIAS, Episcopus, Victoriensis.

29 Decembris 1927.

IRAKURLEARI

‘ Euskaldun goragari Loyola’tar Iñazio Deunaren Gogo Jardunak —Ejertzizioak— gure artean berebiziko ondasunak zabal-tzen ari dira. Loyola’n urteoro egiten diran emezortzi txandaz gañera, gelditu gabe ibili beara daukagu lan oretan eriz eri Aita Jesuita euskaldunok. Zestua, Getari, Erezil, Zarautz, Zumaya’, Eibar, Soraluze (Plazenzi), Lezo, Segura, Zegama, Ormaiztegui, Tolosa, Albistur, Berastegi, Ibarra, Anzuola, Legazpia, Ataun (S. Gregorio), eta beste zembat eta zembat eritakoak nola edo ala, bakoitzak al duan bezela, batzuk bi ta iru ta lau txandatan jardun dira Gogo-Jardun auetan. Napar eri batzuek eta Blzkayako asko ez dabiltz atzera naiean lan eder onetan. Gogora bitez Lekeitio, Mungi, Maruri, Aulestia, Gerikaitz, Ondarri, Bermeo, Zeanuri, Abadiño, ta abar ta abar eri.

Baña negargaña zan gertatzen zana. Euskaldunak, ain ejerzizio zaleak izan, eta Jardunaldi oyetarako liburu egokirik ez! Zuzendu zuan oker ori bizkaitarantzat oraintsu Jaunaren besoetan il zaigun A. Basabek (G. B.) bere *Ejerziziotako Gogarteen* bidez. Baña Gipuzkotarai zailegi zaie euskera ori, eta berenean zerbait eman bear zitzayen. Ara zertara datoñen liburutxo au.

Ez diogu iñori agintzen artu ditzala Gogo Jardunetako egi oek guk ematen dizkiogun bezela. Ez. Obe litzake Jaungoikoak bakoitzari erakutsiko dizkion eran artzea; baña oretarako laguntzaren bat nai izan oi dute, eta laguntza emateko dira emen jartzzen ditugunak.

Lana ez da egile dala uste dezunarena bakañik. Eriz eri ejerzizioak eragiten, eta beste zeregin askotan dauzkan egin beañak ez diote onelako lanetarako bear dan asti lasairik ematen. Baña izan ditu laguntzale argi ta bikañak; onetarako bear ziran beziñ egokiak. Aita Iriarte bi, Bitor eta Joakin lengusuak; eta Zubiaga ta Azkue A A.

gazteak. Oyen eta neronen lanak artu, bildu, eta nola edo ala txukundu ta atera ditugu.

Ez dira irakurgai auek beñ irakurita uzteko; bai zik askotan irakurri ta mamia atera arte gora ta bera erabiltzeko. Mami-tsuak dira, bada, Aita Iñazio Deunarenak izanik. Guk mami ori azalez jantzi besterik ez degu egin.

Dana dala guk egin degun lantxo au, izan bedi gure euskaldun biotzekoetara Jaungoikoak gure Aita maitearen bitartez Bere maitasunezko tximpartak bialdu ditzan.

Agiré'ta J. s. J.

SUSTRAI TA OÑARÍA

.....

Jardunaldi onetan ikusiko ditugun egiak beren sustraitik bezela egi argi ta jakin oetatik datoz: Gizona Jaungoikoak ezerezetik egiña da, Jaungoikoa goratu, Berari agur egin eta Bere mirabe izan de-diñ, eta onela, au egiñaz, zerua irabazi dezan.

Au da: gizatasuna daukan edozein gizon edo emakume ez zan ezer eta Jaunak eman dio daukan izatea. Zertarako? Jaun aiñ ona, aiñ jakintsua, aiñ altsua, aiñ indar neurigabeduna ikusi, ta biotzez, eta gogoz eta itzez goratu dezan; ain Jaun agurgariari agur egiteko ta Jaun orek nai duana, agintzen diona emen bizi dan artean egiteko. Ta onela, au egiñaz, bide ontan ibiliaz, egikizun oetan jardunaz zerua irabazi dezan. Ona emen ondoren

*etoriko diran ta ikusiko ditugun egien sus-
traya dan egia. Emendik aterako dira da-
nak; eta onengandik artuko dute dauka-
ten indaia. Iturburua ta Etorburua ere
deitu genezake egi au, iturburutik iturñiak,
ibaitxoak eta ibaiak; ta edozer bere etor-
burutik datozen bezela, ondorengo egi ta
erakutsiak egi ontatik datozelako.*

*Oñaria ere deitzen du A. Inazio Deunak
egi au; oñari gañean etxea jasotzen dan
bezela, egi au oñari, edo azpiko ari eutsi-
tzale dala gure asmo guziak goraino jaso
bear ditugula adirazteko.*

*Sustrai ta oñaria dan egi au argi ta ba-
ren bañendik ikusteko, bada, esan:*

1.—Bene-benetan sinisten det, Jauna,
neri begira zaudela. Biotz-biotzez agur
egifeten dizut.

2.—*Gertutzeko otoyá.* Eskeintzen diz-
kizut, Jauna, gogarte onetako nere asmo,
egite ta jardun guztiak, zure aintza edo go-
rarik aundienerako.

3.—*Eskaria.* Emaidazu, Jauna, beste gu-

zien sustrai ta oñaria dan égi au ikusteko ta aditzeko argia.

1'go SAILA

NUNDIKAN NATOR NI

Orain ogei, ogetamar, berogei urte dirala ni e-nintzan.—¿Orduan nun nengoen?—Utsa nitzan.—Luñera nola etori nitzan ba?—Nork utsetik atera nau?—Izatea nik nere buruari eman ote nion?—Ez: Izan baño len inork ezer egin dezake. Ustekabeak édo alabearak egia izango al naiz?—Ezta: ustekabe ori ta ta alabear ori itz utsa besterik ez dira.—Nere gurasoak utsetik atera ote ninduten?—Ez; nere gogo edo anima ezin eman dutelako, eta gorputza ere ezin egin dutelako.⁽¹⁾—Nork sortu nau bada?—Nai ta nai ez, aitortu bear degu, asieragabeko izate bat, au da Jaungoikoa, nere egi-

(1) Macabeoen amak bezela, esaten digute. «Ez-takit nola agertu zifian nere sabelean: ba nik e-ni-zun eman ez animarik ez bizitarik; goiko egileak gauza guztiei asiera eman zien.

lea izan dala. Berak sortu ninduen, berak bakarrik ezer utsetik atera dezakelako.

Eta sinismenak edo fedeak, zer esaten digu?—Jaungoikoak ezerezetik atera zuela gizona. Bere antzera arigarizko gorputz au Jaungoikoak egin zuen. Bere antz-irudiko gogo au Jaungoikoak eman zidan, eta bere arnasez luzez egindako gorputz onetan nere anima sartu zuen.

Jaungoikoak egin ba'nau, zeñena izango naiz?—Ikusi dezagun: etxea, maia, edo zer zeñena izan oi da? — Egiten duenarena. Jaungoikoak egin nau? orduan Jaungoikoarena naiz; Jaungoikoak bakarrik egin nau? Orduan Jaungoikoarena naiz bakarrik; ez gurasoena, ez lagunena, ez besterena. Sartu ba ondo zure baruan egi aundi ongi-le au; ni Jaungoikoarena naiz, arena bakarrik, arena oso-osorik, arena beti-betitan. ¡Emaidazu argia, zure naia ezagutzeko ta indara nere bizitz guztian nai ori betetzeko.

2^oren SAILA

Orain galde zazu; eta zertarako Jaungoikoak luñera ekañi niñuen? Edozeiñek, zorroa ezpada, zerbaitegatik eta zerbaiterako egiten ditu bere egintzak. Jaungoikoa izatez jakintza da; beraz, zerbaitera zuzenduko zun nere izatea. Zer izan da bere asmoa?—Luñetik begiak jaso gabe belarretan dabilen abere baten antzeko ni izatea? Ez; bera ezagutzeko adimena ta bera maitatzeko naimena ta biotza eman zizkidanak lagako al nindun, ba, berak nerekin eta nik berarekin zer ikusirik ezpanu bezela?

Oraindano au ondo ez ezagutzeaz, eta bear bada, egi onezaz oartu ere ez egiteaz lotsa zaite. Onen ezagueran etortzeko kristau izan bearik ere ez dago; naiko da gizon izatea. Au onela uste eztuena, eta jabe edo bururik eztuelakoan dagona, zentzungabe bat besterik ez da. Aize utsezko burua daukan gizona eta kaska-ariña bakarik arrotzen da; eta onek bakarik uste du iñoren agindupean eztagola eta mendiko abere bat balitz bezela lasai lasai nai due-

netan ibili litekela. ¿Oen antzik erabili ote dezu zuk? Ondo begira, lotsatu, lotsatu bearik arkitzen badezu; eta, dana dala, eskerak egin Jaunari beretzat egin zaitulako.

5'ren SAĪLA

Baña azkenez nere zertarakoa, nere elburua zer da? Jaungoikoaren eta nere diñako bat. Argi ta garbi aditzen ari naiz; «nere aintzarako utsetik egiña zaitut»,⁽¹⁾ esaten dit Jaunak. Entzun al dezu au? Begira emen zure eta gizadi guztiaren zertarako ta elburua zer dan. Bizitz onetan Jainkoa goratzea, jaurestea, ta Bere mirabe izatea eta lan eta egite onen bidez Bere arpegi ezin ederagoa beti ta beti ikusten eta Bere maitagaritasun neurigabea beti maite izaten aritzea.⁽²⁾ *Done izatea*, santu izatea, ona emen emengo bizitzaren elburua eta zertarakoa; *zerua* urengoko bizitzarena. Zu egi-

(1) In gloriam meam creavi eum (Isai. XLIII, 7).

(2) Habetis fructum vestrum in sanctificationem, finem vero vitam aeternam. (Rom. 6, 22).

tea edo ez egitea Jainkoak bere eskuan zeukan, baña bein egin zindun ezkerro, beretzat ezpazan ezin egin zintzaken. Beraz, zuk, zer egin bear dezu? Jangoikoaren aginduak zintzo bete, gizon-izatea ontan dagolako ⁽¹⁾, ta gañerako guztiak bear etzaizkiolako. Onetara zaude gorputz eta animaz, itzez eta egitez bear tua. Sinismenak au erakusten digu, baña laster aztutzen zaigu. Zorionekoa ni, au ondo ezagutzera iristen banaiz.

Biotzkadak. Azken ain aundirako egin zaitulako *Jaunari eskeñak egiñ.*

Zure azken ori aztuta bizi zeralako *lotsatu.*

Oraindaño moñoi alpeñ, ezertako ez, eta gaiztoa izan zeralako *bildur izan, damutu.*


Aur'erantzerako *Berak nai duanera oso osorik zere burua jañtzea benetan eta zintzo erabaki!*

Baña biotzkada onetan ta onelako beste-

(1) Deum time et mandata eius observa, hoc est enim omnis homo. (Ecel., 12, 13).

etan eztago luzaro egon beańik; naiko da batzuetan esatea, Jainkoaren mirabe ta moroi izango naiz, nere gogoa zeruratu bear det, Jaunaren naia nai det.

Auxe bedi jardunaldi onen azkeneko erabakia.



SUSTRAI TA OÑARÍA

2'ren. ATALA

Jainkoa goratu, ezagutu ta Jauntzat^{en} aritu, ta au egiñaz, betiko bizitza iristeko bakarrik, gizona utsetik atera izan zala begiratu ondoan, lurbiran dakustzigun gañerako gauzak zertako egiñak diran, jakin bear degu; Ortik ikasiko degu gauzak noraño maite eta nola erabili bear ditugun. Oñaría-ren bigarren atala auxe da, eta ona emen lñazio doneak diona.

*Ta lurgañeko besteak, beñiz, gizona-
rentzat egiñak dira, ta berari zerua (elbu-
rua) iristen lagun dezayoten; beraz, gau-
zaok aitaturako elburu oretarako lagun-
tzen duten eran erabili bear ditu gizonak
ta oretarako eragozten duten neuriz al-
dendu bear ditu beragandik gizonak.*

1. «Gurutze santuaren» eginda, gogarte-ordu au Jainkoari eskeñi zayozu; Bereala, gai onetan bigařen ikusten dan gauza au ongi aditzeko argia berari eska zayozu; bizi guztirako bide erakusle on ona, onik onena, izango zaitzu ta.

1'go SAILA

Begira ařetaz inguruan dauzkatzun gauza danak; ainbeste eta mueta guztikoak dira, ta ikustean, nai ta nai ez, utsetik oyek atera zitun Jainkoaren esku eta indařaz ařituko zera.

Bereala zure buruari galde: ze asmo izan zun Jainkoak guzti au utsetik ateratzean? Beretzat etzitun egin, beti betifik neuři gabe zorionekoa dalako, beretzat Bera naiko da ta beste gauzen beařik ez du. Aingeruentzako ere etzitun egin; gorputzdun eta agiri diran gauzak iřola ere berai ezdagozkie, gogo utsak bai dira. Beraz, norenzat egin zitun guzi oyek gizonarentzat ezpada? Eta garbi garbi dakusgu gizonáren-

tzat egiñak dirala; batzuk bada, jatekoa, besteak eratekoa ematen diote; auek soñe-koa, beste auek etsaiegandik bere burua zaitzeko laguntasuna; beste ayek jolas egiteko egokitasuna daukate. Eta guzti auek egiteaz gañera, beti, eta uts-egiten utzi gabe iraun erazitzen ditu, eta esku zabalez eta aspertu gabe ematen dizkigu.

2'ñen SAILA

Eta zer nai zun Jainkoak zu oñen aberats egin zindunean? Zeu, gauz oyetan buruz bera sartzeko etzan izango. Ez ditu egin bada, zu gauza auzeaz aberastu, ta ondasun auek geitu ta geitu ta, oyetan zure gogoa ta nai guzia ipintzeko; ez ditu egin ere zere burua ondasunez beterik ikusiaz, gogoa añokeriz betetzeko, zu gauz oyen jabe ta nagusi ba-ziña bezela; gauz oyek ez ditu egin gorputzari eskatu aña atsegin emateko; ez ditu egin zure biotza maitakeri itxusiz bete dezazun. Beste gauz auek, bada, Jainkoak zertako egin ditu? Lenago aitatu

degun elburu ori irixten laguntzeko; au da, emen lurrean gauz auen bidez Jauna goratu, Jainkotzat ezagutu ta bere mirabe izanaz, gure gogoa zeruratu dezagun. Gauz oyek egin ditu, oyen bidez, Jainkoa saritzat irabaz dezagun: gure saria, Berak esan zuanez, Bera da bada.

Ona emen, zergatik Idazti Deunak; dion; Jaunak gauz guztiak gizonaren oinpean, zerura igotzeko maizat bezela, ipiñi zituala. ⁽¹⁾

Jaunak gauz auek zertarako egin zitun ikusten dezu, baña oraindik obeto adierazi dezagun. Esan degunez, Jainkoagandik gure izatea artu degulako, bere mirabeak gera. Bere mirabeak izanik, ludi onetan Jauregi eder baten ipiñi gaitu, gauz auek Berak nai bezela erabiliaz, guk Berak nai duana iritxi dezagun. Ta mirabeak, nagusien gauza auek, nagusiak nai ez duan bezela erabiltzea, zuzen erabiltzea al da? Ez,

(1) Omnia subiecisti sub pedibus eius. (Ps. VIII, 7).

noski. Eta mirabeak nagusiaren gauzak, onek nai ez bezela erabiltzea mirabe gaiztoa ta eskergabea iatea bada, gauz oyek nagusiari kendu ta beretzat eukitzea, lapurra izatea besterik ez da. Ez gaitezen, bada, ain burugabe ta okeñak izan!

Iru eratan laguntzen digute izaki guztiak gure zoriona irixten. Lenengo: *Jainkoagana gogoa jaso eraziaz*. Eztago ezer lurrean, txikienetan ere, edertasun geyago edo gutxiago Jaunagandik artu eztunik. Eder-tasun ori, ba, Jainkoagan nolabait dagonda. Eta argatik, gauza oyek, bere edertasun ori erakustean, deadañ egiten digute, Inazio Doneari loreak egiten zioten bezela: «Ara zein edeñak egin gaitun Jainkoak: ikusi zeñen ohea izango dan Egilea bera». Eta ola gauz guztiak, Jainkoa ezagutu, goretsi ta jauresten laguntzen digute.

Bigarren: Gauza guztiak zoriona irixten laguntzen digute *neuriz artuaz*. Adibidez, Jainkoak nai dun bezela, jatekoa, loa ta jolasketak artzen baditut, Jainkoaren gogoa betetzen laguntzen didate. Au, gauzak

atsegingaíak diranean. MIngaíak ba dira beriz, ondo eramanda, laguntzen digute zerua irabazten. Gaixotasuna datorkit? Eutsi! Otzak eta beroak ere Jainkoagana naramate. Okeíen bat egin didatela? Ez bildurtu; eta ezerk baño obeto Jainkoagana eramango nau.

Baña ez al dira gauza batzuk, Jainkoagandik alde egiteko, bultz egiten digutenak, oíretarako bakaírik egiñak balira bezela? Auek ere, Jainkoaganatzeko laguntzale ditugu. Bai, ote? Nola ba? Eurakan-dik, iges egiñaz. Lagun txar bat daukazu-la? Alde beregandik, ta Jainkoaganatu zera. Zerbaitek biotzian su kaltegaíren bat pixtutzen dizula? Alde! berak zeu Jainkoagandik aldendu baño lenago, Jainkoagana igotzeko bide izango dezu.

3'gaíen SAILA

Ikasi degu lurgañeko izaki guztiak gure azken ontaraño bitartekoak baizik ez dirala. Beraz, zorioneko azken oíretatarako la-

gutzen gaituen aña, artu ta erabili, eta azken oretatik aldentzen gaituen aña, utzi ta bota bear ditugu. Gauzak artu ala utzi bear ditugun jakiteko, neuñi zuzenik ez dago.

Langileak bere lana egiteko bear ditun tresnak bakarrik artzen ditu. Aizkorea bear ba'du ez da atxur bila ibiltzen; eta atxura bear dunean, malu bila ez da juten. Gizonak onela egin bear du Jainkoagandik artutakoak erabiltzen, au da; zer eta nola artzen ditun dakiela. Lurbirako gauza guztiak zoriona irixteko bide izan litezke, baña danak ez dira beti onuratsuak. Augatik, aukeratu baño len, begira zagun, ia gauz añek zoriona irabazten lagundu ala galera-ziko ete digun: Ba-dira beti galerazten dutenak. Beste askok, batzuetan bai ta bestee-tan ez. Gogokoa ez izanda ere, zerua irixten laguntzen ba dit, gogoz artu: ta atsegiñezko izanda ere, animaren ona galerazi bear ba dit bertan utzi. Utsik ez egiteko bidea auxe da. Eri edo gaixo dagonak sendatuko duen sendagaya nai du, gozoa ala

samiña dan begiratu gabe; eta bere eñira itzultzen danak naiz bide latz, gogoña izan, ara daramana artzen du, beste gañerakoak utzita.

Egin dezagun au gure eñirako, zerurako bidean.

BIOTZ-IZKETA

Gure zorioneko azkena irixteko, Jainkoak bere izakietan eman digun laguntzaga-
tik *eskerak egin*.

Gure griña makuñai jaraitzen egin ditugun utsegiteaz *lotsatu*.

Gaurgero Jainkoagana eramango naufenaik nai eta bideak bilatzeko asmo erabakia egiñ eta artu.



SUSTRAI TA OÑARÍA

3' ren ZATIA

Gauza guztiak gizonari bere zoriona irixten laguntzeko Jainkoak egin zituela ikusi ondoan, oyek nola begiratu bear ditun jakitea bear-bea'ekua da. Oñariaren iruga'ren atala edo zatia au da, eta onela dio «O'regatik bear-bea'ekua da gure aukeran, au da, debakatu gabe daudenetan, iñoragabean gure gogoa idukitzeko alegi'ña egitea. Gaxotasuna baño osasuna ez degu nayago izan bear; ezta aberastasuna landertasuna baño ere; ez izen ona izen txar'ña baño geyago nai izan; ezta bizitz labur'ña luzea baño ere; iritxi bear degun zorionera garamana bakar'rik nai ta aukeratzzen degularik

- 1). «Gurutze santuaren».

- 2). Gogarte-ordu au Jainkoari eskeñi.
- 3). Irugañen atal onen gaya ondo aditzeko argia eta bere ezagueran irauteko indaia Jainkoari eska zayozu;

1'go SAILA

Argi ipiñi digu Iñazio Doneak lurgañeko izaki guztiak gure zorionerako bide baizik ez dirala; ta argatik oretarako laguntzen duten eran eta neurian artu bear ditugula.

Gañera len ikusi degunez izaki batzuk, utzita, laguntzen digute; beste batzuk, artuta, gereganatuta. Badatorkit zerbait; eta ez dakit artuta ala utzita lagunduko didan zerua irabazten. ¿Zer egin? Ona emen Iñazio Doneak diona: Ez degu Batera bestera baño geyago makuñtu bear, iñoragabean, erdi-erdian, pixuaren oñatza bezela jañi ta iduki bear degu gogoa artutzeak ala uzteak zerua irabazten lagunduko digun ikusi arte. Baña, aurera igaro baño len, esan bear degu. Jainkoak debekatu ta agindutakoetan ezin giñezkela egon iñoragabean;

agindutakoak nai ta ez egin beara dago; eta debekaturik dagona ezin liteko inola egin. Oregatik debekatu ta agindu gabe daudenetan bakarrik egon bear degu inoragabean, au da, gure betiko osasunerako obe izango dana bakar bakarrik aukeratze-ko asmoan.

Bide gurutzean bidez dihoanak zer egiten du? Bere etxeruntzko bidea au ala ura dan jakin arte bertan geratu, ez batera ta ez bestera jo gabe, uts egin ez dezan.

2'ren SAILA

Gure esku dauden guzietan ba inoragabean egote au bear da; gure aldetik eria osasuna baño, ezerez eukitzea aberastasuna baño, izen ona txara baño, biztaldi edo bizitz labura tuzea baño naigo izan gabe. Aberastasuna, izen ona, aragikeria, ona emen lur onetan geyen geyen nai izan oi diranak. Oek berenganatzen ditute gizonik geyenak; eta oek ez diete uzten bear dana dan bezela aukeratzin.

Beraz osasuna ez degu eria baño geyo maite bear? Gauz bat bestea baño geyago ez nai izateak ez du esan nai gauz bati besteari baño berezko zaletasun geyago ez izatea, au ezin litekena da, bada. Baña esan nai degu, etzaiola berezko zaletasunari begira bear, baizik zerurako on izango zaigunari. Ta naiz gauza batzu besteak baño berez geyago nai izan gure naime-nak, iñoragabean egon diteke. Ta ori nola? Adimenak gauz bat gogoaren edo animaren onerako dala ikusi, ta naimenak, naiz ta atsegingarria ez izan, nai lezakelako. Gaxo egotea baño osasuna, guztiok naiago degu; baña osasunarekin ez degula zerrua irabaziko ta gaxo egon da bai, ikusiko bagenuke; gaxo egotea osasuna izatea baño naiago izango genuke, noski.

Guztiko berdiñ egote au guztiz beara zait; bestela gauz bat artzeko edo uzteko garayan atsegiñago zaiguna bakarik egingo genuke; ta au bigaren atalean ikusi genduen bezela, txorakeria da.

3'go SAILA

Gauza guztiak gizonaren eskura ipiniak daude bere azkeneko zoriona iritxi dezan. Beraz, zorion oretarako laguntzen duten eran erabili bear ditugu. Onela begiratuta, oretarako berarizkoen eta egokienak izango diranak bakarrik aritu bear ditugu. Azken zorion au nai duenak bera irixteko gai eta bideak ere nai ditu. Au onela bada, dan bezela, gure asmo, nai eta erabakiak arau edo neurgai onekin neurtu ta zuzendu bear genituke. Bidegileak biderik onena ta egokiena artzen du; guk ere zuzen jokatu nai badegu, zerura eldutzeko egokien diran bi-bitartekoak artuko ditugu. Egizko zintzotasuna auxe da, ta betiko bizitzarako ere beste bizibiderik eztago. Alegiña egizu, bada, egi au bañendik ezagutzen, atera bear zayon mami gozoa atera arte. Ez aztu, bada, lurgañeko gauzetatik zure betiko zorioneko laguntzen dizutenak bakarrik erabili bear dituzula, ta oretarako kalte egingo dizutenak ez dituzula ikutu bear.

BIOTZ - IZKETA

Oraindano ondo begiratu gabe luereko gauzak erabili ditudalako negar egin beara daukat, noski. Zein ongi ta lasai ta kezka gabe egongo nitzan beti neurri au erabili izan banu! Zerura naramana artu; zerutik aldenduizen nauena utzi; betiko atsegina emengo didana nai izan; betiko zoritxara ikañiko duana ez nai izan!

Dabid'ekin esazu: «Ardi galduak bezela utsegin nun, Jauna, suleizeko otsoaren ortzetan erori nitzan. Begi erukitsuz begira nazazu».

Aita gurea.... Agur Maria.



SUSTRAI TA OÑARÍA

.....

LENGOAK BEĒITĒIAZ

Bildu ditzagun batera lenbiziko egiak; guztiak alkargana batuta osterá ondo begiratzeko. Egi oiek alkar on egiten eta sendotzen duten egiak dira; eta guztiak batean begiratu, eta ausmartuta, Jainkoaren moġoetzarako asmo sendoak eragiten dizkigute.

1). «Gurutze santuaren», etc...

2). Biotz-biotzetik gogarte au Jainkoari eskeñi.

3). Zure elburua eta ua iristeko erabili bear ditugun bideak ezagutzea eska zayozu.

1'go SAILA

Gizona Jainko gure Jauna goratu ta jau-

resteko ta bere mirabe izateko ta auen bidez gogoa gaizkatzeko zerua irabazteko-egia izan da. Jainkoak egin ninduen. Adimenak au dio, baita oroimenak ere. Zerbaiteko egin nindun. Au ere ezin ukatu. Zertarako ote? Ez nere gogora edo bada ezpadan bizitzeko. Eta bi almen eman ba zizkidan, bata egia dana ezagutzeko ta bestea ona dana nai izateko, oredatik adimenez Bera ezagutu ta naimenez Bera maitatzen egiñalak egin bear ditut. Utsetik atera ta zuzenbide eta egitekoren bat emangabe, nerekin ze ikusirik ezbalu bezela, ni uztea ezin litekena da. Jainkoari ta gizonari dagokien elburua eman zidan. Au ere berak esaten digu; «Nere aintzarako, nere goratasunerako egin zinduan»⁽¹⁾. Bai Jaunaren aintzarako lura etori nintzan. Jainkoa ezagutu, goratu, bere mirabe izan, eta gero beti betitan zorioneko izan. Auxe nere nere zeregia. Egi oni mamia atera, ta begira dezagun bereala Jainkoaren moitizara zerk beartzen gaitun.

(1) In gloriam meam creavi eum (Isai. 43. 7.).

1.º *Jainkoaren moñoitza bidezkoa da.* Jainkoarena naiz; beti; Berea nau; bidezkoa da, aren mirabe izatea. Ordain-saririk aginduko ezpalu ere nere Egile dan aldetik Bere moñoitzara bearturik nengoke.

2.º *Jainkoaren moñoitza oso onuratsua da, oraingo bizitzan eta gerokoan.*

Emengo bizitzan pakean bizitzeko, bestean beñiz betiko zoriona lortzeko. Zeiñ ona eta zeñ jakintsua gure Jauna! jurte bat edo besteko moñoitzari betiko zoriona saritzat eman.

3.º Jainkoaren mirabe izatea beñ beñ-ekoa zaigu. Bere moñoitzatik igesi dabilena betiko zorionetik igesi dabil; eta zorionetik igesi ibiltzea zoririk txarënera juatea da. Bere aldetik egin-beñ guziak egin ditu Jainkoak zoriontasunara ni eramateko. Ni eruduna, ni zoroa, ni galdua, ni buruga-bea, nere aldetik utsegiten badet. Jainkoak ez du ezer galduko. Onez ezpada gaiztoz bere aintza egingo da; sugarak ortarako dauzka. Zorioneko beti izatea irabazten ez badezu, zoritxarëko betitasuna datorkizu.

2' ten SAILA

Lurgañeko besteak, beñiz, gizonarentzat egiñak dira: janaria, soñekoa bizilekua, osasuna, laguntza, ondasunak, ta; baña oiek etzitun egin oietan atsegiteko; eziñ izan au aren asmoa; luñeko gauz igeskoñak betikoa dan gogoa ezin asi lezake ta. Zertarako egin zituen bada? Ez, noski, zuk nai dezuna oyezaz egiteko, baizik Jainkoak nai duana.

Nere zoriona irixteko bidetzat eman zizkidan. Guziak Jainkoa ezagutu ta maitatzeko emanak dira, ta guziak ori erakusten ta oñetarako laguntzen daude; oñetarako bakarrik egiñak dira; beraz, erabili baño lenago añetaz begiratu bear det, on ote zaizkidan ala ez; ta onuratsuak badira artu, ta kaltekoak badira utzi. Lur onetako gauzak neurtzeko beste neuririk eztago. Begira dezagun gañera zergatik gauzak oñela erabili beara daukagun.

1.º Gauzok oñela erabiltzea *bidezkoa da*. Guztien iturburua ta azken-muga, Jain-

koa da. Jainkoagandik datozeela esaten degun adimen-argiak Jainkoagana jun ere bear dutela esaten digu. Gure onerako gauzak egiñak izan dirala, egia da; bafia ayen bidez Jainkoaren mirabe zintzoak izateko, ta ondo erabiliaz betiko zoriona irixteko.

2.º *Gauzak oñela erabiltzea onuratsua da.* Lur ontako gauzak gogo geyegiz nai dituana benetan erukañi da emen; ta gero bere zoriona iritxi ordean, eskutsik arkituko da: eta ori ez ezik miñez naigabez eta kezka bezeterik. Bere zorionera zuzen jun nai duena, beriz, pozez gain-eginda biziko da; eta eriotz-aldian lasai egongo da bere erira zuzen dijala ikusten dun bideztia bezela.

3.º *Gauzak oñela erabiltzea bear beañoa.* Griñai jañaitzea itsu baten atzetik ibiltzea, eriotzgile baten onduan jutea bezela da. Griñak gaitzera garamate. Au ondo dakigu.⁽¹⁾ Eta griña oiekin deabrua bat

(1) Sensus et cogitatio humani cordis in malum prona sunt ab adolescentia sua. (Gen. 8. 21).

eginda dago gure ondamennerako. Inoiz ere ez aztu zure azkenaz, eta oretarako bideak ere biotz aundiaz ar itzazu. Betiko bizitza maite dezun aña, arau ori maite zazu.

3'go SAILA

Len ikusi degunez, agindugabe ta debekatu gabekoetan, inoragabean egon bear degu. Goazen bada inoragabe oretan egoten ikastera.

Luereko gauzak zoriona irixteko gai ta bidetzat gizonari ematen bazaizkio, argi agiri da, bata baño bestea ez dedala geyagoztzat artu bear.

Beraz, erdi erdian, pixuaren oratza bezela, inoragabean, nere burua jari bear det; osasuna gaxotasuna baño, eta aberastasuna gabetasuna baño maiteago izan gabe. Inoragabe onetan zere burua jartzen dezu-nean zure zoriona gogora ekañi, eta bera lortzen, irixten, lagunduko dizuna artu bear dezu; zuretzat zorionbidea orixe da, eta betiko bizitza ortan dago. Griña makura

menderatutakoan begira zazu zerk geyago zerk gutxiago laguntzen dizun. Au egin ondoan, zu zeruratzeko onenik zaizuna nai izan eta aukera zazu. Ona emen gure naya ondo zuzenduko ditun araua, ta neuria; ona emen bi gauzetatik obeen zaiguna artzeko bide eza.

Oregatik Jaungoikoak esango baligu: «osasuna eta gaitza, ondasunak eta gabetasuna zure esku uzten ditut», erantzun bear geñioke «zure naya egin bedi Jauna». Ni, naiz baterako ta naiz besterako nago. Aukeratu zuk, Jauna, neretzat. Osasuna zertarako betiko galtzen ba'naiz? Ta gaitz eta miñak zergatik gogoz ez artu, oyen bidez zeruratzen ba'naiz?


Ondasunak zertarako, galtzen ba'naiz? ta gabetasunari zergatik bildur, zerura eramaten ba'nau?

Biztaldi luzea zertarako, galtzen ba'naiz? gutxi bizitzeagatik zer kalte, betiko zoriona irixten ba det?

Galde bakoitz auei erantzuerara ematean, asmo sendo au atera. Zorionekoa ni bene-

benetan biotz barurafio egi au sartzen ba-
det; bizitz onetan ondasuntegia arkituko
det, eta befiko bizitzara daraman bidea ere
bilatu det.

Aita Gurea.... Agur Maria,



ZERUA IRABAZI

.....

Asteko otoitza. Beti bezela.

Toki iruditzea. Ikusi Parix'en Loyola' tar Iñazio ta Xabier'tar Prantzisko alkarizketan. Loyolatará Xabiertari esaten ari da: Zer irabazten dezu, Xabier, lur guzia irabazi a'ren, zure anima galtzen badezu?

Eskaria. Zerua irabazteko gogo bizia.

1'go SAIĻA

ZERUA IRABAZTEA ZER DA?

Jaungoikoa ikusiaz ta maitatuaz beti betiko atsegiñetan, batere gaitzikan gabe, zoriondunak bizi diran tokia da zerua.

Toki au irabazten duanak irabazi du, be-

raz, ondasunik, aberastasunik, zorionik aundien aundiena.

Toki ortan ez dago ezeren goserik; an daudenak ez dira ezeren egañi. Gogoa dana aseko da zeruan. Betiko atsedena, betiko poza, betiko atsegiña, betiko alaitasuna, betiko zoriona. ¡Ura bai benetan bizitza! Negañik ez, nekerik ez, miñik ez.

Jaungoikoa ikusiaz! Ikusgañi guzi guziak antxe daude. Luñalde onetako ikusgaya ez dira ikusgañirik ikusgañiena danaren antz eta izpi pitin pitin bat besterik. Aseko da an gure ikusi-naia.

Jaungoikoa maite izanaz! Maite diran guziak beren maitagañitasuna Ituñi artatik artu dute. Eta Ituñi ura guretzat! Biotza beti maitez beterik. Maitasun zoragaña! Izan zaite neretzat.

Baña zerua irabazi egin bear.

Lanik egiten ez duanak ez du lan-saririk irabazten. Ez ta alper eta nagiak ere zerurik. Zerua irabaztea da, anima salbatzea. Nik neronek daukat nere anima salbatu beaña. Nik neronek irabazi bear det zerua

neretzat. Ez anaiak, ez ariebak, ez aizpak, ez semeak, ez alabak, ez apaizak. Nik neronek neretzat egín beaíeko lana da. Zerua saria baita, ta saria lan egiñaz irabazi bear da.

¡Au da Jaungoikoa'ren guganako maite-tasun neuígabea! Saritzat eman nai beti-ko zoriona! Gure lanaz irabazia dala esan da, geyago ta geyago poztu gaitezten. ¡Eskeíak, Jauna, eskeíak!

2'ren SAILA

(ANIMA SALBATU BEAÍA)

Bai, gizona, bai. Zerua irabazi beaíean zaude. Ondamendirik negaígarienera zoaz bestela. Anima salbatzen ez badezu, zerua irabazten ez badezu, galdua zera. Zoriona irabazten ez badezu, zori txaía, zorigaiztorik gaiztoena irabazi dezu. Iñoiz itzaliko ez diran sugaíetara zoaz zuzen zuzen zerua irixten ez badezu.

Zerua irabazten ez badezu, zertarako dira emengo ondasun eta aberastasunak?

Emengo jolas eta lasai ibiltzeak? Emengo jan edanak? Entzun, gauz bakoitza zertarako dan ondo dakienari: ¿Zer irabazten du gizonak lur guzia bereganatu a'ren, anima galtzen badu? gogoa gaiztotzen badu?

Zetarako ditu itxasoz dato'enenak bere dirutzak itxasoan ito ta galtzen bada?

Irabazi aundietarako lan gogo'ak artu oi dituzu? Ta irabazirik aundien aundienerako edozer lan eta neke ez dezuz artuko?

Begira ¡anima bat bakar'ik daukazula...! Ori galtzen badezuz ¡dana galdurik!

Bildur ikaraz lan egin dezagun zerua irabazten.

3'ga'eren SAILA

IRABAZIKO OTE DET ZERUA?

Ez jakiñ. Asko dira irabazi ez dutenak. Ezin dezateke irabazi zerura begiak jaso gabe bizi diranak. Zuk jasotzen al dituzu?

Aginduak, amar aginduak betetzen ez dituenak ez dute zerua irabazten. Betetzen al dituzu ama'ak, bat bakar'ik ausi gabe?

Edo beñik beñ erortzen bazera, jeikitzen al zera? Bildur izan erori oyezaz. Baliteke jaiki bako len galdu beara izatea.

Zabar eta arduragabe, loikeri-zale, lapur, marmarizale, lasai ta Jainkoarekin ezer nai ez dutenak asko dirade luñalde onetan. Oyek ez dabiltz zeru-bidean. Zu oyekin al zabiltz? Bide gabe ezin diteke bada, zerura juan.

Esan bada zeorek. Oyek danak zerura juango ez badira, asko ete dira zerura juango diranak?

Zuk erantzungo dezuna erakusten digu dan dana dakienak ere.

Entzun Jesukristo gure Jaunari: Ate zabala ta bide lasaia ondamendira daramana, ta asko dabiltz bide oretan. Ate estua ta bide latza bizitzarako-zerurako-bidea; ta gutxi dira ate oretatik sañera arkitzen dutenak. (Mat. 7. 13, 14.).

Ez bada ibili bide lasaietan.

.....

4'ren SAĪLA

IRABAZ DEZAKEZU ZERUA

Nai izan ezkerro. Baña benetan *nai* izan bear da; ez mingañez bakarrik.

Eta benetan nai izatea, Jauna lagun dezula, ez da lan gaitza.

Ez al zuten zerua irabazi ainbeste ta ainbeste martirik? Ayentzat guztiz zala zan zerua irabazteko lana; baña irabazi zuten. Ez al dezaket nik ayek egin zutena? Bai, benetan nai badet. Zuen aurko euskaldunak geyen geyenak zerua irabazi zuten. Ayen erakutsietan ba zabitzate irabaziko dezute zuek ere.


Okertzen asi zerate? Oitura garbi on ayek uzten? Etzerate juango ayek juan ziran zerura ayen bideetan ibiltzen ez bazerate.

Benetan zerua irabazi-anima salbatu-nai badezu Jaungoikoagan dauzkatzu bear dituzun laguntza danak. Baña laguntza oyek artu egin bear dira; ta artzeko, eskatu; baña ezin eskatuko ditu gora begiak jaso-

tzen ez dituanak, eta eskatzen ez dakienak. Ikasi, bada, zerua begiratzen. Ondo begirako bagenu esango genuke gure Aita Iñazio Deunak ziona: *Zeñen zatañ itxusia iruditzen zaidan luña, zerua ikustean.*

Esan zazu, ta gogo-baru baruan sartu: Ez naiz oraingoetarako jayoa, baizik gerokoetarako. Ez naiz luñerako jayoa. ¡Zerurako jayoa naiz!

Ibiliko naiz, Jauna, zeru-bidean. Bai, Jauna, bai...!



LENBIZIKO JARDUNALDIA

.....
(PEKATUETZAZ)

IRU OKER EDO PEKATUAK

Zoriona iritxi nai duenak nai ta nai ez bere biotza gauza askotatik aldendu bear du; bestela ez diote atsegiñ ori irixten lagako. Baña adimenak au ezagutu aŕen, sañi naimena motel dago. Au da, zerura gure ibilerak zuzendu beaŕean, askotan gure makurkeriak okeŕera joerazten digu. Oŕegatik on izango zaigu oker ibili diran norbaitzuen ondorenak ikustea, zuzen ibiltzen ikasi ta gugan Jaunaren bilduŕa sortu dedin.

Gañera gogoratze ta gogo-lan onek erakutsiko digu, zein dan ondatzeko zorian

ipintzen gaitun griñarik kaltegarriena. Ta
au bein arkitu ezkerro, Jaunaren laguntzare-
kin bera suztraitik ateratzea ereza da.

Gertutzeko otoitza, lengoxea.

Toki iruditzea. Gorputz ustelgañi one-
tan, giltzapean bezela, nere gogo au ikusi-
ta nere gogo ta gorputz au ibar luñalde,
onetan, pizti zakañen artean atzerituta, er-
bestetuta bezela, begira.

Eskaria. Jaunari eskatu nere buruaren
lotsa ta alkea; oker edo pekatu bategatik
ainbeste galdu ta gaiztokiratuak izan dira-
la ikusi ta, ainbesteko nere okerengatik
zenbatetan ni ere gaiztokiratu ta betiko su-
gañetan egon beañekoa nitzala gogoratu.

1'go SAILA

Lenbiziko ogena gotuts edo aingeruena
izan zan. Aingeruak Jainkoak egiñak dira,
ta ederak benetan egin zitun. Gogo edo es-
piritu uts-utsak dira soin edo gorputzik ga-
be; gizonak baño adimen askoz aundiagoa
dute; naimen bikañagoa ta indartsuagoa;

eskeréz edo ederéz beteta egin zitun. Idazti Deunak aingeruak atsegin-tokian uréz ta ari ederéz apainduta bizi dirala ipintzen dute: Zorionekoak ziran benetan; eta ederéz (graziz) argitasunez, arintasunez ta ilezkoitasunez beteta zeuden.

Ain eder eta argiz jantzirik beren buruak ikusi ta aingeruetatik askok beren adimen ta naimena Jainkoaren nai eta gogora etzuten ekañi ta Jaunaren mendean egon nai ere ez. Arokeriz puztu ta Jaunaren Agindua ausi, au da, ogen edo pekatu egin zuten; eta Jaunak bere ondotik gaiztokira, betiko sugaretara, bota zitun.

Begira oni dariaizkan ondorenak.

Nork zigortzen ditu? Jainkoak.

lñoiz ere geyegi jotzen ez dun Jaiko zuzen-zuzenak; zigoña baño erukia erabili naigo dun Jainkoak.

Ezer izkutatzen etzayon Jakintsuak. Aseréz sutu ta, ezer egiten ez duan Doneak. Gaizkileak zeintzu dira? Aingeruak, Jainkoagandik izatea artu duten izakirik bikañenak.

Ayen erua zertan egon zan? Ogen bat egin zuten, ta ogen au lenengo ogena zan; gogo utsez edo pensamentuz eta une batean egindako okeña.

Zer gaitz edo zigorkada ematen zaye? Onetarako berariz egindako su-leizea; min guzien lekua, betiko suga ikaragarriak.

Ta nola? Bereala, ogen egin zuten unean bertan, guztiak, bat ere gelditu gabe.

Orain aingeruak egin zuten utsegite bakar au nere ainbeste okeregite larrien ondoan ipiñi ta nereak ayenaren ondoan ikusi ta neurtu. Aingeruak ni baño bikañago ta ederago izan, ta ala ere okeña eginda berealaxe Jainkoak gaiztokira bota zitun. Ta nik, gogoz, itzez, egitez, zenbat ogen egin ote ditut, ta auekatik ainbeste aldiz gaiztoki aretara juan bear nuena, ez nau Jainkoak oraindik sutoki artara bota!

Gañera nere ogenak, Jainkoa nigatik il-da gero egiñak diralako, aundiagoak ta beltzagoak dira, ta ala ere, ez nau orain arte, gaiztokira bialdu.

BIOTZ-IZKETA

Lotsatu nadiñ aingeruak ogen batengatik gaiztokiraturik ikusita, ni ogenez beteta egonik arutzako bidean ainbestetan egon naizela gogoratzean.

Ogen bakar batek, olako ondamendi ta galera egin ba'zun, ni, ainbeste eta ain az-tunak egiñda, ez naiz bildur izango?

2'fen SAILA

Adam da Eba'ren eroria ekañi. Bat edo batek uste izan lezake aingeruen okeregi-ña beste era batekoa dala, ta gizonakin ez dala Jainkoa ainbeste aseñetuko. Dakus-gun, Jaunak Adan egin, eta luñeko Atsegin-tokian ipiñi ondoren, lo eragin zion, ta Adan lo zegola, bere sayets-ezuñetik Eba sortu ta laguntzat eman zion. Edeñez, ilez-kortasunez, jakitez apainduta gorputz-animak, bear zana egiteko, beti zuzen ibili zitezken. Eta Jaunak, bera Jauna zala adiraz-jeko, agindu bat ipiñi zien: Atsegin toki er-

dian zegon zugatzetik ez jatea. Beste guzietatik jan zezatekela, baña *onaren ta gaiztaren* zugatzetik ez. Baña Adam ta Ebak Jaunaren agindua ausi egin zuten ta gero beren buruaz lotsatu ta osto-soñekoaz jantzi ziran. Berealaxe Jainkoak atsegintegitik bota zitun, eta, galdutako zuzentasuna gabe, beren bizitz osoa lan eta neke askotan igaro beara izan zuten.

Eta au guzia gaizkiegin lañi bategatik! Eta ez ori bakarrik. Gizonen artean dauden mingaitz neke oñaze, ustelkeri guziak eriotza bera ere ogen onetatik sortu dira.

Begira gertaera negargañi au alde guzietatik.

Nork zigortzen ditu? Jainkoak, jakintza ta zuzentasuna bera danak.

5' ten SAILA

Ogen lañiaren txarkeri ta gaiztakeria obeto ulertzeko ogen bategatik, edo nik ditudan baño ogen gutxiagogatik, gaiztokiratutako bat ikusi dezagun. Asko ta asko

nik ditudan baño gutxiagogatik gaiztokirtuak izan dira. Ikusi oyetako bat.

Begira orain:

Nork zigortzen ditu? Zuzentasuna berbera dan Jainkoak. Ogen lañi batek, beti gaiztokian egoteko aña zatarñkeri ta itxuskeri ba-daukalako.

Ayen erua, okeña, zer da? Ogen bat bakaña.

Ogendunak zein dira? Baliteke luzaroan Jainkoaren maitean bizi zanen bat, edo ogen egin arteraño betiko zorionaren jabeagai izanaz bizi izan zanen bat izatea.

Zer gaitz edo zigorkada ematen zayo? Betiko sugañak, betiko negaña. Jainkoaren zuzentasunak ain erukigabe jotzen duenean, ¿zenbaterañokoa ote da ogenaren astuntasuna? Jainkoak gizonen egile ta jabe dan aldetik; gizon guztiak bere mendean dauzka, ta ortik gizonak mendetasuna zoñ dio. Baña ogen egiñaz eskubide ori kentzen dio, aren aginduak austen ditu, aren nagusitasuna ezerezten du, ta bere alde-rik Jainkotasuna eta Jauntasuna ukatzen

dio. Ona emen ogen lañiaren gaiztakeri ezin esanalakoa, neurigabekoa; eta argatik gogor zigortuta ere, ezta egundano ge-yegi zigortuko, adimenak dionez. Ogen lañi bakar batez, neurigabezo ontasuna dan Jainkoari txarakeria, bide ez dana, egiten zayo; beraz neuñi eta mugagabe zigortua izan bear.

BIOTZ-IZKETA

Gizon erukañi ta zeure buruaren etsayañ Zure galdu-bear ori nola ez ikusi? Ta ikusita etzera lotsa ta bildur?

Au arokeri eta zorakeria! Jainkoaren zuzentasun-bildur ez izatea! Neurigabeko ontasun zeran Jainko maitea! Nik zure artaldetik aldegin det, zure agindupetik iges egin det, zure biotza zauritu det; idamu det, Jauna!


ALKAR-IZKETA

Ainbeste gizon-emakume nik ditudan ba-

ño oker gutxiagogatik gaiztokian daudela jakin, ta ni oraindik bizi naizela ikusirik, gurutzean josita dagon Kristo gure Jaunaren aurrean belaunikaturik, onela itz egiten jardun: Jauna, nere alde zenbat egin dezut! Nere egilea izanik, gizon egin zera ta lande, beatsu jaio ta bizi izan ziran. Amaika neke eraman zenuan zerurako bidea neri erakustearen; eta ona zenbat esker txar gaiztakeri ta lotsagabekerirekin ordaindu dizudan! Ta gero ni ogen-mendetik ateratzearen gurutzean josita il ziran. Ta ogi-irudipean gure artean zaude eta onela nere lagun, adiskide, irakasle, argi, anai ta nere on guzia zera. Zu guzia neretzat izatea bai dala geyago ezin-ala egitea!

Eta nik zure alde zer egin def? Bakoi-tzak bere barua begiratu dezala ta ainbeste gaiztakeri ta oker ikusi.

Ta orain Jesukristoren alde zer egin bear def? Galdera oni bakoitzak erantzun dezayoke; baña Jesukristo oso-osorik eman bazaigu guk gure burua Berari ematea asko izango al da? Kristorenak ez gera ala?



NORBERAREN GAIZKIEGIÑAK

.....

Iñazio Doneak gogarte onetan len artu dan damua geitu ta indartu nai du; biotzean barurago sartuta pekatutik geyago al-
dendu gaitean; ariñ artzen dan damuak ariñ iges egin oi dualako. Ta auxe da be-
aŕekoena gure bizitzan; ogen laŕia biotzez goŕotatu ta iñoiz ez egin.

Gertutzeko otoitza: lengoxea.

Toki-iruditzea: lengoa.

Eskaria: Emaidazu, Jauna, damu bizia, ta nere obenengatik, pekatuengatik, negar egitea.

1'go SAILA

Nere bizitza guztiko gaizkiegiñak gogo-

ra ekañi; urtez-urte edo aldiz-aldi. Iru bide oñetarako artu ditezke: Begira zein eñi ta etxeetan bizi izan naizen. 2n.) Nolako lagunekin ibili naizen, ta. 3n.) Ze bizibide izan dedan.

Gogoan artu bi oar oek: azterketa eta pekatuak gogora ekartzea, aitortzeko egiten dana bezin osoa ta zearoa ezjala izan beañ; aundienak gogoratzea naikoa da. Aragizkoetan luzegi ez egotea. Sartu, zaitez ba, zeure bañuan Jainkoaren aurrean; eta biotzeko samintasunez asi zaitez zure urteak gogoratzen.

Txikitan; etxean, ikastolan, jolas-aldietan zer egiten zendun? Gurasoakin, lagunakin, nolakua ziñan? Zenbat gezur, alperkeri, asañaldi!

Gaztetan; aundiago ta gaiztoago. Laister asi ziñan ogen lañiak, oker aundiak, egiten. Zer nai izaten zendun, zer gogoratzen zendun? zer esaten, ta zer egiten zendun? Esan dezala toki arek, etxe arek, lagun arek. Zure asmoak, zure izketak nolakuak ziñan? Amar aginduak eskuetan artu ta ia

arkitzen dezun sañi ausi eta ostikopetu ez dezunen bat? Zure gaztaroari, aotik, begietatik, alde guztietatik, usteltasuna ta aragikeria ez al dario?

Gizon egin da gero; lengoaz gañera diru-zalekeria ta besteak mendean euki-naia edo aundiustea etoñi zitzaizkizun. Eta zenbat aldiz bear baño geyago irabaziaz, edo zereganatuaz zere burua galtzeko zorian ibili zñan! Zenbat aldiz gezur ta dolorkeriz gure gauzetarako, zu ontzat eukitzeko, ta ontzat eukiaz besteak menpetzeañen, besteak saldu eta ayen izen ona loitu ote degu!

Zenbat aldiz bide zikiñetan ere ez ote zera ibili! Ezkonduta egon añen, zure ibilerak garbiak eta zuzenak izan al dira beti?

Ene Jainkoa! nitzaz eruki nere okeñak buruko ileak baño geyago dira. Guzti oiek damu ditut, eta batez ere *onelako* ta *alako ayek*.

2'fen SAILA

Begira orain pekatuak, okeñegiñak, be-

ragan daukan itxusitasuna, debekatuta ezpalego ere.

Eta gizona abereak bezela bizi izatea, abereak bezela nai duana besteari lapurtzea, abereak bezela besteari gaitz egitea, abereak bezela, goruntz begiak jaso-gabe, lurrera begiratzea, ur zikiña edatea ta lokatze-tan etzanda egotea itxusia ez al da berez?

Ogenak gaiztakeria ere bai du. Ogena naita egiten ez ba-da, ez da ogena; ta naita egitea, itxuskeri ori nai izatea, gaiztakeririk izugarriena ez da?

3'fen SAILA

Nerau zer naizen begira nere burua gutxituaz.

Gizaseme guztien aldean zer naiz? Zeruko aingeru eta done guztien ondoan gizaseme guztiak zer dira? Jainkoaren aldean, izaki guztiak zer dira? Ba nik bakarrik ze izan naiteke? Nere gorputzaren usteltasuna ta itxuskeria begira. Begira nere gogo guztia zauri bat egiña!

Nere eriko gizon guzien artean zer naiz ni? Gauz aundirik ez. Europako gizon guzien artean zer naiz? Oraindik gutxiago. Eta gizon guztien artean zer ote naiz? Ondartza baten ondoan, ondar auts bat aña. Ta izan diran, orain bizi diran eta izango diranen ondoan zer ote naiz? Luñ guziaren ondoan txindurí bat dan aña? Ta luñ, eguzki, izar eta diran guzien ondoan zer ote naiz? Eta Jainkoaren ondoan beste gauza guziak eguzkiak legortzen duan intz-tanto bat bezela ba'dira zer ote naiz Bere ondoan? Utsa, ezer-eza.

Pekatu egitean, bada, gu, uts geranok, ezin esan alako Jaun onen kontra egiten degu. Jaun oni besoa jaso, ezereztu ta jo nai bagenu bezela! Ta ori egitea erokeririk erokeriena ez al da? Ta edertasun berbera dan Jaunaren kaltez, pekatu loiak egin!

4'fen SAILA

Begira, zein dan naigabetu dezun Jainori; aren aberastasuna nere gabetasunaren

ondoan ipiñirik, aren jakitea, nere jakinezaren ondoan, bere guzti-al-izatea nere eziñaren aldean; aren zuzentasuna nere okerkeriaren aldean, aren ontasuna nere gaiztakeriaren aldean.

Nor da Jainkoa? Dana dezakena, Itz bat esan ta argia irazeki, ta eguzkia, izañak, luña egin zituan. Eta ni, Jainko ain altsuari lotsa galtzeko ze ote naiz? Gixa-kaxkar zital bat besterik ez.

Nor da Jainkoa? Jakite ber-bera. Dan guzia, gertatzen dan guzia, beti begi aurrean dauka. Ta ain jakintsu dan Jaunari gaizki egiteko ni zer naiz? Ez-jakin eta buru-motel bat besterik ez.

Nor da Jainkoa? Zuzentasun ber-bera bakoitzari berea ematen diona. Ta ain zuzena dan Jainkoari, okeñak egiteko nor naiz ni?

Zer erantzungo dizut orain Jauna? Lotsaren lotsaz itzak eztañian itotzen ba'zaizkit!


Nere negar malkuak erantzun bezate. Damu det, Jauna, damu det.

5'fen SAILA

Ni gaiztokira bota gabe zergatik eustendio Jaunak bere asareari? Andra Mariak zergatik begiratzan nau erukiz? Aingeruak zergatik ez naute il? Eta lurgañeko beste guziak ere zergatik ez diote Jaunari deadar egiten esanaz: Kendu Jauna, gaizkile, pekatari au lur gañetik eta suleizera bota! Zergatik ez naute bota? Oker-bidea bera, gaiztokira, inpernura nijoala, gaiztokiaren ta nere bitartean Jauna gurutzean josita jañi, Jaunaren aurrean gelditu nitzan! Eta Jauna nigatik gurutzean josi ta il zalakoz bizi naiz! Oregatik ez nago oraindikan gaiztokian, suga ikargañi ayetan.

Ene Jauna, oraindaño bizitza eman didazulako esker egiten dizut! Emendik aurrea pekatuetatik igesi ta zure agindupean bizi nai det.





IRUGAREN JARDUNALDIA

PEKATUETZAZ EGIN DIRAN BIAK BERIRO GOGORATZEA

Asiera otoitza, oi dana.

Toki iruditzea, lengoxea.

Eskaria berbera.

Gogora ekañi lengo gogartetako gogoragayak sailez sail. Eta baten edo bestean mami gozoagorik eta zure gogoarentzak jaki biguñagorik arkitu badezu; au da, egi-
ren batek biotza ikutu badizu, besteren batek alaitu, eta baita lotsa ta damu aundia-
goa sortuazi badizu ere, oyetan jardun zai-
te zure gogoa osoro ase arte.

Au dana zure bañenean gaizkiegiñ gu-
zien goñoto bizia sortzeko egin bear dezu.
Oretarako egiñalak egin bear dituzu. Oñe-

tarako buruan erabilia ausnartu dituzun gogoragayaz gañera, otoitzetan au eskatzen jardun bear dezu.

Begira oretarako zer erakusten digun an Iñazio Deunak: Egiñ iru alkarizketa: Ama guztiz garbiarekin lenengoa: onela, adibidez, esanaz: Iritxi izkidazu, Ama, zure seme ta Jaunagandik eskatzen dizudan iru esker auek: 1'go nere pekatu ta gaizkiegiñ guzien ezaguera argi argia, ta beayeniguin eta goñato bizia; 2'en nere gaizki-egiñetan agiri dan okerkeria ezaguturik obetu ta zuzendu nadila; 3'en mundutañen asmo ta us-te gezurti ta galdu galgañiak ezagutu ditza-dala; gizakeri ta uskeriak nigandik alden-du ditzadan. Oek eskatuaz esan; Agur Maria.

2'gañen. Alkarizketa Semearekin, Ama lagun eta nere alde detala. Eskatu lengo iru ayek, Aitagandik iritxi dizadan. Eta esan:


Anima Kristi....

Onela euskeraz;

Kristoren gogoa, santutu nazazu
Kristoren gorputza, zerura nazazu
Kristoren odola, txoratu nazazu
Kristoren saietseko ura, garbi nakazu
Kristoren nekaldia, indartu nazazu
O Jesus ona, entzun idazu
Zure zaurien baruan, gorde nazazu
Zugandik alde egiten, ez neri utzi.
Etsai gaiztoengandik zaitu nazazu
Eriotz aldian deitu nazazu
Eta Zugana joatea agindu idazu
Zure Santuekin batean beti betikoan
Gora ta gora zaitzadan. Alaxe Amen.

3'garrena. Berebat Aitarekin, Jesus eta
Maria aldamenetan ditudala, iru esker ayek
eskatuaz. Eta esan *Aita gurea*.





BETIKO SUGARAK.—I.

.....

Badira.

ASTEKO OTOITZA OI DANA.

INPERNUA BADA.

Toki iruditzea. Su ta gañez betetako leizezulo baten luzera, zabalera ta sakontasuna ikusi; ta an baztañ baten neretzat dagon tokia Jaungoikoarekin asare iltzen banaliz.

Eskaria. Sugar ayetan sarturik banengo bezelakoxe neke ta bañeneko eñetzea; Jaungoikoari zor diodan maitasunaz azturko baldiñ banintz, betiko sugar ikaragarri ayen bildurez beintzat, aginduetan zuzen ibili nadiñ.

¡Kristaua! Betiko sugarak irazekirik daude. Bada inpernua! Nai badezu suleizea (suz betetako leizea) nai badezu gaiztokia

(gaitza ta gaiztoak besterik ez dagon tokia) nai badezu itzalpe itxia (betiko kartzela) nai dezun bezela deitu; baña badago, Jaungoikoaren aginduak ausi ta bere aseáean iltzen bazera, su gaáetan eáetzen eta kixkaltzen idukiko zaitun lekua. ¡Zulo madarikatua! An eroriko ete naiz bada ni? Balitake. An dago atea zabalik bertara juan nai duten guziak irentsitzeko. Oraintxe bertan gizon- nezko ta emakumezkoak irentsitzen eta irensitzen ari da. ¡Bai infernua bada, ta bildur izan!

BETIKO SUGAÁAK

Ukatzaleak.

Beren baáreneko aáa ito nai, eta, ez dala oáelakorik, oyek apaizen esanak dirala, ta erausian aritzen diran inpernu-ukatzaleak egiñalak itzez eginda ere, aáa ezin ito; nai izan aáen ezin kezkek ixildu ditute. Oáela dabiltz, eta biderik zuzenena daramate su gaáayetan erortzeko. Ixiltzen ez badira, sinistu bear dana sinisten ez badute, burua ma-

kurtu eta Jaungoikoari *damu det, Jauna, damu det ain ajolabe izana; sinisten det sinistu bear dan guzia; bai ta inpernuko su gañak badirala ere sinisten dizut, esaten ez badute, ara dijoaz zuzen zuzen ukatzaleak. Eta an izango dute negaía ta kezka, ta samintasunik gañatzena; ta neke ta oñazerik gogoñenak an igaro bearko ditute beti ta beti. ¡Ez; arduragabe eta ajolagabe izanak ez ditu betiko su ayek itzaltzen!*

Izan diran gaizto guzien artean gaiztoenetako ta jakintsuenetakoa izandako bati (*Voltaire* zuan izena), esan zion bere lagun batet: «Poztu ari, aixkide, ikusi diat nik inpernurik ez dala». Eta gaizto jakintsuak erantzun zion: «Nik baño geigo ikusi dek. Ik baño lan geiago oñetarako egin da (eta esan zezaken «i baño azkañagoa eta argi geyagokoa izan da); ez diat nik oñelakorik ikusi». Bolter baño jakintsuagoa ta geyago ikusitakoa ete da gure eriko ardandegi edo sagardotegian beriketari jarduten dun alper ardura-gabe ura?

Egia. Baña, Jauna, esaten didazu; utzi

ditzagun gezurti oyek, eta jakin dezagun argi ta garbi zer gertatzen dan leku ayetan Nork artuko degu Erakusletzat? ¿Nor? Erakusten ari zanean su ayek ikusten zegon bat. Jesus Jaungoiko egiazkoa. Eta onek esaten digu: gaiztoak gari-soroan nekazariak arkitutako belar gaiztoa bezela dirala; ta belar gaiztoari pilotuta nekazariak su ematen dion bezela, azken-egunean gaizto guziak pilo bat eginda sutara botako dituala Jaunak. Sugar ayek beti beti iraungo dutela. An daudenak izango dutela betiko negara ta ortz-kañaska; an daudenai etzaiela itotzen baruko ara ta kezka; ta sua ez dala inoiz itzaltzen. Ara ez dala itoko; ta sua ez dala itzaliko.

An kixkaltzen daudenak naiko lutekela zer edo zer, ur tanta bat bakarik bada ere, egaña kentzeko; baña ez dagola an atsedetik ez dagola ta ez dala inoiz izango ur tanta bat bakarik ere. An ez dagola, eretzen eta kixkaltzen egañiz eta gosez eta amoru biziz itotzen egotea besterik.

Oek ez dizkigu asmatzale batek esaten.

Oek esaten dizkigu itz egiten ari dala, esaten duena ikusten duanak.

Eta ez dizute zuei bakarrik esaten; neri bai, Erromako Aita Santuari ere bai; eta oregatik su ayen bildura bañen bañeneraño sarturik daukagulako, bañen bañenetik, biotz biotzetik ateratzen ditugu bildur itz oek.

¡Sinisten det Jauna erakusten didazuna! Sinisten det, zure asarean iltzen diranak, su eta gar ikaragari ta beti betiko ayetara joango dirala.

Ez nadila ni il zure asarean Jauna, Ez, añen, ez.

Jesukristo (inpernuan) gaiztokian zer gertatzen dan erakusten. (Luc. 16, 19).

Aberats tripazaiatzaz irudikia. Aberatsak ez dira asko daukatenak bakarrik. Asko ala gutxi iduki, *diruzaleak, lurzaleak* dira emen aditzen diran aberatsak.


Aberastasun asko arta zitun; baña etzun ayekin zerua irabazi. Jan, edan, eta lo, ta jantzi edereez jantzi, besterik etzun egiñ. Uste baño lanago etori eriotza, ta eramantzuten betiko sugaretara. An eretzen dago-

la urez bustitako beatzez mingaña ikutzea nai, baño ez dago an atsegin antzik ere.

Juan bedi, bada, Lazaro nere anayengana emengo beñi ematera. Baña eiantzuten zayo. Ez daukate inor beñi ematera joan beñik. Irakuñi ditzatela gai oñetazko idaztiak eta entzun Elizako Erakusleei; ildako bat piztu ta joan ezkerro, obeto sinistuko luteke. Ez. Liburu deunei eta Eliz-Irakasleei sinistu nai ez dionak, ilda gero piztutako bati ere ez dio sinistuko. Egi egia! (Ikusi geldi ta astiroago irudiki au).

Sinisten det ¡Jauna! eta sartu bedi nere ezur-muñetaraño beñi betiko sugañ ikaragañi ayen bildur-ikara!

Amaitu «Aita gurea» esanaz.



BETIKO SUGAÑAK.—II.

.....

INPERNUKO NEKE TA DEADAÑAK

Gertutzeko otoitza, oi dana.

Toki iruditzea, lengoa.

Eskaria, lengoa.

1'go SAILA

SUA

Leizezulo artako *sua* su berezi bat da. Emengoa ez da aren antzirudia besterik. Inpernuko *sua* Jaungoikoak egiña da, aren aseñean iltzen diranen gogoak edo animak lenbizi, ta gero anima gorputzak eretzen idukitzeko.

Suak gaitz guzien miñ eta oñazeak emango ditu. Gaitz guziakin josita eta bat egiñik dago an dagona. Oregatik da toki

aren izenik egokiena *Gaitz-tokia*. *Gaitzen* tokia, *gaitza* besterik ez dagon tokia.

Emengo suan beatza idukitzeko kemenik ez badaukazu; ¡ibili! ¡ibili! su ayetara daramatan bideetan! Ero, zoro, burugabea ez da, su ari bildurik ez diona?

Ni ez, Jauna, ni ez naiz sugaŕ ayei bildurik izango ez diona. Ez, Jauna, ez. Ikusten ditut su ayek Zure begiz, nere begiz ikusiko banituke bezelaxe!

2'ŕen SAILĀ

INPERNIKO NEKE OÑAZEAK GORPUTZAREN ZENTZUNETARA EKAŔI

Ikusi sugaŕ beltz, ilun, ikaragaŕi, kixkalkaltxale ayek. An etsairik amoraŕtuenak; an gizonik galdu ta gaiztoenak; an gaizkile, lapur, eriotzgilē zatar zikiñik zikiñenak, zitalik zitalenak, odolzalerik odolzaleenak.

Oyek izango ete dituzu beti betiko lagun? Entzun ango ay ene ta deadaŕak; ango zotiñ eta negaŕak, biraurik zikin eta zatar iguingaŕienak. An aitari, amari, anaiari,

arébari, aizpari, semeari, ta alabari, adiskide ta lagunei mingañez botatzen diezten zikinkeriak.

Orelakoak entzuten eta esaten egongo ete naiz beti beti an?

Suduretara etoriko diran usai zikin nazkagarriak gogoratu, gogoan artu ta erabili. ¡Alako urdekeri usairik! ¡Aiako ustel kiratsik!

Eta bein artzen asi ezkerro, ez dago usai ayetatik iges egiterik.

Aoan nai ta nai ez artu bear an deabruak bertan sartuko ditutenak. Txastatu ta jan nazkgarikeri ayek...!

An daudenak etoriko balira, esango luteke ez degula bear dan guzia esaten. Askoz garatzagoak dirala neke oñaze ayek.

Ikutu goitik eta betik, eskubitik eta ezkeretik, auretik eta atzetik, eta baéndik estutzen, jositzen, eretzen duan su dardaragari ura. Arantzak eta iltzeak eta ezpatak baño zofoitzagoa ta kaltegarriagoa da su ura.

3'fen SAILA
BIOTZEKO ARA

A' nazkaga'ri batek jango du an dagona-
ren biotza. Suga'ri kixkalga'ri auetara ¡nik
neronek nai izan detalako eto'ri naiz! esan-
go du, nega'rik samiñena ta amo'uga'riena
egiñaz. *¡Nai izan detalako! ¡nai izan de-
talako!* Eta a' nazkaga'ri onek usteldu ta
jango dio biotza.

Nere neska-lagun ura, mutil ura, gizon
ura, andre ura, nerekin batera egi dardara-
ga'ri auek entzun zituana, zeruan betiko
atsegiñetan dago. Ta ni? ¡Jan, jan a' uste-
la nere biotz au! Irabazirik dauzkat miñik
itoga'rienak!

Baña ezin kendu a'ra! Ezin ito!

Ni su ayetara joaten banaiz? Ez litzake
nere a'ra ere ilko!

4'fen SAILA

BETI, BETI

Oartu al zera zer esan nai duan itz onek:

beti beti? Oraiñ mila ta bederatzireun urte dirala ur tanta baten eske zegola aberats ura, eta egunik, eta unerik igaro ez balu bezela dagola. Ez diola *eternidadeari*, beti irauteari zati txiki bat bakarrik ere kendu. Igaroko dirala milaka ta miloeka urte, eta ez diola an egon-beñarari une bat minutu bat bakarrik ere kenduko.


Txinduri batek ibili ibiliaz, bere anka-txuakin luza ebakiko al luke? Al izan ezkerro, zenbait eta zenbait urte bearke ete lituzke? Guziak igaro ta gero, inpernuan dagonarentzat beti egon beara, asi ez baltz bezela.

Jaungoikoak berak esango ez balu, ezin liteke sinestu. Baña argi ta garbi esan digu eta jburua makurtu, ta esan dezagun: Jauna, sinisten det, suleize artara joango baintz, *beti beti* an egon bearke nukela!

Sinisten det, Jauna, nai dutenak joaten diralaugar ayetara; eta galdu nai duanari, jondo datorkiola nai izan duan egoeran beti ta beti gelditzea!

Baña ni, Jauna, nik ez dezadala nai su
ayetara juatea. ¡Ez, a'ren, ez!

Amaitu, orain arte sugar ayetan erori ez
naizelako Jaunari eskerak egiñaz.



ERIoTZA.—I.

.....

ETORÍKO ZAIT ERIOTZA

Gertutzeko otoitza: betikoa.

Toki iruditzea: Nere burua iltzeko zor-
rian ikusi, oe batean, lagunak inguruan di-
tudala.

Eskaria. Ordu artan naiko dedana, oraiñ
egiten asi.

1'go SAIĻA

ETORÍKO DA NIGANA ERIOTZA

ILKO NAIZ

Gure lenengo gurasoari esan zien Jau-
nak. Nere agindu au austen badezute, ilko
zerate, zuek eta ondorengoak. Ausi zuten,
il ziran ayek, eta ilko gera gu. Jaunaren
esana ez da bete gabe geldituko.

Au berau da nere begiak ikusten dutena. Eriotza nunnai. Eta ez diola iñori bere bizian uzten. Ez dit neri ere utziko. Ez daukat nere etorkizunaren beste beririk. Ez dakit, biar gaxotuko naizen ala ez naizen; nere ondasunak galduko ditudan ala ez ditudan; itxutuko naizen ala ez naizen....

Au bakar bakarrik esan dezaket nere etorkizunaz, uts egiteko bildurik gabe. *Ilko naiz.*

Ilko naiz? Eta il bear ez banuke bezela bizi? Ez orixet!

2'fen SAILA

¿ZER ESAN NAI DU ILKO NAIZELA ESATEAK?

Dan danak utzi bear ditudala, laga bear ditudala esan nai du, ilko naizela esateak.

Begira zer esaten dun azken-erabakia—testamentua—egiten duanak:

Uzten ditut diu ayek onentzat.

Uzten ditut beste ayek arentzat.

Uzten ditut soro ta bazter ayek....

Uzten ditut etxe ayek...

Uzten ditut basoak....

Uzten ditut.... ¡A zoro burugabea! Eta ainbeste lan eta izerdiz irabazitakoak *utzi*? Bai; bear ko *utzi*.

Baita bear ko utzi guraso, ta ume, ta sende, ta adiskide, ta atsegin, eta jolas lagun ayek eta beste ayek ere. ¡Agur, agur, befiko agur! Arantzaren bat geldituko ete da nere biotzean agur au egitekoan? Ateralen bait len arantza ori befiko ar biurturik gelditzea naiko ez badezu.

Utzi garaiz biotzez beintzat eta gogoz, nai ta naiez gero utzi bear ko dituzunak.

¡Ikasi, ikasi eriotzagandik bear dana artzen eta bear dana uzten!!

3'fen SAILA

ILKO NAIZELA ESATEAK ESAN NAI DU:

NERE AZKENEKO LANAK EGIN-BEARA

ETORIKO ZAIDALA

Etoriko zait azkeneko gaxotasuna, edo,

bear bada miña. (Ez dakigu gaxorik ala bestela ilko geran; baña eriotzagandik bere erakutsiak artzeko, egin dezagun kontugure eriotza onela datořela, orain adirazten degun bezela).

Azkeneko aldiz aitortza edo konpesioa egingo det. Oroituko naiz orain egingo detanaz. ¡Ze poza ondo egiten badet oraingoal! ¡Kezka negargaria gaizki egingo banu!

Azkenez, Jauna artuko det. Askotan aseřerazi badet? Nere biotz garbi-garbian askotan artu badet? Onela artuko ete det, Elizakotzat artzen dedanean?

*Azken igurtzia—olio santua—emango didate, eta ematekoan esango du Apaizak: *Barkatu Jauna, zure mirabe onek begiz, belariz, mingañez... egindako uřsegiñak.**

Azkeneko asnasa datorkidanean irakuriko ditu Apaizak; eta Apaizik ez badago, beste norbaitek iltzen daudenentzat Elizak dauzkan Otoitzak. Irakurri itzazu bizitzan euskeraz arkituko dituzan libururen baten; adibidez, «Argi Donean».

Esango det; ¡Jesus! Jesus! Jesus! al badet; eta nik ezin badet esango ditu besteren badek nere izenez, eta *jilko naiz!*

4'ren SAILA

NERE GORPUTZ ILA

Ilko naiz eta nere begiak, zabalik gelditzen badira ere, ez dute ezer ikusiko; nere belarriak ez dute ezer entzungo; nere gorputzari nai dutena egingo diote.

Asiko da usteltzen, eta nere gorputz onen usai zikiñak etxe guzia nazkatu ez dezan, aterako dute etxetik len bai len.

Bai, negaréz geldituko badira ere, atera bearko nere gorputz ustela; eramango dute lurpera eta an ar nazkagarriak jango dute.

Ikusi, gorputz ila begiratzeko kemenik badezu, il danetik amar amabost egunera. Ederenik ederenen izan bazan ere, itxuskeririk nazkagarrien bihurturik dago.

Entzun Gandia'ko Duke Borja'tar Prantzisko Deunak Eregiñaren gorputz ila nazkagarrikeri bihurturik ikusi zuanen esan zua-

na: auñera ez naiz ni Gaurdanik, ilko zaidanaren mendean egongo.

¡Eta zuk zure gogoa gorputz ustelkoak
nai dunera erabiliko dezu? Erantzun Jaun-
goikoari. Ez, Aita, ez.



ERIOTZA.—II.

.....

ERIOTZA NOIZ DATORKIDANIK

EZ JAKIN

Gertutzeko otoitza, besteetakoa.

Toki iruditzea, lengoa.

Eskaria, len bezela.

1'go SAIĻA

ERIOTZA NOIZ ETOŖIKO Z AidAN

Gaur ala biar; urte bete baŕu ala geroa-
go, *ez jakin*.

Gaur bizi diranetatik, obeto esan, bizi
geranetatik eun da ogei mila ta geiago ilko
dira biarko eguna amaitu baŕno len. Oyeta-
ko bat izango ete naiz ni? Egunen bateko
bat beintzat bai. Noiz etoŕiko da egun ori?
Badator, gelditu gabe dator, eta,

Gutxien uste detanean elduko da neri bizia kentzera.

Lapuía bezela dator, noiz datoíren esan gabe.

Aurten garitan, artotan, babaírunetan berebiziko ugaritasuna izan degu. Ez degu negu txaría igaroko. Onela ari da nekazaria ta Jaunak esaten dio: A zoro zoroa! Gaur bertan ilko aiz, eta bildu ditukan oyek norentzat geldituko dituk?

Osasun ona daukagu; zoíak ere ordaindu ditugu; ederki gaude. ¡A zoro buruga-bea! Biar ilko aiz. Eta? Jaungoikoagana joateko gerturik al ago?

Gutxien uste danean etoíriko da bada eriotza, beti gerturik egon, artu-eman eta gorra-bera guziak zuzen eta garbi iduki?

Ez bakaírik gutxien uste danean. Askotan, *pekataria pekatuetan, dabilenean eta Jaungoikoa aseírazitzen ari danean bertan*, etoíri izan da eriotza.

Biraua bota ta bertantxe ilik erori. Dantza-lekutik, lagun galdu baten besoetatik, deabruaren atzapaíretara. Ez nitzake lenbi-

zikoa izango. Zine txar batetik betiko suga-
gak ikustera, ta beayetan eretzera.

2'fen SAILA

NERE ERIOTZA ZE ERATAKO ERIOTZA

IZANGO ETE DA?

Onaren eriotza ala gaiztoarena izango ete da nerea? Ustez ustez gabekoa? Asko iltzen dira onela. Berogetik amaren bat bai.

Nere eriotza etxean izango ete da? Itxasoan?, trenean? oñez nabilela? Itota?, zapaldu ta, le' egin da? Ez dakit.

Ez dakizu nun eta nola ta noiz ilko zeran eta aini ajolagabe bizi zera? Noiz nai Jaungoikoa ase'eraziaz bizi zera? Eta ez dezu Berekin adizkidetu nai?

Bizitza bezelakoa izango da eriotza. Bizitza txara bada eriotza txara. Ta bizitza txarak berak dakar eriotza txara, ta juste baño lenago!

Bide okeretan banabil, bide okeretan izango da nere eriotza. Askok Jaungoiko-

az paíe egin nai dute. nai dituten lasaikerietan ibiliáz; baña paíe orék ez du urúti izango negaía. Emen ez bada, izango da beñiko sugaíetan negaí ugari egin beaía.

Entzun zer dion Jaungoikoak oyetzaz. «Ego quoque in interitu vestro ridebo». (Prov. 1, 26). Bizi zeraten bitartean nere esanak ez aditu, nere aginduak ausi, nai izan dituzuten lasaikerietan ibili, nere legeaz paí egin nai izan dezutela? «Nik ere zuen eriotzan, zuen ondamendian paí egin go det».

ð'íen SAILA

GAIZTOAREN ERIOTZA. - ONAREN ERIOTZA

Guztik negargaía, ta txar txar gaiztoaren eriotza. Iges egin dute arengandik atsegiñ eta poz guziak; laga dute gaiztakerietako lagunak. Mutil ayek eta nexka ayek, lizunkerizale ayek utzi dute. Algara-lagunak ez dira agiri.

Baña oyen orde z badator etsaya, badator jaun zoíotz eta zuzenaren auíera joan

beaía; agiri da sua ta gaía. Ta... ¡betiko, betiko!

Iltzen zegon gaizto bat. Esaten zion Apaizak sinistu zezala, damutu zedila, egiteko aitortza on bat. Ez det inpernurik sinistu nai, erantzuten zun.

Etoñi zitzayon azkena. Eta iltzen zegola baztañera begiratu, ta ¡¡Andago sua, agiri da sua!! orú egiñaz il zan. Gezuía ez bazion (eta etzeukan sua ikusi nairik) sinistu nai etzuana ikusiaz il zan.

Ikusiko dute, bai, ikusiko dute betiko sua sinistu nai ez dutenak eta sinismenari dagokionez bizi nai ez dutenak.

Onelakoa izango da, bada, gaiztoaren eriotza. Iltzen dagonean ikusten ez baditu, il da bertan ikusiko ditu beretzat irazekirik dauden betiko sugaíaak.

Eskatu Jaunari, eskatu bear diozuna, eta aditu zer esaten dizun.

Guztiz atsegiña izango da onaren eriotza. Ikusten eta entzuten degunez (eta Jaungoikoari eskeíaak egiaz esan dezakegu) onaren eriotzak izaten dira euskeraz

itz egiñaz iltzen diraden geyen geyenak eriotzak. Askok aztu ta baztertu nai duten euskera maite onek. ¡Zenbait on egin dizkigun!

Gure eriotza ere onarena izango ete da? Onelakoa bada, oso paketsua izango da. Zeruko ateak guretzat zabal zakalik ikusiko ditugu. Eta begiz ikusten ez baditugu ere, biotzak ala esango digu. Gure ondoan daukagun apaizak ere bai, esango digu: «Zoaz, ainbeste maite izan zaitun Jaungoikoagana. Bere ondoan daukazu zure bizi lekua».


Bukatu dira onarentzat lan eta neke danak; eta bere etorkizuna betiko atsedena, betiko poza, betiko atsegiña, azken-gabe-ko alaitasuna da. Zer nai dezute zerurako? galdetzen zun iltzen zegon batek. Ara jun gaitezela danok erantzun zioten. Eskatuko diot bada Jaungoikoari, nere-kontu. Ta oñela itz egiñaz il zan.


Beste batek bilduazi oe inguruan etxeko guziak eta: «agur egiteko itz bi, esan nai dizkizuet, eta esan zien: *Gero arte*». Esan-

go balu bezela. Ni banoa zerura, etoñi zuek nere ondoren. Eta berealaxe etoñi bearko dezute; laisterka ta igesi dijoaz, bada, bizitz onetako egunak. Artu gurutza eskue-tan, eraman ezpañatera, musu eman «Je-sus» esanaz, aldezun geyenetan eta Jesus gurutzatuak zerura eramango zaitu.

Eskatu eriotz ona eta egin orain Jaunak esaten dizuna.

(Eriotz ona irixteko otoitzak irakuñi litez-ke Eleiz libururen batetik a. b. «Zeruratze-ko indaía» deritzan Uñoz Jaunak eginda-kotik).





AZKEN EGUNA

.....

Zuri ta neri ta guzioi azken eguna etorriko zaigu eta gizadiari, ludiari ere etorriko zayo bere azkeneko eguna.

Egun artan nai ta naiez batzuk bilduréz ta besteak oso atsegiñez ikusiko deguna, begira zagun oraiñ: Jesus gure Jauna gurutza eskuan duala, Apostolu (Bidalien) erdian exerita gutako bakoitzak zer irabazidun eta nora juañ bear dun erabakitzen; eta ezkerrekoak betiko sugařetara ta esku-bikoak betiko atsegiñetara juañ ditezela esaten.

Auzi ikaragaři ta pozgaři au begira ta ikusi.

Eskatu: Ikusi ta aukeratu dezagula oraiñ, egun artan aukeratu ta izango deguna.

Gertzeko otoitza. Oi dana.

Toki iruditzea. Ikusi Jesus auzi-aukian

exerita gurutza eskuan duela; eta Aposto-
luak aldamenetan,

Eskaria. Nai izan dezadala orain bene-
tan, azken egun artan naiko detana.

Etoñiko da.

1 - Etoñiko da biziak eta ilak (juzgatzera)
epaitzera. Sinistu beañoeko egia da, ta si-
nisten det.

2 - Egun ura bere begien aurrean zeukala
onela itz egin zun Jesus Jaungoiko gure
Jaunak, egun artan zer geriatuko dan aurre-
ez azalduaz: Eguzkia bera baño edeñako
ta argitsuago agertuko dala zero goietan;
juango gerala auzi-lekura, exeriko dala ba-
koitzari zer eman erabakitzera; bialduko
dituala gaiztoak suleizera; eramango ditu-
ala onak Berekin batera zerura. Ona itz
gutxitan Jesus'ek esanak bilduta.

¡Nik ikusiko det Jesukristo gure Jauna,
nik bere itzak entzungo ditut: ni juango
naiz. ¿Nora....?

3 - Kaipas'en aurrean.

«Ikusiko nazute egunen baten zuek gu

ziok eta beste guziak epaitzera, juzgatzera etortzean».

Martiriak ederki ikasi zioten Jesus'i egi au: Nexka gazte garbi (virgiña) Eulali Deunak bera ilerazo zuan Agintariari esaten zion: Begira nazazu, ezagutu ondo, ikusiko degu, bada, alkar azken juizioko egunean zure ta nere Jaun Jesus'en aurrean. Arek emango dio bakoitzari berea. Zuri lotsagarisiko gaiztakeri onekin irabazten ari zerana. Neri neretzat daukan zoriona.

Ayek bezela erabiliko det nik ere gogotan, Jauna, egi au!

Piztuko gera.

4 - Jesus gure Jauna zeru goietan bere edertasun eta argiz guztiz zoragarri egiñik agertzen danean bertan, aingeru batek «*tuba mirum spargens sonum, per sepulchra regionum...*» dunbots ikaragarria egiñaz, piztuko ditu ilak Jaunaren indarez, eta «*surgite mortui, venite ad iudicium*», esango du: Atozte ilik zaudetenok, jeiki ta auzitokira, epailekura etori.

Amoñu biziz Jesus ona goñoto izan zutenak ere, jeikiko dira, ta bildur ikaraz Jesus gurutza berekin duala ikusiaz eroriko dira luñera zeru-luñen Jaunari, gogoñean bada ere agur egitera....

Eta juango gera guziak,

Auzi-tokira, epai-lekura.

Eta an, begi guziak ikusiko duten liburu aundi baten bezela, agertuko dira bakoi-tzari, irabazi duanez, berea emateko jakin bear diran oker, utsegite, gaizkiegin, gaiz-takeri, zitalkeri, maltzurkeri, erailketa, jan edan geiegi, lapuñeta (izkutu izkutukoak ere bai); gezur kaltegarñi, ezkontz-auste, ur-dekeri ta lizunkerì ta zatarkeriak (beste bategen bakañik eta norberak bakañik dakizkiekienak ere bai).

¡Zenbait itxuskeri agertuko diran egun gogoangarñi artan! *Liber scriptus profertur. In quo totum continentur. Unde mundus iudicetur.* Ez, etzayo Jesukristori ezer izkutatuko; ez dio iñork iges egingo.

Al baluteke, sugañetara len juanda izku-

tatu naiko luteke an egongo diran maltzur onek eta ark, eta andiko beste arek; baña... entzun bear dutena entzun arte an egon bearako dute, ta izango dute nai aña ta geia-go asti su gañetan kiskaltzen egoteko.

¡Ze bildura ta ze lotsa! Ta nere okeregiñak agertuko ete dira? Nai ez badezu ez; ez dira zure kaltetan agertuko.

¡Esan, Jauna, agindu nai dezuna; egingo det, bada, xuxen xuxen, an ez lotsatzeko egin bear dana! Bai, Jauna, bai.

Ezkeñera ta eskubira.

Liburuan dagona ikusi ta asiko dira aingeruak esaten: «I atera adi ortik eta ua ezkeñerá».-Gelditu zu eskubian.-Ama ezkeñera.-Alaba eskubira, ez diozu, bada, zuk amari jañaitu.-Beste alaba ura ezkeñera, ama beriz eskubira: Ez du alaba arek amaren antzik izan.

«I joan adi ezkeñera, biraularia izan aiz eta eziñ aiteke Jaungoikoarekin egon; etsai zikiñakiñ egon bearako. I ere bai ezkeñera, loikerietan, ordikerietan, lapuñetan... ibiliñ

diranakiñ. Beste ura ere i bezelakoa izana dek; baña Jesusgana garaiz biurtu zalako eskubian geldituko dek. Egia da; Jaunaren eskubian agiri dira gaizkile izandako asko; pekatari aundiak izanak ere bai. ¡Jauna! oen artean bada ere artu nazazu, ezkerreko ayek ikaragarizko dardara ematen didate bada. Egingo det oretareko egin bear dana. Bai, Jaun maitea, bai.

Erabakia, epaia, azkeneko itzak.

Begiratu zorotza egiñaz bildura ta dardara gorputz animetan sartuaz, esango die *ezkerrean* daudenai: *Zoazte, madarika-tuok, betiko su garretara, etsai deabruarentzat irazekirik dauden sugar aytara.*

«Zoazte»—atzera nigandik, uruti emendik, emen zoriona dago ta zuentzat zoritxaia besterik ez da bear; uruti emendik, emen atsegiña, poza, alaitasuna, bizitza, osasuna, ontasuna, ta nai diran aberastasan guziak daude; baña zuentzat ez dago negaia, samintasuna, ar garatza, kezka, satekabea, oñaze ikaragarriak, bildura, ta

negara, ta ortz karaska ta eretzen eta kixkaltzen beti beti egotea besterik.


Ereriko dira bada zuloa beera; irentsiko ditu sugarak, infernuak gaizto guziak, eta danak sartutakoan, itxiko dira betiko ate ayek. ¡Begira gaizto guzien azkena! ¿Zurea ere bai? Erantzun nai dezunai, baña benetan, ez mingañaz bakarrik.

Begiratu bigun biguna eskubian daudenai egiñaz esango du Jesus'ek: Atozte nere Aitaren kutunak, nere Aitaren bedeinkatuak, arzazute munduaren asieratik zuentzat ederena dan Jesus; badakite Beragan daudela biotzak atsegiñez asetzeko ondasunak, neurigabeko aberastasunak eta *Atozte* ura bai itzaren samurtasuna, biguntasuna, nekerik ez, kezkarik ez; beti poza, beti atsegiña, beti maitasuna, etengabeko ta azken-gabeko egunetan. Eta juango dira zintzo guziak zerura.

Biotz - izketa.

¡Jauna! Lagundu bide zuzena artzen, indartu, aulduta gelditu ez nadiñ, zigortu

okeéeratzen ba naiz. Zure eskubira jua
nai det. Eraman nazazu; bai, aén, bai.



SEME GALDUARENA

.....

Orañ arteko jardunaldietan Jaungoiko gure Jauna zoñotz eta zuzen ikusi degu. Oñela ikusi bear degu beti, eta ez iñoiz aztu zuzena ta zoñotza dala.

Baña ez genuke ongi ezagutuko guztiz eñukitsua eta biotz biguña ere dala jakingo ez ba genu. Eta au da orain ikusi ta gogoratu bear deguna.

Askotan agertu zien Jesus'ek berekin zebiltzenei bere Biotz eñukitsua: Artzai ona zala, esanaz; gaizkile damutuak bigun bigun artuaz, beste era askotan. Baña berañrik oñetarako azaldu zun ipui edo irudiki batera joango gera gu gure Aita onen biotz guztiz bigun, eñukitsu ta maitagaña ikus-tera.

Irudiki au izango da *Seme galduarena*.

Gertutzeko otoitza; oi dana.

Toki iruditzea. Ikusi etxera bidean seme galdua negarez aitaren besoetan.

Eskaria. Gure Aita Jaungoikoaren erukia ezagutu ta Beragana benetan damuturik biurtzea eskatu.

Irudikia.

Aita batek bi seme dauzka. Seme gazteena aurkezten zaio egun baten eta esaten dio: Aita nik nereea nai nuke, nere senizatia. Eta Aitak ematen dio bere senizatia.

Egun gutxi baru seme onek Aitaren etxea utzi eta urutiko uri batera jotzen du. Eta emen galtzen ditu bere diru guziak loikerietan ibiliaz. Diruak galduta gose gorria sortu zan alde aietan eta mutila moitza-ra juañ zan eta bere nagusiak txerri zai bialdu zuan mendira. Eta txerriai ematen zitzayen jana (ezkurak eta) pozik artuko zituzken nolabait sabela betetzeko; baña etzioten uzten ezkurak jaten ere.

Bere aitaz gogoratu zan onela bere burua ikustean, eta esan zuan bere barnean: Nere etxeko mirabe ta langileak naiko ogia

badaukate jateko, ta ni emen gosez iltzen. Ez, ez naiz emen geldituko. Jeikiko naiz, eta joango natzaio nere aitari, ta esango diot; Aita, oker aundiak egin ditut Jaungoikoaren eta zure aurka. Eta ez naiz zuk zure semetzat artzeko gai; baña artu nazazu zure langileen artean.

Asmo au artu ta etxe aldera jo zun, eta etxera baño len aitak ikusi, bidera irten eta bere besoetan artu, lepotik eldu ta mila musu eman ziozkan. Semeak; Aita, Jaunaren eta zure aurka egin det, ez naiz nor zuk zure semetzat artzeko; baña aitak moroiai, ots egiñaz, esan zien: Ekañi onentzak soñekoñik edereña, ipiñi iozute eraztuna beatzean eta oñetakoak oñetan. Eta il txekor gixena, bazkari aundi bat egin bear degu ta. Il zan bada nere seme au eta piztu da; galdu zan eta arkitu egin degu. Eta bazkari aundia egin zuten.

Onaraño gogoan artu ta erabili bear degun erakutsia.

Seme galduak etxean zeukana.

Nai zun edo beintzat bear zun guzia zeu-

kan aitaren etxean: Aitaren maiean jan, etxe on bateko semeari zegokion eran jantzi; jakin bear zun guzia erakutsi; gaxotzen bazan sendagile ta sendagairik onenak beretzat izango zitun. Azkenez, aitaren begiak eta biotza berekin zeuzkan.

Baña bai ta bear ez bezelako lagunak ere arkituko zitun, noski. Oengandik kalterik ez artzeko, bere aitaren esanetan ibiltzea zuken biderik onena; baña gaztea izan eta lagun txarretara jun zan. Eta oek urutiko urietan mutil gazteak, dirurik izan ezkerro, egiten zituten loikeri ta ibilera galduen berri eman zioten.

Asi zan mutila gogorapen txarai leku ematen, lotsa galdu zun, eta aitari, aro aro beragana aurkeztuta, (senipartea) senizatia eskatu zion. Eta aitak eman zizkion seme gaztearentzat zeuzkanak.

Dirudun bere buru ikusi, ta loikerietan sartu nai zuken; baña bere aitaren begietan ezin! Eta ¿zer egin?

¡Aitaren etxetik iges egiñ! ¡A gizajo gizagajoa! ¿Bai aldakik zer egiten dekan?

¿Nun arkituko dekala uste det aitarenaren antzeko biotzik? ¿Nun ire etxeko ondasun eta lasaitasunik? ¡Etoñiko dek, etoñiko dek negaía ire begietara!

Baña laga dezagun gazte galdua, ta sartu gaitezen gere baitan; gu gera seme galduak eta.

Guk gure Aitarenean, berekin adiskide geundenean, bear genun guzia genduken. Zerurako eskubideaz gañera biderako bear diran laguntasunak ugari. Aundia zan ordun gure poza ta biotzeko lasaitasuna.

Baña lagun gaiztoak eta okeñerako gure makurkeria zirala edo, asi giñan bururapen gaiztoai leku egiten, eta lotsa galdu ta Jau-nagana jun giñan esanaz. «Nik nere esku, nere oñ, nere begi, nere mingañ, nere gorputzaren jabe izan nai det, nere buruaren jabe, nai detana egiteko.

Artu Jaungoikoagandik' ondasun auek, iges egin Beragandik, au da, Jaungoikoaz aztu, lagun gaiztoakin batu, ta leporaño pekatu loietan sartu giñan.

Lasaikeri ta loikerietan.

Urutiko urira eldu orduko lagun gaiztoen adizkide egin zan. Oek etxerik galduenetatik galduenetara; eta jolas loienetatik loienetara erabili zuten, Zeuzkan diru guziak galdu-eraziaz eta... loikeri itxusienetarako oitura nazkagarriak artu eraziaz... Gose ikaragarria sortu zan alde ayetan, eta mutila... gosez... griña txaréz beterik.

Gizon txeridun bategana j^uan zan lan eske. Eta gizon onek basora txerit^u-talde bat zaitzera bialdu zun. Nolabait bete nai sabela, ezkuéz bazan ere, baña ezin. ¡Txerij^uanik ere ez zitzayon ematen.

Orixe ber bera gertatu zayo pekatar^uriari. Jaungoikoa utzi, lagun gaizto etara jun, animaren edertasuna, Jaungoikoaren adiskidetasuna... lotsa galdu, oitura txar^uak artu; eta auei jaten emateko edozeñengana... txerizaietara jo, oekin ibili... eta ezin ase gosea. Beñ naikoa izango dala uste, ta artu dan oitura txar^uak, geyago ta geyago eskatzen ¡Eziñ ase!

Aita gogoratu. Gosez iltzeko zorian da-
gola, bere Aitaz eroitzen da, ¡A nere Aita!
Ez da nere aita nagusi au bezelakoa. Nere
aitaren mendean dauden moñoi eta langi-
leak naiko ogia badaukate; nik beñiz emen
¡ezkuñik ere ez! Eta bere bañenean buñuka...
Alde batetik lotsa...bestetik il beña gosez,
aitaren maitasuna. Maitasunak lotsa garai-
tzen du ta...Aita gana. ¡Aita ez ni semetzat
artu... artu nazazu moñoitzat!..esango diot
aitari.

Jeiki da ta Aitagana dijoa.

Bitartean Aitak dio beregan. Agertzen
bada nere semea, damuturik etoñiko da;
ta damuturik badator, artuko det. Eta begi-
ra, beti begira dago. Etoñiko ete ba?

Alako baten ikusten du norbait. ¿Nere
semea balitz? Uraxe da, ba! Bera dirudi...
Bera da! Ta biotzak daramala, semeagana
dijoa.

Semea belaunikatzen zayo. ¡Aita, ez naiz
ni zure seme izateko aña! Artu nazazu mi-
rabetzat. Lotsagabe izan naiz Jaungoikoa-

ren eta zure auñerako. Artu nazazu mo-
roitzat.

Baña aitak... ikusten du semearen biotza,
ta estu estu laztanduaz; ots egiten die nes-
kameai esanaz:

Ekañi, gordeta neukan soñeko beñia;
jantzi oñetakoak, ipiñi beatzean eraztuna.
Ta jun ditezela moñoiak ukulura, il dezatela
zekor gizona; jai aundi bat egin bear degu
ta; galdu zan, bada, nere seme au, ta ar-
kitu da, il zan eta piztu da. Eta asi ziran
bazkaria egiten.

Izan ete da giza-arteon onelako aitarik?
Ez dakit beste iñor izango ete zan; baña
bat bai, Jaungoikoa, Jesukristo nere Jaun
jaungoiko ta gizon egiazkoa. Eta eruka-
ria ni, neretzat seme galduaren Aita izan
ez balitz!

Pekatariaren ibilera. Nere ibilera.
Ibilera txarretan ezin atsegiñik arkituaz ne-
bilela, gogoratu nitzan Jaungoikoaz. Ots
egin zidan nere Aita onek biotzera. Biurtu-
ko ete naiz Jaungoikoagana? Nere okeñak

aitortzeko lotsa... Baña ilko naiz gosez, galduko naiz, biurtzen ez banaiz! Buruka gogoña dauka pekatariak bere barrenean. ¿Geldituko ete da lotsaz Jaungoikoagana, Aitagana biurtu gabe? Askok ori egiten dute, ta... il egiten dira betiko eriotzaz.

Beren buruari benetan on nai diotenak lotsa garaitu, ta Aitagana dijoaz.

Bitartean Aita semearen zai dago Elizan, aitorlekuan, Sagrarioan... Bidera ateratzen zayo—Artzai onarenak egiñaz—laztantzen du, bere adiskideen soñekoz jantzi erazitzen du, semetzat artzen du... Eta zeru lurretan dan janaririk onena ematen dio. Seme galduaren Aitak ezin zezakena, ba dezake nere Aita onek eta bere gorputza janaritzat eta bere odola edaritzat ematen dit.

Izan al liteke Aita oberik? Arkitu al liteke Biotz erukitsu ta bigunagorik? Maitatzale sutsuagorik? ¡Au da bada nere Aita! Esan Aita oni: ¡Aita! gaurtik aurrera ni beti zurekin!

Eta itz egin dezala orela biotzak.

JESUKRISTOREN DEYA

.....

LUREKO EREGEAREN DEYAK ZERUKO
EREGEAREN BIZITZA GOGOAN ERABILTZEN
LAGUNTZEN DU

Orain sartuko geran bi asteetako lan g-
ya, Jesukristori jaraitzen ikasteko lana da,
zerura juteko beste biderik eztago bada;
eta iru asteetako gai guzia bere bizitz do-
ne-donea izango da.

Gaizkiegiñak gogoratuta negar egin eta
gogoa zeruratzeko dagoan kristauaren-
tzako, ze bultzagañi indartsuagorik salba-
tzailea zerura irabazteko eramaten ditun la-
nak baño? Ikusi oretarako lenbizi Iñazio
Donearen gogoragai au.

Gertutzeko otoitza: lengoa.

1.º Sañera: *Toki iruditzea.* Emen izango

da Kristo gure Jaunak Bere itzaldiak egiten zebilela igaro zitun sinagoga, eñi, gaztelu ta etxaldeak ikustea.

2^{en}. Sañera. Eskaria. Nai dedana eskatu. Emen eskatuko det ez nadiñ bere deya entzuteko goñ izan; Bere nai done-donea betetzeko ernai ta gerturik egoteko eskeña ta beroa eman ditzadala

LENENGO ZATIA

1^{go} SAILA

Nere aurrean ipiñita, gogoaren begiz ikusi Kristau guztiak, nausi ta mendekoak airtortzen eta jauresten duten erege bat. Erege au Jainko gure Jaunak autua eta guzizko doaiz apaindutakoa da. Jakintsua, zuzena, indartsua, biotz andikoa, eskuzabala, almen andikoa. Beti bere agindupekoen ona besterik bilatzen ez dakiena; itz batean: Jainkoak Berak bere eskuz autua bezelakoa. Ez da iñun izan orrelako eregerik; baña guk, Aita Iñazio Doneak erakusten digun bezela, asmatu ta egin dezakegu.

2'fen SAIĻA

Entzun érege o'rek guziei auxe esaten diela: Sinisgabeko lu'ralde guztia neretzea gogoak eman dit. Beraz, nerekin eto'ri nai lukenak, nik bezelako jana edana ta jantzia izango du. Berebat, lan egin bear du egunez nik bezela, ta gabaz ni bezela ernai egon; nere lankidea izan zan bezela, gero ere nere garaikidea izan dediñ; au da, lanean lagun izan geranak, irabazian ere lagun izan gaitezten.

3'fen SAIĻA

Onelako érege esku-zabalari ta biotz ederdunari bere mendeko zintzoak zer eratzun bear ete diyoten gogoartu; ta olako éregearen deyari, bere burua eskeñiaz, erantzuten ez diona ez bedi gizartean gizonki agertu. Gizon izan nai dun gizonak, biotz bulartsuagoa bear du.

2'fen ZATIA

1'go SAIĻA

Orain zeruko Éregeagana biurtu gaitean

eta luéko Eégeak bere mendekoai egi-
ten dien deia entzun ba degu ¿zenbatez
obea ez ote da betiko Eége dan Kristo gu-
re Jauna ikustea, ta bere auéan gizadi
osoa eta bakoitzari Arek dei egin eta esa-
ten diola: «Gizadi osca ta etsai guztiak az-
piratu nai ditut, oéla nere Aitaren Aginte-
erian sartzeko. Beraz, nerekin etoíi naiko
lukenak nerekin lan egin bear du, nekean
nere lagun eta jaíailari izanda, atsegiñetan
ere lagun izan dedin».

Eta Aitak Aingeru eta gizon guztien Eé-
ge egin zun gizon miragaíi au zeíñ da?
Bera da Jaungoikoaren Semea, egizko Jan-
goiko, eta Aitaren atsegiña, gizonen Sal-
batzaílea, zerutaíen poz-emaílea, betiko ja-
kintzaren ondasuna guziak beregan dauz-
kana; neuígabeko almena da bere almena;
ontasunean mugarik ez du; ta Bere izena
entzutean zeru luéretakoak eta, sugaíetako-
ak ere bai, belautu luératu beara daukate.
Au da zuri deiez dagona; agintzen duana
egiñaz, auéetik dijoa, eta ondoren dijoakio-

na poz atsegiñez beterik uzten du. ¿Etze-
ra Juango Berekiñ?

2'ren SAILA

Biotzik eta adimenik ba daukate dei au entzuten dutenak beren buruak lanerako emango dituztela, gogora ekañi. Ala da. Biotz eta adimendunak bagera, Jauna, ni Zurekin, ni zure alde, ni zure lagun esango diogu Jesusi.

Gogora obeto nor dan eta benetan eskeñiko zatzaio Berari.

Badakizu seme galdua bazkari aundia egiten bere Aita erukitsuaren altzoan gelditu zala. An dago Aita guztiz maitagarriaren biotzeko poz-taupadak entzuten. Baña baskaltokira etxeko moñoiak lañi datoz ¿Ze gertatzen da? dio etxejaunak. Jauna, erantzuten dute moñoiak, Beroñek eñi-ondotan dauzkan bazter eta ondasun aberats aye-tara lapuñak datotz. Lenbailen alde ayetafik botatzen ezpadira ondatuko ditute bazter eta ondasun guziak. Aita au entzutean

jeikitzen da ta bere semeari esaten dio: Ene seme maite, ondasun ayek zuretzat dira... nai badezu etorri nerekin, lapur ayekin buruka egiñez ondasunak gordetzera; etzaitut gogorean eraman nai; ni banoa nai badezu lagundu zure aita zar oni....

Zer esango zenuteke seme galduak esango balu «Ni ondo nago emen bazkaltzen.... zoaz zu nai badezu?

Jesus da Aita ori; zu ta ni seme galduak... Esango diozu Aita maitagarri oni: Nik ez daukat lanerako gogorik, ondo nago emen.. egin lan zuk bakarrik nai badezu?

Biotzik badezu ez dezu orrelakorik esango.

Erakutsiko dizu Aita Iñazio Deunak zer erantzun:

3'go SAILA

Beren betiko Erege eta gauz guztien Jaun onen mo'roitza eta lanetan Berari laguntzen geyago egin eta aureneko izan naiko luketenak beren buruak lanerako eskañi ezezik, eskeintza aundiagoak ta mamitzu-

agoak egingo dituzte eta norberaren griña txarrak eta nagikeria ta aundinaia gogor menderatuaz esango dute. «Gauz guztien Jaun betikoñ ori; Zuri, guziz ona zeran ori, nere eskeintza egiten dizut eta zure Ama maitearen aurrean, baita aingeru guztien aurrean ere, esaten dizut; nere naya ta gogo bizia ta asmo erabakia dala, zure moñoitza geyagorako ba-litz, zure antza artzen ekitea. Oretarako betoz, bear badira, nola naiko iraiñak, nolanaiko gabetasuna edo ezer ez eukitzea, pañagañi izatea, Berorek ni oñelako bizibidean ibiltzea nai badu.

Eskeintz au biotz biotzez egiñaz amaitu.



JAINKOAREN GIZON EGITEA

.....

- 1) *Gertutzeko-otoitza*. Oidana.
- 2) *Gertaera*: Emen izango da mundu zabal zabal au gizonez beteta, Aita, Semea eta gogo edo Espiritu deunak ikusten zutela. Eta guziak gaiztokira, sugařetara, zijuaztela ikusirik, oiek bide artatik ateratzeko asmoz, bigařen persona gizon egitea, erabaki zuten. Ta artarako garaia bete zanean, gure Andra Mariarengana Gabriel aingerua bialdu zuten.
- 3) *Toki iruditzea*. Emen izango da mundu zabal biribila, ta bertan dauden ainbes-tetako gizon muetak ikustea. Ta berebat, Galilea aldeko Nazareth erian, gure Andra Mariaren etxea, ta gela, bereziki, ikustea.
- 4) *Eskaria*. Nai dedana eskatu beař da nigatik gizon egindako Jaunaren gogo ta

biotz bañu bañurañoko ezaguera argi argia
Bera geyago maitatzeko, ta Berari gogo
geyagoz jañaitzeko.

1'go SAĪĻA

Personak ikusi, batak-eta besteak, eta
lenengo luñ-azalekuak soñekoz eta arpe-
giz ain ezberdiñak: batzuek zuriak, bes-
teak beltzak; batzuek pakean, besteak
buruketan; batzuek nega rez, besteak pa-
rez; batzuk sendoak besteak iltzen eta
abañ.....

Guziak lenengotik zuzen, eta ge ro gaiz-
kile egindako Aita baten ondorengo seme
alaba okeñtuak bezela, suleizera jungo zi-
ran Salbatzañearen eñukia Jaungoiko ta gi-
zadi galdu bitartean jañi ezpalitz.

Gero begiak goratu, eta ikusi Irutasun
santua, bere jarleku altsuan, lurgain biribil
osoa begira dagola. Baita bertako gizon-
pila guztiak. Ain itxuak, eta iltzen, eta gaiz-
tokira, sugañetara, erortzen.

Azkenez, gure Andra Mari ta 'agur egi-

ten dion Aingerua ikusi, ta ikuste onetatik al dedana atera, a, b,. Amagandik apaltasuna, Aingeruagandik «Aguí Maria», nola esan....

2'fen SAILA

Adi zagun luíean bizi diranak esaten ari dirana ta gezur, salaketa itz loi, birao, ta besterik eztezu entzungo. Oírela biziko giñan Jainkoak guzaz eruki izan ezpalu.

Entzun berebat Irutasun santuak diona; «gizadia gaitz oyetatik atera dezagun». Eta itz erukitsu oiek gure gaiztakeriakin batean begiratuta, ariturik, lotsaturik, ontasun ain aundi oíri erantzuteko gogoz eta naiez beterik geratuko gera.

Ondoren entzun ditzagun beí-on-emalearen itzak. «Aguí, Maria, graziaz—eskezez—edertasunez—betea, Jauna da zurekin. Be-deinkatua—onetsia—zu, andre guzien artean. Seme bat izango dezu; Jainkoaren Seme; ta izenez Jesus deituko dezu; bere eria, gizadi guzia, jaso, salbatuko du, bada.

Andra Maria, au entzunda, ikaratu zan:

baña Jainkoaren naia ezagutu orduko, belaxe erantzun zun: Ona emen Jaunaren mirabea: egin bedi nigan zuk diozunez».

Itz oek entzunda, nere bañura begiak biurtu eta itz auek daukaten mami goxua atera, jakitzat artu, ta erabili gogoan, ase arte.

5' ten SAILA

Lur-gañekuak egiten dutena begira: auda, zauritu, erail, gaiztokira erori, ta. Begira zenbat bidegabekeri, alpekeri ta loikeri. Begira negarez daudenak, eta oyetatik geyenak beren eruz, ta ezer irabazi gabe. Jaiotzen diranak on-bearean eta negaretan, bizi diranak era guztietako okeretan ta eriotzaldian daudenak estutasun lañi eta ilunetan. A ze zoritxar negargaña guretzat, Jasotzañe bat, Erosle bat, Salbatzañe bat izan ezipagendu!

Bitarte onetan Irutasunak zer egiten zuen? Gizonak luñean gaizto ageñtzen ziran garai bertan, zeruan Irutasun santuak Jainkoaren gizon egitea erabakitzen du; ¡Jainkoa-

ren jakintza eta al-izatea usturik bezela, ta luía ariturik daukan siniskaya edo misterioa.

Berabat, aingeruak eta Andra Mariak egiten dutena, ikusi, Aingeruak bere eginbeña pozik betetzen du, eta nik neri Jainkoak emandakoak nola bete oi ditut? Ama Birgiñak burua jaso ta goiko Jaunari eskerak dagizkio, Nik ere, Jainkoari eskerik beroenak egin ditzayodan, gu deabruaren mendetik ateratzearen gizon egin zalako, gure anai izateraño jatxi zalako. Esan dezaiogun; Zure ezurak, Jauna, gure ezurak dira; zure aragia, gure aragia; gure odola, zurea. Nor ezta poztuko, Jauna, zu bezelako anai naguzia eukita? nor ezta, ausartuko deabru guztiai arpegi ematen, zu gure alde ibilita? Eskerak, Ama Garbia, zuri ere, ni gaiztokira ez jute-aren ainbeste neke eraman zeñitulako. *Baietz* ura ematean, Jainko-Ama eginda geratu zihan, baita nere egizko ama ere. Nere amatzat atseginez artzen zaitut, zure antzera Jaunaren moñoi izan nadiñ; Nere naia gauzarik txi-

kienean ere bete dezadan, eta ola gero, zur-
rekin batera, moñoi zintzoen saria zeruan
loñtu dezadan.



JAINKO-SEMEAREN JAYOTZA

.....

Gertutzeko otoitza: betikoa.

1'go. Sañera. *Gertaera.* Ta emen izango da Nazaret'etik irten ziralara Andra Mari, bederatzi ilebetik aurdun, gogora litekenez asta-gañean eserita, ta Joxe ta neskame bat idi bat zeramatera Betelen'a juteko, ta ango alderdietan Cesar Augustok eskatutako zerga ordaintzeko.

2'ren. *Toki iruditzea.* Emen izango da Nazaret'etik Betelen'arteko bidea ikustea batzuetan zabala, besteetan estua, bein ordeka, bestetan latza, orain zelai zelai, aurki aldapetsu eta gero Belengo ar-zulo edo legorpea; aundia, txikia, medaña ala zabalala, goibe gutxi ala aundikoa, edo bakoitzari gogoak dion erakoa.

3'ren. *Eskaria.* Jayotzera dijoan Jauna ongi ikusteko argia beñero eskatzea, Bera

maiteago izateko, Berari jaraitzeko Beraren esanak egiteko.

1'go SAILA

An daudenak ikusi, au da: Ama Garbia ta Joxe ta neskamea ta Jesus ume jayoberia, neu mo'roetxo bat ayen ondoan; ayek begira, ta beren bea'egiñetan laguntzen nagola irudirik, bertan arkituko ba'nintz bezelaxe lotsa ta begirunerik audienaz. Ta gero nere ba'ura begiak biurtu, zerbait ateratzeko. ¿Ze aterako degu? Nai degun guzi guzia: ume batek eskatzen zayon dana ematen du; gañera Jaungoikoa da, ta guzia dezake. Eskatu, bada, bildur gabe.

2'go SAILA

Esaten dutena entzun, eta gogoan artu, ta nere, ba'ura begiak biurturik onura zerbait atera.

Andra Maria ta Joxe Deuna ixilik daude geyenetan, Jainkoa berekin zeraman Ama Birgiñak, eta Jainkoa bere baitan daukena!

izketarako zein gogo gutxikoa dan, ta zein ixil-zalea! Baña gutxiago gizonakin itz egiten zutelako, oregatixe geyago Jainkoarekin egiten zuten; ortik zetoñen arpegian zitzaizen poza eta iri-paírea. Beste batzuetan itz egiten zuten. Zertzaz baño? Ez beste bidaztiak bezela gaizki-esaka edo beintzat txorakerizkoak esanaz. Nik beriz zertzaz eta nola itz egiten def? Nere itzak, garbiak izan al dira? Eztenez bezela nere mingain zoñoez al def nere lagunaren izena zulatu?

3'fen SAILA

Egiten dutena begira ta gogartu, au dabil, ta lan egin, ta nekeak artu, Jauna gabetasun goñian jayo dedin, eta ainbeste neke, gose, egañi, bero otz, irain eta isekaen ondoren gurutzan il dedin. Eta guzi au neregatik! Gero nere barura begiak biurturik, onura zerbait atera.

Ama Birgiña ta Joxe Deunak, bost eguneko bide ontan ainbeste neke ta ezeuki artean, Zesar agintariaren kontra itz erdirik

ere egin zutenik ez dakigu. Ondo zekiten Jainkoak Bere gorapen ta euren onerako guzia zuzenduko zula. Alaxe gertatu ere. Arokeriz ta diru-zalekeriz emandako agindua. Jainkoak Igarlarien aurreesanak egiztu ta MESIAS BETLEN'EN jayotzeko artu nai izan zun.

Beste gizon-piloak, beñiz, zer egiten dute? Agintarien aurka itz egin eta gaizki esan.

Ta gure Jesus nola jayotzen da? Buru ariñak eta gogo galduak nai dituzten gauzekin, au da, ondasundun eta aberats? Ez; beartsu baizik; ta gabe ta beste aurren neke guziekin, ondasun gabeko Ama baten umea bezela. Bai; aurr jaio zan gure Jesus; ta jayo orduko egiten zun Jesus'ek negar; ta negara bezela egiten zitun adiñ artako beste aurrak egin oi dituzten begiak idikitze, ezpañak erabiltze ta gañerakoak.

Ama Birgiñak bere seme Jesus oyaltxo garbietan biltzen du; baña oyalak berogañi txikiak ziran Jesus bezin otz-ikara zegoen aur bati bere ikareria kentzezo. Amak ore-

tarako etzekin zer egin. Su egiteko etzun egurik; etzun oe biguna egiteko lumarik, etzun seaskarik, an estaliz, estutuzta erabiliz, bere seme Jesus'i otza kentzeko. Nai zioken egin, bere Jaunari bezela, al zuen agurik, begitarterik ta begiratzerik samurerna, baña Jesus'i ikusten zion otzak eta negararak, biotza erdibitzen zion. Ikusi onek ama maitariari bere bi begiak urtzen ziozkan; ta zer ari dan ez dakienaren eran, bere bular gañean estutuko zun; bere arpegia Jesus'enarekin josiko zun, ta erukiz ta maitasunez Amari zeriozkan negar-malkoak Jesus'en begietako negar malkoakin nastuko ziran; ta bien nagararak utziko zuten Jesus bi aldiz ur egiña.

Jesus'ek, jayo orduko, zugatik egiten duena ikusirik, egiozu, ordeztu, alegiña; ta, zure gogo gaiztoa ta aragiaren naikunde txararak garaitzen dituzula, sar zaitez, Jesus'ek aldi onetan erakusten dizun zeruko bide garbian, ta zabilta ortik atera gabe. Bera ikustera ta zor diozkatzun eskerak ematera zeruan sartu arte.

JESUS JERUSALENEN GALDU TA ARKITUA

.....

Gertutzeko otoitza: Oi dana.

1'go. Sañera. *Edestia*. Jesus amabi urtekoa zala juan zan bere gurasoakin Nazaretik Jerusalengo Elizara. Pazkoa-jaietara. Egin zituzten ango otoitz eta eskeintzak, eta biurtu ziran Nazaret alderuntz Maria ta Joxe. Lenengo eguneko ibilaldia egindakoan, oartu ziran Jesus galdu egin zitzayela. Jo zuten batera ta bestera aide ta ezagunetara, arkitzen ote zuten; baña etzuten arkitu. Jerusalem'era biurtu ta, galdu zitzayenetik irugañen egunean Irakasleen artean exerita zegola arkitu zuten. Ikustean, amak esan zion: Seme, zergatik egin diguzu egin dezun au? Zure Aita ta ni atsekabez betetik zure bila ibili gera. Ta Jesus'ek esaten

dio. Zertan ibili nere bila? Etzenekiten bada, neri nere Aitarenetan aritzea dagokidala? Amak, zertara zetoñen aditu gabe, artu zuan bere barñenean erabiltzeko, Jesus'en esan au. Eta biurtu zan Jesus bere gurasoakin Nazaretera, ta ayen mendean egon zan.

2'ren. Sañera. *Toki iruditzea.* Jerusalengo Elizan Jesus amabi urtekoa Irakasleen artean Amarekin itz egiten ikusi.

3'ren. *Eskaria.* Jesus'en ezaguera aundi ta sakona gero ta geyago maite izan dezadan. Batez ere, aldi onetako erakutsia nere gogo barñuan artu.

1'go SAILA

Jerusalem bidean ta Elizan, persoñak edo *lagunak ikusi.* Batez ere Jesus, Maria ta Joxe. Beti bezela, arpegi argi alaiakin dabiliz alkarëkin dijoazenean. Iluntzen zaie arpegia, eta ia ia negarã dator beren begietara Jesus galdu dala oartu diranean. Ze ederki agiri dan, zenbait maite

zuten! Lorik ere eziñ egin dute Jesus gabe igarotzen dituzten bi gauetan.

Baña arpegian agiri da poza, Jesus arkitzean.

Jesus ere ikusi, Elizan bear bezela egoten ikasi dezagun. Ilundu zitzayon Berari ere arpegi alaia, bere Ama ta Aitordeko gabe bere burua ikusi zuanean. Baña Aita Jaungoikoagatik utzi ditu gurasoak eta, ez da geiegi atsekabetzen. Agiri da, nekeak nola eraman badakiela. ¡Ze poza Amaren eta Aitaordekoaren poza ikustean! Ikasi guk ere Jesus galtzen badegu, atsekabetzen; eta lenbailen, Bera arkituaz, atseka-bea atsegin biurtzen ere bai.

2'ren SAILA

ENTZUN ZER DIOTEN

«Zergatik egiñ ete digu Jesus'ek ori?» esango zion Mariak Joxeri. «Ez genion, bada ezertan utsik egingo», erantzungo zun Joxe Deunak. Berekin geundenean lanbiderik gogoñenak ere atsegin zitzaizkigun;

ta oraiñ... atsekabez beterik gaude Bera gabe.

Arkitzen dute Jesus, eta ikasi dezagun gure Amagandik, Jesus'i geren estutasunak agertzen. ¡Jesus, zer egin didazu? Nun zeunden? Naigabez beterik nenbilen ni zu gabe.... Itz egin oréla ta entzun Bera erantzuna. «Ni nere Aitarenetan nenbilen; zure onerako lanetan. Eta begira: Gurasoak asko maite bear ditugu. Nik nereak; iñork baño geiago maite ditut; baña Jaungoikoa gurasoa baño ere maitagaríagoa da; eta, Berak ala nai badu, geiago maite bear danagatik, maite diranak ere utzi egin bear dira. Entzuten dezu? Egin bada, aditu dezuna. Zure eta gurasoen zorionik aundiena, zuk ori egitea izango da ta.

Beste ikaskizun bat ere, itz oetatik bear da. Jesus galduko bagenu (zoritxañik aundiena izango litzake ori), nun arkitu? Entzun Berari. «Zertan ibili batetik bestera nere bila? Etzenekiten bada ni nere *Aitarenean* (Aitaren etxean egongo nitzala? Beraz ¿nun arkitu?) Elizan, aitorlekuan

(konpesonarioan), eta Aldarean. Etzaigu aztuko, Jauna, erakutsi eder, guztiz osasungarri au.

3'fen SAILA

BEGIRA ZER EGITEN ARI DIRAN

Nekutzen Elizara juateko. Bost eguneko bidea daukate; baña garaiz etxetik atera, ta geldialdi geyegirik egin gabe, Elizkizunak asi orduko Elizan daude. ¡Ikasi! Bali-teke norbaitek ikasi beara eukitzea ta, garaiz Elizara juateko.

Jesus'ek bere burua eskeintzen dio Aita Jaungoikoari. ¡Nigatik! ¡Ain ume txikia ta ain maitatzale aundia; ni beriz ain gaizkile, okergile, pekatari aundia ta ain maitatzale kaxkara!


Irakasleen artean dagonean Jesus'ek bear dana galdetu; ta galdetzen diotenari zintzo ta garbi erantzun, egiten du. Umeak ez ezik, aziak ere badaukate emen zer ikasi. Galdetu, bear dana, Jaunaren ordezkoi, Apaiz Jaunai; erantzun; bear bezela, batez

ere, zure utsegiñak, eta okeñegiñak peka-
tuak aitortzekoan.

Añiturik zeuden Jesus'en erantzunak eta
galdeerak entzuten zituzkenak. Gu ere,
Jauna, añiturik gaude zure erakutsi zora-
gañiakin, eta argitu gaitzatzu ta indartu,
ongi bete ditzagun.

ALKAR - IZKETAK

Jesus'ekin, Ama guztiz maitearekin, Joxe
Deun maitagañiarekin, bakoitzari biotzak
erakutsiko dizkionak esanaz, galdetuaz,
eskatuaz.



JESUKRISTO GURE JAUNAREN

ETXE BARUKO BIZITZA

.....

Gertutzeko otoitza: Beti bezela.

1'go. Sañera. *Gertaera.* Itz gutxitan azaltzen da. Amabi urtekoa zala Jerusalemgo Elizatik, galduta gero, Nazaretera biurtu zan, eta ogeita amar urteko izatera eldu arte Joxe ta Mariaren mendean egon zan eta azi zan umea urteetan, jakintzan eta gogo-edertasunean Jaungoikoaren eta gizonen aurrean, au da, ikusten zutenak igeritzen zioten, urteetan aurreratzen asi zan neuriz, ari zala geiago zekila adirazten, eta bere gogoan, animan, edertasun esker ge-yago agertzen.

2'ren. *Toki iruditzea.* Arotz-lantegia, eta Joxe Deunarekin arotz-lanetan gure Jesus mutil gaztea ta gizon egiña.

3'ren. *Eskaria*. Etxe bañuan erakusten didana ikasi, ta egin-erazitzeko Jesus'en ezaguera oso argia, eta emendik etorriko dan maitasun bizia.

1'go SAILA

Nazareten gure etxeko biziagunak ikusi: Joxe, Maria ta Jesus; langileak bezela jantzita; soñekoak garbiak eta txukunak. Jakiña! Etxekoandre garbizaleagorik ez da inun arkitu ta! Ikusi arotz-lanetan: zura ebakitzen, lantzen, josten... lanean alkañi laguntzen. Ikusi irurak daukaten arpegi alaia. Ez da an aseñerik, ez da an bekozko ilunik agiri. Otoitz egitekoan, Jaunarekiñ itz egitekoan; atsedeteko garaian, otorduan ikusi. Jan-aufeko ta ondorengo otoitzak egiten ikusi. Oeratu-aufetik egiten dituztenean, eta jeikitzeakoan ere bai. Ikusi ta ikasi.

2'fen SAILA

Esaten dutena entzun, gogoan artu erabili gora bera zer esan nai duten ondo

aditu arte. Ez da an erietta-itzik aditzen; lanerako bear diranak; aihar alaitzeko egoki diranak, aulki au ongi atera da; atxur ori kirtena leundu; gurtardatza egiñ al dezu? ¿Ta onelako lanetan ta onela itz egiten Jaungoikoa ta Joxe Santua Jaungoikoari? Bai, orrela itz egiten; eta ez inoiz ere oraingo lantoki askotan gazte ta zar azkok egiten duten bezela. Entzun eta ikasi, bear bezela laneko garayan itz egiten. Eta loikerizko izketak ez erabili aren, ez zitzayen lan ordua luze egiten. Inungo lantegian izan dan alaitasunik aundiena zeukaten lantoki artako bizi lagunak.

3'fen SAILA

Begira zer egiten duten. Langile ta nekazarien etxe ta lanetarako bear diran tresnak. Jesus'ek Joxe Deunak agintzen diona; eta onek jateko ta jantzitzeko irabazia emango duana. Ama guztiz garbiak, sukaldeko lanak: al zitun gozogañirik onenakin eta gogo ezin obearekiñ; salda egiñ, baba-

runak egosi; oiak astindu, etzuten bigun-
garri aundirik izango); eta etxeko garbike-
tak egiñ.

Zer egiten zuten, bada, irurak? Nai zute-
na, edo eskura zetorkiena, zana zala? Ez;
bakoitzak bere lana; egin bear zuana, agin-
tzen zitzayona.

Eta Jesus'ek ogeta bost, eta ogeta zortzi
urte zauzkanean? Orduan ere etxeko Buru
zanak agintzen zuana.

Baña ez al zekien Berak etxeko buruak
baño geiago? Bai, ta bein baño geiagotan
esango zion Aita deitzen zun Joxe, etxeko
Jaunari: «Aita nik uste det au onela edo ala
egin litekela; eta baliteke obeto ateratzea».
Itz egingo zion onela; baño gero Aitak
agintzen zuana egiten zan etxe artan. Eta
etzegon ezer gaizki egiñik.

Ikasi, bada, guziok; buru ta mendekoak,
guraso ta umeak; aitak eta amak eta seme-
alabak.

ALKAR - IZKETA

Itzegin gure atsekabeak agertuaz, etxe-

ko lanetan zuzenbidea eskatuaz, guraso edo seme alabaentzat eskariak egiñaz, Nazaretako etxean ikasten deguna egingo degula esanaz.

O A R T U

Nai izan ezkerro. esandako danak gogoratu ta gogoan erabili litezke onela: Ogeitamar urte arteko Jesus'en bizitza da:

a) *Izkutuko bizitza.* Ez dago agirian lan aundirik egin bearik, Jesus bezela izateko, au da, santutasunean, on izaten, goyen goyenerako mañara igotzeko.

b) *Besteen mendean dabilenaren bizitza.* Iru lagun ayen artean geyen geyen zana, Bera zan. Eta Bera beti besteen mendean!

c) *Lagile baten bizitza.* Etzeukan lan egin bearik; nai izatea asko zuan edozer gauza egiteko. Baña goizetik gaberaño lan egiten erakutsi nai. Eta ez edozer lan, baik agintzen zitzaiona.

¡Etxe guzietan au egingo balitz! Ikasi
bada, ta egin.



BANDERA BI

.....

1'go. ZATIA

Gertutzeko otoitza; lengoxea.

1'go. Sañera. *Gertakara.* Emen izango da, Kristok guztioi dei egin ta guztiok bere ikuñin edo banderapean nai gaituala; ta, ostera, Lucifer'ek berearen azpian.

2'ren. *Toki iruditzea.* Emen izango da Jerusalem aldeko landa zabala ikustea, ta bertan Kristo gure Jauna zindo guztien Buru dalarik. Beste landa bat Babilon aldean, ta bertan Lucifer, etsaien agintari ta nagusizat.

3'ren. *Eskaria.* Nai dedana eskatu. Ta emen izango da, nagusi gaiztoaren bide okeñak ezagutzeko, ta aietatik nere burua zaitzeko, eskeña eskatu: baita ere gure Buru nagusiak bere esan-egiñaz

erakusten digun bizitzaren ezaguera ta bere antza artzeko, eskeña.

1'go SAIĻA

Arako Babilon-landa zabalean etsai guztien nagusia, su eta ke beltzezko jañlekuan eserita edo, gogora ekañi, arpegi izu eta ikarakoñaz ikusi.

Itz auetan argi ta garbi erakusten digu, gure etsaiak gaitz egiteko darabiltzan bideak. *Babilona, su ta ke beltzezko jañlekua, itxura izugañi, bilduñgañia*: Itz auek, deabruak, Jainkoaganako edo Bere irudi dan gizonaganako daukan amoñua, ez dute azaltzen, gizasemeak galtzeko jañaitzen ditun bideak bezin ondo? Bañuko naspila, ezin-egon, ilunpe beltza, goilbeltasuna ona emen deabruak lan oker ori egiteko artzen ditun laguntzañeak.

Ez gero onelako naste-aldian asmo beñirik artu, ezta len ondo artutakorik utzi ere.

2'fen SAILA

Begira zenbatu ezin-ala deabru beragana deitu, eta zabaltzen ditula. Batzuek arako erian, beste batzuek bestean, ta luralde guztietan, tokirik, bizi-lekurik, eta inoren bururik ere ez du deabru gabe utzi. Onetarako bere agindupekoak zabaltzen ditu, ta oiekin batera lur-gañera diran gizon okeñ eta emakume lotsagabeak.

Etsai ain gaizto eta biurria nork ez goñoto izan? Bera ain erne, ta lotan gu? Baña bera asare gure ondoan ibili areñ, bildur ez izan; gure buruetan sartu nai ditun gogapenai jaramonik ez egin. Done edo santuak ere deabruaren ekaitz-aldiak izan zituten. Jesukristok ere bai. Onela, guk ere, Jainkoaren laguntzaz gogor eginda, etsai okeñ ori azpiratuko degu, zor zaion aintza edo gloria Jaunari emango diogu, eta inoiz igartuko eztan koroia irabaziko degu.

3'fen SAILA

Luzipeñek bereai egiten dien itzaldia go-

goratu, ta sare, estuntz edo kateak jartzeko agintzen diela. Lenengo, aberastasunen naikeriz zirikatu bear ditutela, érezago gizarteko izen aundi edo aizezko entzutera etoñi ditetzen, eta emendik antuste edo arokeria eraman ditzaten. Beraz iru maña jartzzen ditu:

1.^a Aberastasunen naikeria. 2.^a Izen aundiarena. 3.^a Arokeriarena. Ta iru maña auetatik beste oker guzietara aisa eraman litzake. Jakiña: Arokeria, gaiztakeririk itxusienetarako biderik egokiena da. Ausiko dio, bai, burua deabruak aroari edozein zitalkeri ta txarkeñietara erori-eraziaz. Ederki daki Luzipeñek bide ori.

Begiratu ondo, sare ta amu ta kate oietara. Ez dira ageri; baña botata daude zuk ibili bear dezun tokietan.

.....

2'ren. ZATIA

Orain gure benetako Buru dan Kristogana biurtu gaitean.

1'ren SAILA

Arako Jerusalem aldeko landa zabalean toki apal batean Kristo gure Jauna eder eta maitagarri ikusi. Beragan dakusgun guziaz gure Buru nagusi onen Jainkotasuna adirazten ari zaigu. Naiz bere arpegi maitagarria begira, naiz bere apaltasun goxoa, naiz jarlekutzat artu dun tokia. Beragan onginaia, maitasuna, biguntasuna, ezta baizik ez degu arkitzen. Bera ikuste bakar onek gogoa indartu, bizkortu egiten du, eta Bere ikuñiñ edo banderapean gudari zintzo izateko, edozeiñ, biotzik badu beñipeiñ, berotzen du.

Emen bakoitzak, biotzak eskatzen diona esan eta agindu bezaio gure Jaunari.

2'ren SAILA

Luñalde guztien Jabeak ainbeste lagun,

berri-eramale ta ikasle aukeratzen dituala, ta alde guzietara bialtzen dituala, gogora eka-ri. Zerutik ekañitako erakutsi zorionzaleak, bizibide ta mueta guzietakoei ematea naidu; ta oñretarako bere ordezeko azi ereile ta berri-onaren zabaltzale zintzo asko arkitutzen ditu gizonezkoen eta emakumeen artean ere bai.

Eta neri, Jesus ona: ze lan ematen didazu? Nun dago neretzat gogoak zugana-
tzeko lantokia? Adirazi, Jesus ona! egiñak lak zure alde egiteko beroturik naukazu, bada.

3'ñen SAILA

Lan oietara bialtzen ditun bere mendeko ta adiskide guziei Jesus'ek egiten diezten itzak gogoratu: mueta guzietako gizonai lagundu bear dieztezute, esaten du: aurera itzatzute gogozko landertasun, gabetasun edo beartsu izatera; baita, Jaunaren gogoa balitz, eta Berak aukeratu nai izango bali-tu, egitezko gabetasunera ere. Bigañen, beren buruen ezespren ta iraiñ-zaletasunera;

bi bide oetatik apaltasunera etortzen da eta. Benetan apai danak, au da, bere ezereztasuna ikusi ta aitortzen duanak, bere gogoa apainduririk ederenakin aberastutzeko bidea zabal zabalik dauka. Iru mala, beraz izan bitez: 1.^a landertasuna (pobretasuna) aberats-zaletasuna aienatzeko; 2.^a iraiñ eta ezespren-zaletasuna izen aundi naikeria oinpetzeko; 3.^a apaltasuna arokeria garaitzeko, Eta iru mala autatik beste apaingaritaz zindotasun guziak etoriko dira. Egi egiz lan gogoña da, Jesus'ek eskatzen digun lana. Baina, nor ez da berotuko, nor ez dio lanari ekingo Jesus aurretik eta gurekin dijoala ikusita. Bai, Jesus ona, bai; zure banderapean, zu gurekin zerala ez daukagu iñoren eta ezeren bildurik. Betoz, bada, lanik eta eramankizunik gogorenak. Biok batera guzia dezagun.


ALKAÑ-IZKETA

1.^a Gure Ama Birgiñarekin izketa bat, bere seme ta Jaunagandik, Aren ikuñin-pe-

an, neu artua izateko, eskeña iritxi dizadan; eta lenbiziko, gogozko gabetasunik gogoñenean; baita, Goiko Jaunaren gogoa ba'litz, ta Berak aukeratu, ta artu naiko ba'niñu, egitezko gabetasunean ere; bigañenez, iraiñak eta isekak eramaten, onela Bere antza obeto artu dezadan, iñoren erurik gabe ta Jainkoak ala nai dun guztietan. Ta gero, AGUR MARIA.

2.^a Semeari ber-bera eskatu, Aitagandik ori iritxi degidan eta *Anima Christi*, esan.

3.^a Berbera Aitari eskatu, ori degidan. *Aita gurea*.



IRU BIKOENA

.....

Gertutzeko otoitza: oi dana.

Gertakera. Iru bikoena da. Iruetako bakoitzak amar mila dukat dauzka, lapur eta gabe irabaziak. Baña irabaztean, etzan oartu gure lanetan Jaungoikoaren naia bakarrik begira bear dala; eta bildur da, diru ayen naikeri ta astuntasunak Jaungoikoagandik alde eragin, eta etsaiagana eramango ote duan. Eta Jaungoikoagana eldu nai luke ta zerua irabazi, oretarako, amar mila dukat aien naikeria utxirik.

Toki iruditzea. Jainkoaren eta Bere Done guzien aurean zaudela gogoratu; Jainkoak geien nai izango duana zuk ere nai izan eta ezagutzeko.

Eskaria. Jaunaren aintzarik geienerako

eta nere onik onenerako izango dana aukeratzeko argia ta indaía eskatu.

Biko oen ipuia ondo ikusi, ta ikaskizunak ondo artzeko begira zertara datoñen.

Eskeintza guztiz bero ta gogotsuak egin dizkiogu Jaungoikoari. Baña eskeintza oyek ez al dira, lenagoko gure esan asko bezela, *itz utsak* izango? Mingañez Jaunari esan dioguna, biotzez eta benetan esan al diogu?

Au jakin-beaía dago, Jaungoikoarekin gezuñetan Ibili ez gaitezzen. Eta au jakiteko dakañ Aita Iñazio Deunak *Bikoen ipuia*. Biko oiek entzun dute etsaiak gu beregana eramateko diruzalekeria sartzen digula biotzean. Zalekeri au iduki ezkerro etsaiaren sareetan gaudela. Bikoak ez luteke orrelakorik nai, ta dukat aien naikeria kendu nai luteke.

Lenbiziko bikoak. Kendu naiko luke naikeria; baña orretarako bear danik ez du eriotzako ordua arte egin nai; ¡Jaungoikoa-gana joan nai duala esan; baña bideñik artu nai ez iltzeko ordua etoñi arte!. Gezuñ-

ezkoak dira oñen eskeintzak eta naikeria kendu nai duala esateak.

Bigarren bikoak. Amar mila dukaten naikeria kendu nai emen du, eta oñetarako amar mila dukat aiek sakelatik ateratzea ez beste danak agiteko gertu dago. Onek ez du Jainkoak nai duarena joan nai; baizik Jainkoa ekañi nai du berak nai duarena. Jaungoikoa pakean arkitzeko, naikeria kentzeko bide bat ez beste danak artuko ditu.

Baña bide onek bakarik eramán balezake Jaunagana?

Onen *nai det* esatea ere, ez da benetako nai izatea. Zure eskeintzak ere onen antzekoak badira, ez dira mingañezkoak besterik.

Irugarren bikoak. Dukatenganako naikeria kendu nai du bere biotzetik; eta diru eukitzea berdín zaio, Jaungoikoagana juteko, au da, Jaungoikoaren naia oso osoan egiteko, eukitzea obe izango zaion jakifí arte. Eta bitartean dukatak utzitakotzat darduzka, obeto ikusteko zer egin bear duan. Jaunaren aintzarik geyenerako eta bere o-

nik onenerako, Jaunaren mirabetzarako, obe izango dana bakañ bakañik egin nai. Jaunaren mirabe obeto izateak eskatzen badio diruak eukitzea, eukiko ditu; ez eukitzea eskatzen badio, utzi egingo ditu.

Onen antzekoak izan bitez zure naiak. Onek benetan nai du.

ALKAÑ - IZKETAK

Egin bitez lengo gogartekoak.
Eta naigo badezu.

AMA BIRGIÑARI

Seme Jainkozkoaren aberastasunak eskuetan dituzun Maria Birgiña, eta gure ona ain gogotik nai dezun Ama maitea jaskatu añen! lotuta naukaten lokañiak; nere adimena geyago argitu, nera naimena indartu, Jaunak nai duena beti dagidan.

JESUKRISTO GURE JAUNARI

Nere gogoaren Salbatzañe maitez betea!


Zure ontasunagatik eskatzen dizut, nere naikerien eskuetan ez nazazula utzi; bide okeñetan ibili ez nadin. Zure aginduai erakusteko, eskeña ugari emaidazu. Zuk guzia ikusten dezu eta ni zuzeneko bidean ipintzen zuk baño obeto eziñ iñork jakin; utsetik atera ninduzunean, neri elburu gozatsu bat ipiñi zenidan; zuzen itzatzu, ba, nere oinkadak bizitz onetan eta bestean zu lortu ta zu maita zaitzadan.

Esan: *Kristoren gogoa....*

AITA BETIKOÑARI

Aita erukitsu ta poz osoaren emalea. Zure seme bakaña ta bere Ama maitea bitarteko arturik ber-bera eskatzen dizut. Nere naimena bere nai guztiekin zure eskuetan jartzen det; aurreranizean, zuk nai dezuna bakañ bakañik nai izango det, zurea orain eta beti izateko.

Esan: *Aita gurea....*



IRU APALTASUN MAĪA

.....

Gertatzeko otoitza: oi dana.

Toki iruditzea. Nere burua Jaungoikoaren Ama Birgiñaren eta zerutar guzien aurrean ikusi.

Eskaria. MaĪarik onenera igotzeko asmo bizia.

MaĪa auek on izateko gora-bidean goien goieneraño garamazkiten maĪak dira. Bide onetan etsai txit kaltegarĪa degu aĪokeria. Ta aĪokeria apaltasunak garaitzen du. Begira nola:

Apaltasuua, berĪz, nor berak bere burua dagokion tokian, au da, Jaungoikoaren mendean jartzen dago. Ezagutzen du, bada, apalak edo umĪak, berez ezerez dala; ta ezer badauka, daukan ori Jaungoikoarena dala; beraz, Jaungoikoaren mirabe dala.

Ikusten du alde batetik Jaungoikoaren bikaintasuna, eta bestetik bere kaxkartasuna ta utskeria, ta oek ikustean, makurtzen du burua Jaunaren aginduetara.

Jaungoikoaren aurrean burua beeratze edo makurtze au, eta onela Bere aginduak betetzeko asmo erabakia da, emen aditzen dan apaltasuna; eta iru eratakoa izan ditekete.

Lendabiziko apaltasun mañan.

Zerua irabazi nai duten guziak egon bear dute. Beraz, guzientzak bear bearrekoa da. Alegia, guziok geren buruak Jaunaren agindupean beti jarduteko lañ jetxi ta beeratu edo makurtu bear ditugula. Eta oregatik aberastasun guzien jabe egingo baniñute ere, ez detala pekatu lañi bat egiteko artu bear, ez ta bizia galdu bear banuke ere.

Maña onetan dagona pekatu astun edo lañi bat egiñ baño lenago gauza guziak uzteko asmotan dago, alegia, aberastasun dana, osasuna, bizia.

Bigarren apaltasun malakoak.

Lenbizikoen asmoaz gañera, pekatu arinik ere ez egiteko asmotan daude, oretarako dan dana ta bizia bera galdu-bearean arkitzen badira ere. Jaunaren mirabe izatea bakar bakarik nai dute. Oretarako, landertasuna edo ezer ez eukitzea aberastasuna baño obe bazaye, naigo dute landertasuna, dirurik eza. Eta onela beste aukeragai guzietan.

Irugarren apaltasun mala.

Apaltasunik bikaiñena da; gorabidean arkitzen dan malarik goyen goyenekoa.

Emen daudenak, lenbizikoak eta bigarangoak dauzkatenak euki ta, ez dute Kristoren antz antzeko izatea besterik nai. Eta zerua irabazteko berdin balitz beartsu ala aberats izatea, nayago dute beartsu izan, Jesus beartsu izan zalako. Nayago dute isekaz eta lotsakizunez beterik ibili zalako. Jesus'ekin batera zoro agertu nayago dute jakintsu baño.

Biotzik badegu, apaltasun onen bila ibili bear degu beti. Artu al diteke, bada, Jaungoikoak berak aukeratutako bidea baño bide oberik? Eta ez al da ezerez geran erukariontzat aunditasunik garaiena Jaungoikoa bera ibili zan bideetan ibiltzea? Ez biotzik bakarrik, bururik ere badegu, ori nai izan bear degu.

ALKAR - IZKETAK

Biotzez biotz itzegiñ Amarekin, Jesus'ekin eta Aita Jaungoikoarekin, irugarren apaltasun malarako aukeratu gaitzatela eskatuaz. Au egitea nai du Aita Iñazio Deunak, alai alai Jesus'en antza artu dezagun.

¡Balekite zeñen atsegingarria dan Jesus'ekin bat egiñik ibiltzea, ez litzake inor galdituko eskari auek biotz biotzetikan egin gabe!

Egiten ditut nik, eta ez det Jesusena beste biderik nai!

JESUS'en NEKE OÑAZE

GOGOŔAK

.....

1'go. GORPUTZEAN

Gertutzeko otoitza: Oi dana.

1'go. Sañera. *Gertaera.* Baratzan otoitz egiten dagola lañitasunaren lañitasunez *odolezko izerdia* luñeraño dariola dago.

Eri guziaren aurrean soñekoak kenduta, ikaragañizko *zigorkadakin* bizkar-sorbaldak odoldu ta uraturik uzten dizkiote. Zauri lotsagañi bat egiñik dago.

Buru guzia *arantzaz* josia.

Esku-oñak iltzez zulaturik; iltzeetatik zinzilika; oñ-eskuetako iltze-zuloak gorputzaren astuntasunarekin geyago ta geyago zabaltzen ari zaizkiola. Ainbeste odol ixurtzek egari ikaragaña ematen dio. Baña

beazuna ta ozpiñaren gañaztasuna besterik ez diote ematen.

Iru ordu oñela egon eta iltzen da.

2'ren. *Toki iruditzea.* Tontor baten gainean Jesus gurutziltzatua odola dariola ikusi.

3'ren. *Eskaria.* Samintasuna, negara ta biotz-atsekabea Jesus'i bere samintasun, oñaze ta atsekabea lagun egiteko.

1'go SAILA

GORPUTZAREN NEKE-OÑAZEAK

Iru eratako oñaze gogor ikaragarriak eraman-erazi ziozkaten gure Jesus onari.

1) Zigorkadaz sorbaldak larutu zizkiotenean. Jesus gurutzari josita il-erazitzeke oñuz ziardutela judutañen agintariak ikusi zuanean, erabaki zun Pilatok eta esan zun: Zigortu erazute Jesus. Agindua entzun zutenean, kendu zizkioten soldadutzar ayek Jesus'i bere soñekoak, ta eñi guziak ikus-ten zuala zutañi bati lotuta gero, asi ziran

aren bizkaña zigorézko ta korapiloz egin-
dako astingaiakiñ urátzen.

Ikusi gure Jesus ona larú gorían, odolez
eta zauriz beterik, ikusi bere sorbalda larú-
tuak; ia ia ezurák ere agiri dira. Orek
aiña ez nau iñork maite izan. Eta nik?
Nik artu bear nitun zigorkadak artzen ari
da.

Entzun astingaiak Jesus'en bizkaña jo-
tzean egiten duten otsa. Bere etsaien orúak,
Baña biotzarekin ez al dit ezer esan nai?
«Eruki nizaz», esaten dit. «Loikerizko gaiz-
ki egiñak, pekatuak, ordaintzen ari naiz.»
¡Eruki nizaz!

Loikeri guziak zigorkadak artuaz ordain-
du beaña badauka; ¡ikaragañiak izan be-
arke dute zigorkada oyek! ¡Barkatu, Jauna,
barkatu! Ez, ez geiago loikeririk ¡nere Je-
sus laztana! *Begira, gogoan artu ta era-
bili zer egiten dun.* Lotsa ta ¡oñazerik ika-
ragañienak eramán ixil ixilik. Zigorkada
gogor gogoñak artu; odola ixuri.

Boñero ayek zer egiten ari dira. Nere

gaiztakerien indaíarekin Jesus jotzen, odol-
tzen, zeatzen...».

Nere maiterik maitagañiena oñela ikusi
ta, ez ete zait samintasunez lertuko biotza?
Artu nazazu laguntzat neke oyetan dane-
tan.

2) Judutañen eñege zala esaten zutela
ta, ura bezelako eñegeari zegokion koro
bat egin bear ziotela. Egiten dute arantzaz-
ko ustai bat eta jartzen diote buru-gañean,
arantzak buru-ezueñetaraño sartzen zaiz-
kola.

(Len bezela, *ikusi, entzun, gogartu ta
erabili egiten dutena*).

3) Iltzez gurutzari josi. Eskuak eta oñak
zulatzekoan oñaze ikaragañiak. Zutik jañi
zutenean oñ eta esku-zuloak aunditzen, za-
baltzen, uratzen ari zaizko. Buruarekin
gurutza ikutzen badu, arantzak miñ ematen
diote.... Odola dariola....

Len bezela, *ikusi, entzun, gogartu....*

.....

2' ten. SAÍĻA

«Oñazpian ler eragiten zayon ar zikiña baño nazkagañiagotzat iduki naute» esan zuen Isaias Igarleak Jesus'en izenez, Oni gertatuko zitzayona aurrez igari ta adiriaz.

Benetan ar nazkagari bat bezela darabilte Jesus.

1) Lapur bat balitz bezela eskuak lotu ta ateratzen dute baratzatik.

2) Ume koskor lotsagabe bati bezela belarondokoa ematen diote Anas'en aurrean. Eta ez du inork bere alde itzik esaten.

3) Bere ikasle ta lagunak kutunenak bakarrik uzten dute. Bere oñordekotzat aukeratuak, Jesus'en laguna ta ezaguna danik entzun ere ez du nai. Iru aldiz ukatzen du, ezagutu ere ez dula egiten esanaz.

4) Biraularitzat artzen dute; eta Jaungoikoaren izena lapuritarik itxusiena eginaz beretzat artzen duala ta, eriotzarik lotsagariena eman bear zayola.

5) Ero, zoro ta buru-gabe bat dala ta kalez kale ero-soñeko batekin erabiltzen dute.

6) Bere arpegia, lekurik zikiñena balitz bezela, txistuz betetzen diote arpegia.

7) Bañabas, kartzelan dagon gaizkilerik biuriena baño gaizkilegoa dala, oru egiñaz esaten du eñi guziak.

8) Bi lapuren erdian, lauru goñian, eñi guziak ikusi dezaken gurutzan josi bear dala, izan litekan lotsarik aundiena izan dediñ bere eriotza.

9) Gurutzan odola ixuriaz dagola ere, lotsagabekeririk aundienak eta burlarik itxusienak artu-beaña dauka.

Ikusi Jesus aldi oyetan danetan, ikusi bere arpegia txistuz eta odolez beterik... bere burua arantzaz zulaturik *ikusi*....

Entzun esaten duana. Jaungoikoa dala. Eñege dala. Ez dala bere eñegetza bestena bezelakoa. Baña eñege da. Etoñiko dala azken egunean artu-emanak garbitzea, onai ta gaiztoai, bakoitzari irabazi duanez,

ematera. Gaiztoai betiko sugařak; onai betiko atsegiņa. Entzun bere ixiltasunarekin esaten didana.

Gogoan artu ta erabili egiten duana. Lotsakizunik gogořenak eramán. Odoldu, txistu ta belařondokoak artu....

Biotzkadak. Berotu biotza, ainbesteraño maite izan zaitunaren maitetasunean; negar eragin zure begi-biotzai, zure maitea ořela ikusita....

Alkar-izketak. Jesus'ekin. Eskatuaz, eskaņiaz, biotzak aginduko dizuna. Barkatze-ko esanaz; bere odolarekin busti nai dezula zure biotza...; Beraganako maitetasuna zabaldu nai dezula.



JESUS'en BER-PIZTUERA

.....

Gertutzeko otoitza: oi dana.

Gertaera. Jesus'en gorputz ila ostiral aratsaldean gurutzetik jetxi, eta inor obiratu gabeko il-obi berri batean obiratu zuten. Jo zuten bere etsayak siluz il-obi-atea, ta gudamutilak il-obi-zai jarri zituten. Igande goizean goiz batu zan Jesus'en (anima) gogoa, berriro bere gorputzarekin, piztu zan eta joan zan bere Amagana. Gero agertu zitzaien il-obira jun ziran emakume on ayei, Madaleni, Pedrori, Emaus'a zijoazen bi ikasleei, eta apaltokian baturik zeuden amar Bidaliei (Apostoluei).

Toki iruditzea. Ikusi il-obi deunaren goi-be ta baztañak; baita gure Ama txit garbiaren gela edo egon-tokia; eta begira Ama-Semeak alkarri zorion alai alaiak ema-

ten. Berebat, Jesus bere maiteak pozez betetzen ikusi.

Eskaria. Kristo gure Jaunaren ainbeste-ko zorion eta pozagatik, atsegiñez eta pozez bete ditezela gure biotzak, eskatu.

Kristo gure Jaunak berpiztu ondorengo agertaldietan, bereak, au da, bere Ama ta lagunak eta adiskideak pozez betetzeko egikizuna artu du; eta on aundi au egiten edozein^o agertalditan ikusi genezake. Baña danak azaltzerik ez daukagun ezkerro, oretarako oso egoki¹ dan agertaldi bat azalduko² degu: alegia, Emaus'a zijoazenai egin zien agertaldia.

1^ogo. SAILA

Ikusi Jesus bidez³ bat egiñik bere bi ikaslekiñ. Biotz eta arpegi ilunak daramazkite oek; eta alaitasun-bila dijoaz Emaus' aldera; baña ez daki inork Jesus'ek bezela biotzak alaitzen. Jesus'ekin dijoaz; baña Jesus ezagutu gabe. Ezagutzen ez dutelarik maitagar⁴ egiten zaye. ¡Badauka Jesus'ek

bere arpegian, bere begietan, bere ezpañetan, bere biotzean berekin dabiltzanak maitasunez betetzeko berogariren bat. Ikusi Jesus eta bi lagunak. Oen iluntasuna argi biurtzen ari da. Oztuta zeuden biotzak berotzen ari dira; eta, oartu ere gabe, pozez beterik daude.

¡Atoz, Jauna, gugana, atoz nigana! ¡Ibili nadila beti zurekin! ¡Ez inoiz ere alde egin gugandik! Guk ere izaten ditugu ilunaldiak, eta ez degu nai zugandik ez datorkigun argirik. Egon, Jauna, gurekin! Gelditu zaitez, Jauna, gurekin! «Mane nobiscum, Domine, quoniam advesperascit (Luc. 24, 29). Gau iluna datorkigu ta, gelditu, Jauna, gurekin! Ez gaitzatzu zu gabe laga. Ez, aŕen, ez!

2'ŕen. SAILA

Entzun Jesus'i, esaten ari dana. Biotzetako atsekabea ezin estali ta, oso goibel daude ikasleen arpegiak. Zer ari zerate esaten, eta nundik dator zuen goibeltasun

ori? Zer gertatzen zai zute?, galdetzen die Jesus'ek. Zer gertatzen zaigun? Añ ez-jakiñ eta ain arótz zaitugu zu, egun auetan Jerosolyman zer gertatu dan ez jakiteko? Zertan jardungo genun, bada, Nazareteko Jesus'i zer egin dioten gogoratzen baizik? Uriko agintariak Pilatorenzana eramán zutela, onek gurutzan josierazi ta il zezan, eta, gurutzaturik il zala ta... Guk uste genun, berak jasoko zula Isráel'go ería; baña iru egun badira oek guziak geratu zirala.... Egia da, gaur goizean emakume batzuk izutu gaitutela, piztu dala ta bizirik arkitzen dala ta esanaz. Au entzutean il-obira joan gutako bi, ta ez dutela gorputzik arkitu ta jardunaz etori dira.... ¡A burugabeak, eta Jaungoikoaren esanak sinisteko biotz-gogorak! Mesias bazan, ez al zitzayon bada gertatu zayona ber-bera gertatu bear? Ez al zun bada bide oyetxetan beretan ibili bear? Eta Moisegandik asi ta, Igarle guziek Mesia'tzaz auéz esanik zeuzkatenak azaldu zizkien.

Auek dira Jesus'en itzak. Eta zer egiten

dute, ta zertara datoz? Begira zer dioten ikasleak alkañi: Ez al zenun zuk nabaitzen Jesus itzegiten ari zitzaigun bitartean, biotzak bero berotzen ari zitzaizkigula? Au da Jesus'en itzak egiten duten lana: biotzak alaitu, bizkortu, berotu; buruak, beriz, argi eder pozgilez bete.

Itz egin, Jauna, guri ere! Azaldu guri ere, zure berri emango dizkiguten guziak; gure biotzak ere zure maitasunean berotu ditezen.

Begira zagun ongi Jesus ber-piztuak egiten duana: poliki poliki bere ikasleen gogoetan iluntasuna argi biurtu, eta biotzeta-ko otza su beroz kendu. ¡Argitu gaitzatzu, Jauna, ta berotu!

3'fen SAILA

Begira zer egiten duan Jesus'ek.

Ikasle ayek sinisgogor zeuden; itxaropena, au da, Jesus'gan zeukaten uste ona ia galdurik zeukaten; maitetasuna, beriz, epel-

tzen ari zitzayen. Baña etziran biotz gogordunak; eta Jesus'ek sendatu egin nai ditu. Oretarako ayen bidea artzen du, berekin itz egiten asten da. Eta ikasleak, laguntzat artu, ta bere esanak ixil ixilik entzun eta biotzera eramaten ditute. Sendagi-leari, egin nai duana egiten uzten diote gaixoak.

Egin zuk ere ori bera; Jesus'ek, bada, egin dezake zugan, eta egingo du, ayen biotzetan egin zuana.

Ikasleak bere gaitzak eta miñ eta kezak garbi garbi azaltzen dizkiote Jesus'i. Eta Jesus'ek pozik, sendoturik, indarberiturik uzten ditu.

Ikusten det, nere Jesus, zure biotz erukitsu ori! Ikusten, ilunpean eta atsekabeetan daudenak, biotz oretara eramán nai dituzula, argiz eta pozez bete ditezen.

Ni ere gaixo nago. Ez beintzat zure alde lan egiteko nai bezin argi ta bero. Argitu nazazu, bada, ta berotu, Zurekin lanean lagun eta zorionean ere lagun izan nadiñ. ¡Bai, arien, bai!

MAITASUNA IRIXTEKO

BEGIRALDIA

.....

Lenbizi bi gauz auek oartu bear dira:

1.^a Maitasuna, itzetan baño egiteetan areago ipiñi bear dala.

2.^a Batak besteari *ematean* maitasuna agertzen da; au da, maitatzaleak maiteari ta beriz maiteak maitatzaleari daukana, ala daukanaren eta al dezaken zerbait emanaz; esaterako, jakiterik ba dauka, eman ez daukanari, ta izen ona eta ogasunak ba'litu, eman ez dauzkanari, ta bere bat besteak besteari.

Gertutzeko otoitza: oi dana.

1'go. Sañera: *Toki iruditzea*. Emen, Jainko gure Jaunaren eta nere aldez otoika

dauden aingeru eta santuen aurrean neu ikustea izango da.

2'ren. Sañera. Nai dedana eskatu. Artu ditudan ainbeste ondasunen ezaguera oso argia eskatuko det emen; neronek ere, esker-ordañez, Jangoikua edozertan maite dezadan eta guztietan Bere mendeko zintzoa izan nadin.

1'go. SAILA

Artu ditudan onak oroitu: Izatea ta izatearekin dauzkadanak; bererospena, zerubideratzea ta berariz neri Jaunak emandako beste ondasunak; goiko Jaunak nere alde zenbat egin duan eta daukanetik zenbat eman didan, gogo biziz oroitu ta auznartu; baita ere Bera dan dana Jaunak eman nai didala, erabakita daukan neurian. Au eginda, nere barura begiak biurtu; neuk, egoki eta bidezkoa dala ta, goiko Jaunari nere aldetik zer eskeñi eta eman bear nioken gogora ekañirik; au da, nere gauz guztiak, ta aiekin naizen neroni, eskeintza biotzez eta gogotik onela egiñik.

«Tori, Jauna, ta artu nere aukeramen osoa, nere, oroimen, adimen ta naimen osoa; dedan eta daukadan guzia. Zeorék eman zenidan; zeorí, Jauna, itzultzen dizut; Guzi au zurea da. Nai dezun bezela erabilzu: zure maitasuna ta adiskidetasuna izkidazu, ez det beste ezer nai eta.

2'ren. SAILA

Jainkoa izakietan nola dagon begira: bizigabeetan izatea ematen, landareetan beren azitzea, abereetan zentzumena ematen eta gizonetan adimena ta ezaguera ematen, eta nigan onela dago, izatea, bizitza, zentzumena eta adimena ematen, Bere etxetzat artu nau eta Bere aunditasunaren antz eta irudira egiñik nauka.

Ematean, len esan degun bezela, maitasuna erakusten da. Maiteak, gañera, alkarékin egon-naia izaten dute eta onela dago gure Jainkoa nere baruan nerekin bat eginda, izatea, bizitza, zentzumena eta adimena ematen, ta nere egite guztietan laguntzen ta indartzen.

Nigan, beriz, oso berariz dago Jainkoa; irudian bezela, Bere antzera egiña naizelako. Baña, batez ere, berezizko egoera dauka Jainkoak bere adiskidetasunean dago-nagan. Jainko-maitasunean ba'nago, egiz ta bene-benetan Jainko Irubata nere baruan daukat; ta pozik dago neu maitatzen ta neu santu egiten.

3'fen. SAILA

Jainkoa lurgañeko izaki guztietan nere alde neretzat lan egiten nola ari dan ikusi, au da; bizi-gabekoetan, izañetan, aletan, abereetan ta beste gauzetan, izatea, irautea, bizitza, zentzumena ta abar, ematen.

Ez da Jainkoa, beste baten bitartez bere maiteari emaitzak bialtzen diozkana bezelakoa, ez; ber bera dator gure barura guri ondasun guziak ekartzera. Oñetzaz gañera, emaitz oyek Bere eskuz egiñak dira. Lore bat ikusten detanean, esan bear det: «Ementxe dago Jainkoa lore oni bere iza-

te, edertasun, usaia neretzat ematen. Ta, ola, naiz garia, naiz sagaña, naiz jan edo eran, eta jantzi bear ditudan guztietan. Au Jainkoagana biotza jaso, eskerak egin ta maite izateko danik egokiena ez alda? Ola ba'dabil ba, Jainkoa gauza bakoitzan nere maitasunez, nik ere beregatik eta bere maitasunez egin ditzadan nere lan eta egite guztiak. Ez iñoren ederagatik, ez luřeko beste gauzagatik.

4'fen. S A I Ľ A

On eta emaitz guztiak, goitik jeixten dirala begira; au da, nere al izate labur ta txikia, goiko al-izate aundi eta amaigabe-koagandik; ta onela erukia, ta abar; eguzkitik izpiak, eta ituritik urak etortzen diran bezelaxe.

Iñazio Doneak nai duna da:

1.º Gure naitasuna zaitu, luřeko gauzen maitetasun okeřaz loitu ez dediñ. Ta ederki dio, luřeko gauzak daukaten edertasun eta izate guztia, Jainkoagandik artu

dutela dionean, Jakitunak erakusten digutenez. Jainkoak bakarrik dauka, bere izatez, daukan guztia; ta beste izakiak Jainkoa' gandik, iturri ugaritsutik bezela, daukaten apurtxoa artu dute. Oregatik, Jainkoa da benetan *dana*, ta beste izakiak Aren ondoran, ezer ez badira bezela agertzen dira. Ura, iturria legortu ezkerro, zer izango litzake? Ba, Jainkoagatik ez balitz, luereko gauzarik eder eta gozuenaren ere, ez litzake ezer izango.

2.º Izaki guztietan Jainkoa ikusi ta maitte izan, eta eurengandik len esandako eskeintzarekin Jainkoagana gure adimen eta biyotza jasotzen gure Aita Iñazio Doneak erakusten digu.


Jakin nai al dezu zein aundia dan Jainkoa? Begira zeru eta itxasoetara; aizeak agertuko dizu bere indararen antza; argi, lora eta elurak bere edertasunaren izpitxo bat edo beste.

Gizon on edo jakintsuren bat ikusten dezunetan zein ohea eta jankintsuagoa dan guzion goiko Aita, gogoratu. Onela, gau-

za guztietan Jainkoa, eta gauza guztiak Jainkoagan ikusi bear ditutzu.

ALKAR-IZKETA

Gozo ta eztitsu eztitsuak iduki Jainkoarekin lore ta txori, izar ta eguzki, lur eta itxaso ta izatea daukaten guzien bitartez esaten dizkizunak adituaz, eta biotzak eta gogoak erakutsiko erantzunaz.



G O G A R T E A

.....

OTOITZ EGITEKO ERA BI

Kristau-ikasbidea irakurri dezuten guztiok ondo dakizute otoitz egitea Jaungoikoagana biotza jaso ta ondasunak eskatzea besterik ez dala; baita ere, era bitara otoitz egin ditekela: aoz eta gogoz. Aoz otoitz egiten degu «Aita gurea», Agur Maria» eta gure amaren magalean ikasitako beste otoitzak esaten ditugunean. Gogoz edo animaz otoitz egiten degu, aoz itzik egin gabe, gogoaren almenaz (potenziaz), adimenez (entendimentuz) eta biotzez Jaungoikoarekin itz egiten degunean; eta oregatik gogartea (meditazioa) esan oi da.

Azkeneko era au gutxi erabili oi da, ta oregatik Kristau askok ez dute ezagutzen. Baina zergatik izkutatu bear zaio Kristau-

ari era au, ainbeste on ba dakarzkio? ia ba! Kristau maitea, artu liburutxo au, irakurri bein eta bi aldiz, eta emen esaten dana egin ezazu; ainbeste Santu egin ditun otizkera au zuri ezagutu-erazitzeko al egiña egingo du ta.

GOGARTEA ZEIN ONA DAN

Loyolako Aitalñazio Doneak zion, berak iñori nai izan leioken onik aundiena gogojardunak (ejerzizioak) zirala. Gogojardunetan egiten dan jardunik onenetakoa, beriz, gogartea da.

Gogarte orek, zer ote du ba? Gogarte onek, batez ere egunero goizetik egiten bada, egun guztirako gure gogoa oso bero jartzen du: biotza zeruko intz goxoz bigundu, ta adimena Jaungoikoaren argiz argitu egiten du, egun artan, Jaungoikoaren semeari dagokion bezela, bere egin-bear guztiak egin ditzan; eta bere nai, itz eta lan guztiak Jaungoikoarengana zuzendu eta Jaunak nai ditun bezelakoak izan ditezen.

Gogarte onek, gure siñismenak erakusten diskigun egi aundiak gogoan arturik, eta egi mardul oiek erakusten diguten bi-dean ibiltzeko biotza indartu ta bultz egiten digu.

Erbestean gaudenik ez gera oroitzen askotan eta, gure betiko bizitokian bageunde bezela, bizi gera mundu onetan. Gogarte onek bada erakutsiko digu argi argiro diranak diran bezela begira ta maite izaten.

Gañera, noiz egiten zaio Jaungoikoari eskari beroagorik, betiko egi aundi oiek ondo ikusitakoan baño? Eta zer egin genezake zeruratzeko gauz obeagorik eta beařagorik, eskari gartsu oietako bat baño?

GOGARTEA ZAĀA ETE DA?

Batzuk ala diote; baña ez da zaĀa. Nola esan diteke bada zaĀa gogartea, «gogoz eta biotzez Jaungoikoa begiratzea» besteriz ez bada?

Era askotara begiratu dezakezu gogoz eta biotzez Jaungoikoa; zure Egilea

bezela; zugatik gizon egin eta gurutze batean il zana bezela; zure Emañe, Erakusle, Barkalari ta Jaun on, guztia altsu ta maitagarria bezela. Onela begiratzen, badiozu, zoñetan arkituko zera, maite-zoñetan, eta adituko dezu Jaungoikoak zor diozun maite-tasuna, biotza eskatzen dizula; ez ukatu; zor diozuna emateko asmoa biotzean artu zazu, ta oñetarako bear dezun laguntza berari eskatu, pozik emango dizu ta.

Au berez eñexa da; ala ere iñori zal egiten bazaio, iru auetako bategatik izango da:

- 1) Gogartean lanik egin nai ez dualako.
- 2) Bere buru ariña, txoria balitz bezela, alde guztietan dabilelako.
- 3) Gogarte ori nola egin ez jakin eta aspertu egiten dalako.

Baña lan pitin bat egin nai badu, bere oroimena egori bear dan gauzetan geldigeldi eukitzen badu; otoizkera au ikast-eñaxa egingo zaio, eta geroz eta xamuñagoa.

GOGARTEA ZER DAN

Amaika izututzen ditun gogarte ori, auxe besterik ez da: gure gogoko gauzak buruan erabiltzea, geroko bizitzarako erabaki sendoak ateratzea ta asmo abek betetzeko bear degun laguntza Jaungoikoari eskatzea. Beraz iru zati ditu gogarte onek. Lenengoa, gure gogoaren onerako dan egi edo egite bat bururatu, eta egi edo egite oñek esaten dizkigunak ondo biotzean jositzea. Bigarrena, lan onen bati ekiteko, edo egite txarren bat lagatzeko asmoa ateratzea. Irugarrena, asmo oiek zintzo betetzeko laguntza Jaungoikoari eskatzea.

Zenbat bider egiten degun beste arazotan gogarte au! Begira bestela baseñitar batek, berak jakin gabe, nola egiten ditun len esandako iru egite oiek.

Bat edo batek esaten dio bei bat salgai daukala onenbestean.

Begirutzen du bei arren bearrik ote daukan; bei ona ala txarra dan; merkea ala garestia; esnetsua ala esne-legoia edo antzua; itz

baten esateko, begiratzen du bei aŕen erosketan galdu ala irabaziko ote duan. Ona emen lenengo lana.

Irabazten badu eta ondo baderitzaio, erostea erabakitzen du; bestela beŕiz, ezetz esango du. Ona bigaŕena.

Erosteke gogoa aŕtu aŕen, ez du erosteko aña diru bear bada izango; eta onela bada, diru bila juango da bere senide edo lagunetara. Ara irugaŕena.

Auxe ber-bera egin bear degu ba gogolanetan.

NOIZ EGIÑ

Egunero, goizean al bada, Meza Santua entzuten dan bitartean, edo bakoitzak al duanean, oŕdu laurđentxo bat besterik ez bada ere gogartean erabiltzea, Kŕistauarentzat izan lanik osasun diteken gaŕienetakoa da. Gogo pixka bat daukanak aurki bilatuko du ordu laurđentxo ori!

Bat edo batek esango du; berak ez duala Meza entzuteko edo oŕdu laurđen bat

belaunikatuta egoteko betarik. Nik ere ez det esango danak aritu dezaketela ordu laurden ori Eleizan edo beren etxe-zuloan geldirik egoteko; baña bai aritu dezaketela, gogo pitin bat izan ezkerro, ordu laurden ori beren bařena, dabilzan tokian, geiago begiratzeko. Ordu laurden ori aritu diteke etxetik sorora edo lantegira juan bitarřean edo berak bakarrik egon bear duten edozein garaitan: basoan daudenean eta edozein tokitan. Zein toki obeagorik? Jesukristo ber-bera ere baso aldera sarřtu oi zan bere Aitari otoitz egiteko, eta Nazaretoko lantegi arřatik ere bein baño geiagotan bere zeruko Aitari otoitz egingo zion.

GOGARTEA EGITEKO ERA

EŘAX BAT

Gogarřtea era askotan egin ditekena da. Baña, nere ta beste askoren ustez, Loyola'ko Aita Iñazio Doneak bere Gogo-jarřdunetan erakusten diguna, eřaxa ta gizonarentzat egokienetako bat da.

Gogojardunetan erakusten dan bezela gogarteari gogoz ekin diotenak, ondo dakite, gogarterako gauz askotxo egin bear dirala; baña orenbeste egin ezin dutenentzat, Iñazio Doneak erakusten dizkigun berezienak ete bearrezkoenak emen jariko ditugu.

GOGORATZEKO GAIA.

Gure gogarterako gaia Jesukristoren itza izango da. Zoriona dakañen itz au bere ordezkoen aotik irrendako itzaldietan, edo beren eskuz idatzitako liburuetan arkituko degu.

Ez dira gutxi oretarako euskera eder, eñax garbi ta xamuñean idatzi diranak. Gipuz-napañentzat oso egokiak diran J. L. Mendiburu A'ren «Otoitz-gaiak» eta Kar-daberaz A'ren «Eskuliburua» ta «Kristauren bizitza» aspalditxotik egin ziranak. Azkeneko urte abetan Oyarzabal Apaiz J'ren «Zerurako bidea» gipuzkoeraz; eta J. L. Basabe A'ren «Gogartiak» bizkaieraz azaldu dira. Baita ere A. Baltzolak egi ta Argi-

ak argitaratutako «Argi-donea'n arkituko dituzute gai ederak. Azkenez, garai batzuetarako oso egokiak diran beste batzuk laga ta, euskaldun guztientzako oso egokia izango da Kempis'ek egin eta lau edo bost bider euskeratutako «Jesukristoren Antz-bidea'n» zerbait irakurri ta buruan erabiltzea.

GOGARTEA NOLA ASI BEAR DAN

1) Jaungoikoaren aurrean gaudela eta berarekin itzegin bear degula burura ekañiaz. Añaitxua itxasoan uretan dagon bezela, gu ere orrelaxe ta askoz areago Jaungoikoagan gaude. Zerbait egin nai badegu, bere laguntza gabe ezin genezake. Begira aldamenera ta Jaunaren maitetasuna besterik ez dezu ikusiko. Gogarterako tokira eldutakoan, siñistu dezagun ori; ta, bakarik egon ezkerro, zutik egon giñezke ori egin bitartean.

2) Jaungoikoaren aurrean gauden ezkerro, gurtu bear degu gure Jaun ta Nagusia. Eta, bakarik bagaude, belaunikatuaz burua

makurtu, luñari muñ egin edo onelako bat egitea ondo izango da.

3) Gurekin dagoan Jaunari, gogartea ondo ta gure gogoaren onerako egiteko laguntza eskatu bear diogu.

Iru abek, Jaungoikoak bakoitzaren biotzean ixuritzen ditun itz goxoen bidez, edo ondorean dagon otoitzaz, gutxi gora bera, egin litezke.

GOGARTE AURERAKO OTOITZA

Nere Jaun eta Jaungoikoa. Emen nerekin zaudela biotz biotzez siñisten det.

Nere biotzaren indar guztiaz maitatu eta gurtzen zaitut.

Oraindaño egin dizkidazun ondasun guztiakgatik, Jauna; eta nere eskergabeke-riak barka zaizkidazu. Gogarte au ondo egiteko bear dedan laguntza eman egidazu, nere buruak eta biotzak, egiten duten guztia zure aintzarik, gorapenik aundienerako eta nere gogoaren onerako izan dedin.

Eta zuk, Andra, nere zeruko Ama, auxe bera Jaungoikoagandik iritxi zaidazu.

Aita gurea, Agur Maria ta Gloria Patri.

GOGARTEA

Gogartea gogoko almenaz egiten da, eta oretako gure oroimen, adimen eta naimenaren (borondatearen) lanak edo jardunak onela zuzendu ditezke.

1.º – Oroimenaren jarduna

«Zer gogartu bear det?» Bakoitzak bere buruari au galdetu bezaio. Oretako, emen len esandako idaztietan gogarterako gaia artu bear da, idazti oietan zerbait irakuriaz. Eta irakurí ondoren bururatu bedi irakurí dana beste bati esan bear balitzaioke bezelaxe. Edo auréko egunean itzaldiren bat entzun edo zerbait irakurí bagendun, berdin berdin egin.

2.ª – Adimenaren jarduna

«Entzundako edo irakurítako itz abek

egizkoak badira, zer egin bear det?»—Au egia bada ta zentzungabekoa ez banaiz, au egin bear det edo utzi; onen laguna izan bear naiz, baña ez arena; nere gogoa okerkeri batean eroritzeko zorian jartzen duten jai, jolas, oitura, irakurgai ta onelakoetatik uruti iges egin bear det, eta oien ordezbeste oitura, jolas eta irakurgai on zalea izango naiz... Eta emen bakoitzak badauka agortu ezin diteken añako gaia.

1) Begira beza zintzo ote dabilen kristauaren eginbearretan; Jaungoikoaren eta Eleizaren Aginduak, eruki-egintzak eta benetako kristauari dagozkion oitura onak betetzen ditun ala ez.

2) Bere etxekoekin, senideekin eta lagun urkoekin ditun eginbearrak: bere semeai bear dan aziera ematen dien eta abar.

3) Bere erikoei itzez edo egitez gaitzerra edo obenera bultz eragiten ote dien; eta, erigizona bada, gauz txarrik agintzen dun edo. Eta onela buruan darabilkin eta biotzari dardar egin-erazitzen dion egi aundi

orék zer erakusten dion, bere bizitza guztirako ondo ikusi bear du.

Eta zer edo zer egiñ eragiten didan egi orék indar geigo izan dezan, orixe ber berra egitera bultz egingo didaten bost gauz abek eta bururatuko zaikidan gañerakoak, ondo begiratu bear ditut biotzean jaiotzen zaidan gura edo asmo ori betetzea gizonari eta kristauari dagokiona da, onuratsua, atsegingarria, eñaza, beañezkoa.

3.^a — *Biotzaren jarduna.*

«Egin bear nukela ikusi detan ori egiteko asmoa artzen det bada» — Eta emen aldetan indar aundienaz, bururik gabe ez dauden guztiak egin bear lutékela ikusi *detan* ori egiteko asmo sendoa artu bear det, biotzari *baietz* indartsu bai esan eraziaz. Eta emen gauz bi ikusi bear ditut: lenengoa, asmo ori betetzean atzera egin eraziko didan eragozpenik izango ote *detan*; bigarrena, eraki *detan* ori zintzo betetzeko zerk lagunduko didan.

4.^a — *Jaungoiko ta Santuekin alkarizketa.*

«Baña ni ain makal ta ergela naiz; eta orain asmo au artu aŕen, gero ezetz esango det eta aspertu egingo naiz; oŕegatik ba Jaungoikoari laguntza eskatzera noa».

Eta emen Jaungoikoak biotzean jaŕiko dion itz goxoa edo, besterik ez badu, buruz dakizkian aozko otoitzez, al dan biotzik bera ta apalenarekiñ, egindako asmoak betetzeko laguntza, ume baten eran, eskatuko dio, bere zeruko Aita maiteari.

Eta itzegin beza, bere aŕean ikusiko balu bezelaxe, Jesukristo gure Jaunarekin, azkenean «Anima Christi» esanaz (1); gero

(1) Ona emen gure Aita Iñazio Deunak esan oizuan otoitz goxoa.

«Kristoren gogua, donetsi (santutu) nazazu. Kristoren gorputza, zerura nazazu. Kristoren odola, ase nazazu. Kristoren saietseko ura, garbi nazazu. Kristoren nekaldia, indartu nazazu O Jesus ona, entzun zaidazu, zure zaurien baŕuan, sartu nazazu. Zugandik alde egiten, ez neri utzi. Ètsai gaiztoengandik, zaindu nazu. Eriotz aldian, deitu nazazu. Eta zugana joateko, agindu zaidazu. Zure Santuekin batean, betikotasun osoan zu gozatzeko. Alaxe.

gure Ama Garbiarekin, «Agur Maria» edo «Salve» aren bidez eta onela geien maite ditun Santu Doneekin. Azkenean, aurrean, benetan dagon Jaungoikoarekin, itzegingo du eta «Aita gurea» esanaz amaituko du otoitza.

Jaungoikoarekin eta Santuekin egiten dan alkarizketa au bein ere ez da utzi bear; bada gogartea otoitza izan dedin, Jaungoikoarekin itzezin bear da eta lenago egiten diran iru gauz aiek laugarrena obetoago eta beroago egiteko malak bezelaxe dira.

Abek egin da, beta geiago badu, oraindaño egindako guztia beste gai bategaz egiñez jaraitu bear da.

Oar bat edo beste

Adimenarekin jarduten ari zerala-edo, Jaungoikoarekin izketan egiteko gogoa etortzen bazaizu, bildurik gabe egin.

Baliteke, gogartea egiteko oitura on au iñork artzen badu, emen esan dana ia buruz jakin aren, ezer egin ezirik arkitzea,

asieran batezere. Onetarako, baita ere gogartean egingo ditun akatsak kentzeko, oso ona izango da, aitortzera dijoanean, zer gertatzen zaion esatea Apaiz Jaunari.

Gogartea ez da utzi bear, pozik eta atsegiñik izaten ez degunean. Inpernu edo suleizeko gure etsaiari ikaragarizko miña ematen diogu Jaungoiko gure Jaunarekin itzegiten degun bakoitzean, bere atzamaretatik iges egiten degulako. Gogartean egin dezakegun egitekorik aundiena, gure eginbeñak ondo ikusi ta betetzeko asmo ta indañak ateratzea da; ta au, Jaungoikoa lagun degula, beti egin genezake, poz eta atsegiñik izan ez añen.

GOGARTERAKO BESTE ERA EÑAX

BATZUEK

Lenengo era.

Asieran, beti bezela, gogarte auñerako otoitza egin bear da. Eta au egin ondoren, goizetik begira beza egun artan egin bear-

ko duana, batez ere lan zañen bat egin bear badu, edo oben batean erortzeko zorian arkituko bada, edo egite onen bat egin al balezake. Ikusiko du onelako bat gertatzen bazaio, zer eta nola egin bear duan: oker guztietatik nola iges egin dezaken eta egite onen bategaz zerurik irabazi dezaken. Eta Jaungoikoaren aurrean ona iruditzen zaiona egiteko asmoa artuko du eta erabakitakoa zintzo-zintzo betetzeko laguntza Jesukristo ta Ama Garbienaren bitartez Jaungoikoari eskatuko dio.

Bigarren era.

Gogarte aurrerako otoitza egin ondorean, «Aita gurea», «Agur Maria» eta beste otoitzak esaten asiko da, otoitz abetako itz bakoitzean geldituaz baru-atsedena duan edo itz orek Jaungoikoaren aurrean zer-edozer bururatzen dion bitartean.

Irugarren era.

Lenguaren antzekua da, baña berdiña ez da.

Gogarte aurreko otoitza egin ondoren, bakoitzak dakian otoitzen bat esaten asiko da, pixkanaka-pixkanaka ta poliki-poliki, itz goxo bakoitza jaten balebil bezelaxe, goxoenak edo bearezkoenak zaizkion itzetan geiago luzatuaz.

Laugarren era.

Gogarte aurreko otoitza egin ondoren, bururatu bear dira banaka-banaka Jaungoikoaren amar Aginduak eta bakoitzean, iru «Aita gure» esateko bear dan garaian edo, ikusi bear ditu egin dituan utsegiteak. Utsegin badu, biotz-biotzez eskatuko dio Jaunari barkamena eta andik aurrera zintzoagoa izateko laguntza ere bai.

Auxe bera egin bear da Eleiz Ama Donearen bost Agindu ezaz amalau eruki-egintzetaz, zazpi griña txar nagusietaz eta abar; baita ere gogoaren almenaz eta soñaren edo gorputzaren zentzumenez. Jaungoikoak zertarako eman zizkigun eta zertan erabili ditugun ikusiaz, eta len bezela Jaunari otoitz egiñaz bukatuko du.

Era au ez da zaia, mendiz-mendi dabile-
nean edo lanera juatean ere ederki egin dite-
kena; gañera egokia ta onuragaia, egoki-
rik eta onuragaririk bat edo bat bada. Jaun-
goikoa maite duala ez, au da kristauren-
tzat kezkarik aundiena; au gabe bade, uts-
utsa da euki lezaken gañerako guztia. Eta
Jaungoikoa maite degun ala ez nola ezagu-
tu? Jesukristok onela digu: Jaungoikoa
maite du bere Aginduak betetzen dituanak.
Saritan orduan ikusi bear degu zintzuak
geran ala ez Jaungoikoaren Aginduak be-
tetzen; oretarako oso egokia zaigu era au.

Bostgañen era.

Gogarte aurreko otoitza egin ondoren,
zure izakeran sustrai aundienak bota ditun
grina txaren bat aztertu ezazu eta ate-
ratzeko zer egiñ dezakezun ondo begiratu;
edo zeuk daukazu edo zeureganatu nai
dezun oitura on edo gogo apaingari bat
nola iritxi dezakezun. Eta azkenean zeuk
nai dezunerako laguntza Jaungoikoari es-
katu zaiozu.

Seigaren era.

Idazti on bat artu ezazu, Beñionak (Eban-
gelioak) ala Kempis (1) ala onelakoen bat,
eta gogarte aurreko otoitza egindakoan, za-
titxo edo esaera bat irakurri ezazu poliki-
poliki eta irakurri dezunak dion eran bizi
izateko, laguntza eskatu zaiozu Jaungoiko
gure Jaunari.

AZKEN - ITZA

Agur egin baño len, entzun Jesus'en Te-
rese Deunak esan oi zituan zoragarizko itz-
auek: «Ordu laurdentxo bat egunero go-
garteari ematen badiozu, zeruko atean
zaude».



(1) Oraintxe Kalmeldar Pi Abak oso poliki eus
kerakiu duana nun nai arkitu dezakezu.

AZTERPENNA

.....

I

Azterpena bear-beařezkoa da

Goizeko otoitz edo gogartea beziñ ego-
kia dezu azterpena edo esamiña ere zeruko
bidean asko auřeratzeke.

Jaungoikoa'k nai duan bezela egun beřia
asi nai ba'dezu, gogarteko atetik sartu zaite.
Irten baño len beřiz, zure bařenari begira-
tze bat eman: auxe da bada azterpena.

Gogartea bezelakorik ez dagola, uste det,
gizonari Goiko Jaunaren naia zintzo-zintzo
bete-erazteko, bide zuzenetik beti, alde e-
gin bage, ibiltzeko berak bizkortzen gaituta.

Ařatsaldeko azterpenak ordea gure gogo
edo animak sendotu, indartu ta osatu egi-
ten ditu.

Oker xamar eguna igaro baldiñ ba'degu, erori-ala beñiro berak jasoko gaitu. Bere umetxoari oñez nola ibili erakusten dabilen ama bat bezelakotzea da azterpena. Ez gera, ez, berarekin ibilita galduko!

Gure izate argala berez da gaiztakerira makurtua. Eta mendi tontoretik botatako ari potoña bezelaxe, beñ irist-egiñ ezkerro, an dijoa goitik bera zilipurdika beko leizean ondatu arte. Eta nork andik atera?

Lenbizi uskeri bat baizik ez da izango. Eta gero! Geldi-geldiro, zuzen-zuzen eta laister oben edo pekatu ariñera dijoa. Gerroxego beñiz zerbaitek bultz-egiñ eta, oben, oker lañian eroriko da. Oitura gaiztoaren batek bere lokañiaz lotuko du ta gaiztoki edo inpernuko atea noiz irikiko an dago.

Zure belardietan lenengo sator-zuloa ikusten dezunean alegiñak egiten ez ba'dituzu, ganbara bete belar ez dezu izango, ez!. Baña garaiz saiatzen ba'zera, orduan ganbara, saba, saletxe ta ikulu gañak gañezka.

Orixe ber-bera gertatu oi da gure gogo

edo animaz ere. Biotzeko baratza ontan azi ona eraitea ez da naikoa; beiñ erne ezkerro, aldamenean sortu oi diran belartxoak atera egiñ dear dira; gero beñiz tokia izan dezaten sustańak zabaltzeko nora-nai, banakatu; bereala lur berira aldatu landaretxoak eta sańi ikustatu bare edo beste moxońoren bategen jan ez ditan. Auńerakoan ere, eldu arte, lan eta ardura ugari.

Landutzen ez-dan luńak beñiz, onenetan onena izan ańen, ez du arantza, lar, asun eta belar gaiztoa baizik ematen; gure animan ere lantzen ez ba'da, gaiztakeria besterik ez-da sortzen.

Loyola'ko Ińazio Deunak ońegatik esan oi zuan: bear beańekoa dala zeruko bidean ez okertzeko, ańatsaldero, beiñ ere laga gabe gure gogoaren txoko guztiei ikusialdi bat egite au.

II

Azterpena egiteko garairik egokiena

Oeratu auńetik ordu laurdentxo bat egu-

nero artuko ba'zenduke, uraxe guztietan onena.

Dana dala, iluntzean egiteko betarik bi-iatze ez ba'dezu, ez ikaratu! ia goizean esnatu ondoren izaten ez ote dezun.

Ezetz? Astirik ez dezula orduan ere? Eguerdian lanetik etxeratze bitartean edo bazkal aurrean iges egiñ duten ogei-ta-lau orduei zearo-zearo begiratu zaiezu.

Naiz ordu laurden osoa ortarako ez izan, ajolik ez dio!, al-dezuna egiñ, baño beti egin. Etzaizu damutuko-ta.

III

Azterpena beiñ ere ez laga.

Irakurle maite orek, zerana zerala, egu-nero-egunero ta txintxo-txintxo azterpena egiñ.

Naiz gizon. naiz emakume zerala, naiz gaztea naiz zarkotea, ezkondua ala ezkon- gaia edo alarguna, apaiz ala lekaidea, agintari ala mendekoa, aberatsa ala bear-

sua, zerana zeran orek, ez, aeren, azterpena baztaferatu.

Jainkoa'k bere bidez geroz eta obea egiñ egiñ nai zaitu-ta: Bide erex ontatik poliki-poliki noraño jaso nai zaitun, ba'zeneki?

Ekiñ bada gaur bertatik, jarai auera ta zure ederean betikotasun guztirako goi-goi-an izango zera.

IV

Azterpena nola egiñ

Oso da erexa. Ez zera, ez, aspertuko!

Bost zati oet dauzka: Jainkoa'ri eskerak egitea, berari laguntza eskatzea, azterpen edo esamiña, biotzezko damua ta gerorako erabakiak.

Lenbizi Jauna auzez-auzez daukazula bururatu zazu. Belaunikatu zaite gero ta luara-ri muñ egiñ.

I. — Biotz-biotzez ezkerak egiten dizkitzut, nere Jaun eta Jainkoa, gaurko egunean zure eskutik artu ditudan ondasun gu-

engatik. Batez ere nik ezagutu ezezik zure maitetasun eta onginei berdiñ gabekoa-ren biguntasun us-usez zaindu nazulako. Emen bat-edo beste aitatu diteke. Orain «Aita Gure» bat esan.

II. — Nere burua egi-egiz eta zuk ikusten dezun bezelaxe ikusi dezadan, argitu nazazu, añen, nere Jaun Gurutziltzatua. Eta okerkeriz lardaturik nere gogoa aurkitzen ba'det, lagundu zaidazu, izutu nadiñ. Eluía beziñ garbi ba'dago, beñiz, berebat geitxo arotu edo puztu ez nadiñ.

Nere biotzeko utsegite, eru, erorbide, oben edo pekatua ta beartasun guztiak argi-argi erakutsi zaizkidazu.

Txarki egiñak zuzendu, amar aginduak zintzo bete ta gaiztakeriaz bene-benetan damutzeko indaía iritxi zaidazu, nere Eroslea zean orek. Alaxe.

Beste «Aita Gure» bat esan emen.

III. — Azterpen edo esamiñak iru zati oetxek dauzka:

A). — UTSEGITEAK

Jainkoarekikoak: Nai-ta naiezko egiñ bea'ak (igandetako meza edo jaupa, jai egunak...) — Goiz, otordu ta iluntzeko otoitzak, Jaunartzea, Aitorkuntza, Agurtza edo e'osarioa.

Lagun-urkoarekikoak: Gurasoen egin-kizunak, zure bizikerakoak: seme-alaba, senar-emazte, lengusu edo auzoko, lagun edo arerio, mirabe-nagusi, etxekoandre, mo'oi-neskame... (bakoitzak bereak, aztertu bitza). Begietan i'ori eman diozu? Mingaiñ luzetxoa ez ote dezu? Asa'e, eztikeri, iseka, go'oto, biotz gogor edo beraegi, gaizki esaka, petralkeri, jauntxo. Ardote-gi, naiz sagardotegietako jarduera ta be'iketaldiak. Ume eta gaztetxoen au'ean zerbait ondo ez egi'na? Gezu'rik?

Zero'en buruarekikoak: Lan edo bea'ak? Alperkeririk? Eguna nola igaro dezu? Jolasak. Artu-emanak. Buruarinkeriren bat. Irakurgaiak. Jainkoa'ren legeko seiga'ren agindua.

B). — GALBIDEAK

Emen poliki-poliki nun ibili zeran gaur gogaratu ezazu. Batez ere ia erorbideren bat-edo batean, nai izanda, egon ote zeran; baldiñ irauten ba'dute, len bait-len iges egiñ.

Norekin zabiltzan ere ikustea ez aztu, lagun erdipurdikoa ere ikaragarizko kalteak lekartzizuke ta.

C). — AUÉRERAPENAK

Ezeren lotsarik gabe kristau egiazko bat bezela ibili al-zera gaur?

Beti iraungo duten zeruko ondasunak, luereko ezerezkeriak baño maiteago izan al dituzu?

Jainkoa'ren alde zer-edo-zer egiñ dezu?

Zure ondoan birau edo itz itsusiren bat esan ote da?

Amalau erukizko egintzetatik zenbait bete dituzu?

Iñori gaitzera bultz egiñ diozu?

Esku-garbikoa izan zera?

Geiegikeriren bat naiz edari, naiz jan, lo, jazkera, atsedeen eta gañerakoetan ez ete dezu izan?

Gauza on bat egiteko erarik galdu dezu?

D). — DAMLIA

Biotz-biotzetik poztu zaite eta Jaungoikoa'ri esker sutsu-sutsuak egiñ, baldiñ gaur erori ez ba'zera, edo bestietan aiña ez.

Bestela apal-apalki ta seme batek bere aita kutunari bezela asketsi edo barka zaitzala eskatu

Gero gaiztakeriaren ordaiña eskeñi, esate baterako: «Aita Gure» bat esan zitalkeriren bat egiñ diozunaren alde, zere sake-lako txanponen bat-edo-beste eskaleari eman, jolas bat utzi, gutxixego jan edo edan, beso biak zabalik dituzula otoitz egiñ.

E). — ERABAKI EDO ASMOA

Lan oetxek buruan erabili ta ausnartu itzatzu:

Biar ez erortzeko zer egiñ bear dezun.
Írist egiteko bidetan ba'zabiltz, iges egin
oraintxe!

Jainkoa'k obea nai zaitu.

Eriotza bertan ba'zendu egiñ nai izango
zendukeana egiteko asmoa artu.

.....

Azterpen edo azterketa bukatu diteke oso
egoki maite-damuzko otoitz onezaz:

«Jesukristo nere Jaun, Jainko ta gizon
egiazko, nere Egile ta Erosle ori, zerana
zeralako ta gauza guztiak baño maiteago
zaitudalako, damu det biotz-biotzez. damu
det zu naigabetua: asmo sendoa artzen det
ez geiago obenik, okeñik egiteko, obenera-
ko bide guztiak utzi, aitortu ta oben-nekea
betetzeko. Alaxe».

Edo bestela Xabier'tar Prantzizko Deu-
naren itz-neurtu xamur'-xamur au:

: -: JAUNA ! : -:

Nere biotzak zu maitatzeko
Ez du saritzat zeru beańik;
Obenkeritik alde egiteko
Ez da ez ere beko su-gańik.

Zuzen zuregan zuk naramazu
Zure nekeaz, zure odolez;
Zuk naramazu zure gurutzez.


Zuk naramazu ta aiń naiz zurea
Zeru gabe ere zugan negoke:
Maitea maita gaiztoki gabe.

Nere Jainkoa zeran ezkerro,
Zerua ere ez baneukake,
Nai dizudan lez, nai zaitut maite.

Gero Jauna'ren izenean oeratu ta atsedan.

A . M . D . G .





(ARGI DONEA'TIK).
AITORTZA

.....

Aundia da, deabruaren atzaparetatik atera ta Jaungoikoaren besoetara biurtzen gaitun sakramentua: AITORTZA edo CONPESIOA.

Baña aitorpen on bat egiteko, ongi gertu bear zera lendabizi, kristaua, eta len ortarako lagunduko dizuten neurí batzuk artu bear dituzu.

Ora eginbear nagusienak:

1. — Bařena aztertu edo miatu.
2. — Biotzeko damua sortu.
3. — Asmo beři sendo bat artu.
4. — Ogenak edo pekatuak aitortu.
5. — Oben-ordaña (penitenzia) bete.

Laburkiro azalduko da emen bakoitza.

AZTERPENA

Ongi aitortu nai badezu, zure bařena aztertutu edo miatu bear dezu, *zertan* erori zeran eta *zenbat* aldiz pekatu egin dezun ezagutzeko: pekatu lařiak ez ezik, zenbat aldiz egin diran aitortzea beařa da-ta. Bařena aztertutu edo begiratzea beařekoa da, ta *pekatu lařipean agintzen* zaigun lena; bařno ez geiegi nekatu, sakramentu ori neke-tsua egiterařno.

Dakizuna esan, eta dakizun bezela ta zure oben (pekatu) guztiak obeto ezagutu nai badituzu, egin izaten dezun pekatu au edo bestea nondik datorkizun begira zazu: ořetara edo ařokeriak zaraman, edo gezu-řezko belduřak, edo nagikeriak, ala adiskidetasun txar batek...; sustraia kenduta, zuaitzak luřa aurki joko du.

(Berago jartzen da azterpena egiteko bidea).

DAMUA

1'g. Egindako pekatuen miņa edo go-

rotoa da; *maitetasunezkoa* eta *bildurézkoa* izan diteke. Lenengoa, Jaungoikoagana maitetasunak sortzen du gure biotzetan; bigarrena inpernuko bildurak. Zer esanik ez dago, lenengoa askoz ederagoa da; bada bere bitartez pekatuak barkatzen zaizkigu aitortu baño ere lenago, benetako damua baldin badegu, gero *aitortzeko asmoz*. Beraz, kristaua: *zoritxañez pekatu lañiren batean erortzen zeranean, biotzeko benetako damua agertu zaiozu Jaungoikoari*, «Nere Jesukristo Jauna» edo «Ni pekatari» esanda da gero, lenbailen aitortzera zoaz.

2'g. Damua, benetakoa izango ba'da, *zerutikakoa* bear du izan lenbizi, au da, Jaungoikoaren laguntzarekin sortua. Gizonaren argaltasuna aundia, emen agiri da: berez, bere indaréz, Jaungoikoa utzi lezake, baño gero alperik egingo ditu egiñal aundienak, Jaungoikoagana biurtzeko, Berak laguntzen ez badu; emendik bi erakuste eder-ederak atera ditezke.

Lenengoa. Pekatuari bildur-ikara aundia

artu bear diogula: «*Garaia elduko da* (Jaunak diogu) *ta nere bila ibiliko zerate, baño alpeñik, orduan ez nazute arkituko-ta.*

Bigařena. Benetako damua Jaungoikokak eman bear digun ezkeroz. Berari eskatu bear diogula, begiratu gozo batekin Pedro ikutu zuen bezela, gure biotza ikutu dezan.

Benetako damua, gañera, *biotzetik jaioa izango da.* Alpeñik esango diogu Jaunari «Damu det» pekatua goñotutzen ez badegu. Gezuñezko damua agertzen diogu. Mingañezkoa bear du izan. *Cor autem ejus longe est a me,* (Isai. XXIX. 13).

Pekatu guztietara zabaltzen dana, guzti-guztiak goñotatu bear ditugu-ta.

Azkenean *gaitz guzti-guztien gañetikoa:* Onek esan nai du, pekatu bakar bat baño, gaitz-okker guzti-guztiak naiago bear ditugula.

3'g. Baño damua zer dan azaltzea, berá biotz-bañenean sortzea baño askoz eřezagoa nola baidan, ona, obeto prestatu zaitezzen, *bide oso egoki ta eřexa.*

Adimenaren indaíez, inpernura zoaz lendarabizi. Jetxi arako zulo beltz, ilun artara... antxe deabruak erakutsiko dizu zure pekatuaz irabazi dezun tokia, ta entzungo dezu, esaten dizula: «Jaunaren erukiari zor diozu betiko emen ez egotea».

Gero, zerura igo zaitez. Begira, jauregi eder apain artan Jaungoikoak zuretzat aukeratuta zeukan urrezko aulkia. Antxe «eregeak baño apañagoak diran» santuekin batean, zure tokia zenduan; baño, pekatuaren bidez, galdua dezu.

Azkenean, begiak Kalbario-mendira itzuli. Begira antxe Jesus, gurutzean josia, bi lapuren artean, samintasun ta oñaze gogoretan, zaurietatik odola dariola... eta entzun bere mintzaldi xamuña: *Nere semea, esango dizu, nere seme laztana: ¿zer egin dizut Nik, edo zertan naigabetu zaitut, zuk gisa onetan gurutzean josirik ipintzeko? ¿alperrik ixuri ote det nere odol guztia irabaztearen, alper-alperrik ote da semea?*

Sartu zaitez zure barenean, ta, pekatu

guztiak aurrean dituzula, biotzez esan: «Jesukristo nere Jauna...» (57 orrialdea).

ERABAKI EDO ASMOA

1. — Egin diran pekatuen *miña*, damuaren erdia baizik ez da. Ortaz gañera, damua osoa izango bada, aurrerakoan pekatu-rik ez egiteko erabaki edo *asmoa* bear-da.

Baño damua benetakoa baldin bada, erabaki edo asmoa ere egizkoa izango da. Pekatu egin dezulako egizko damua baldin badezu, asmo sendoa orobat artuko dezu, lengo pekatuetan ez erortzeko, beriz ez asteko: ¿ta noiz arte beriz? Beti, il arteraño.

2. — Beraz, asmoa izango da:

Lendabizi. — *Sendoa*: au da, beriro pekatu-rik ez egiteko erabakia. Ez du onek esan nai aurrerakoan ez zerala eroriko, erortzeko beldura izan arien, zure biotzean erabakitzen badezu ez erortzea, egizko asmoa sortu dezu.

Uñen. — *Osoa* izango da: Au da, pekatu-lari guztietara zabaltzen dana. Ez da nai-

koa pekatu lañi bat edo beste goñotatzea, guztiak goñotatu bear ditugu.

3. — Egizko asmoa sortzeko asko lagunduko dizu zertan eñezago ta maizago erortzen zeran ikusteak, ortik zure bizibide osoa zuzendu dezagun. «Goliat eñaldoia azpiratzen badezu, laister iges joango dira pilisteotarak»; esan nai du: zure griñik gaiztoena ta zitalena menderatzen badezu, beste guziak ere aisa azpiratuko dituzula.

Beragatik:

Asmo asko edo geiegi ez artu, bat bakara ta ura ona.

Asmo aldakoñik ez artu, zer nai dezun ongi erabaki, azpiratu bear dezun griña zein dan ondo ikusi.

AO-AITORTZA

Ao-aitortzak eskatzeu digu: egin ditugun pekatuak aitorleari esateko.

1. — *Pekatu lañiak.*

Pekatu lañiak bederik aitortzera beartuak gaude. Jesukristok berak agindu du, peka-

tu laíri guztiak aitortu bear dirala, gordeena-
nak ere...: lotsagaírienak ere....

Ez utzi, aíren, lotsaz oben laíririk esan
gabe. Badakizu apaizak lenago emango
lukeala bere bizia, oiek azaldu baño.

Zure pekatuak argi ta garbi esan, diran
bezela, apaizak ondo ezagutu ditzan. Gaxo
zaudenean argiro azaltzen diozu sendatza-
leari zure gaitzaren sustraia ta beste zer-
tzelada guztiak. Orobat egin bear dezu
animaren sendatzaílearekin, apaizarekin.

Pekatu laíriak aitortzen diranean, *zein
diran oiek eta zenbat diran* (gutxi gora-
bera) *esan bear da gañera*.

Naikoa da pekatua zein dan, zenbat al-
diz egin dan eta bera *aldatzen* duten zer-
tzeladak aitortzea (jaíri dezagun 6'gaírene-
an, bakaírik ala ezkongai edo ezkonduare-
kin pekatu egin dezun, esan bear dezu).
Ez da beaírekoa, ordea, pekatua nola egin
dan ta beste joan-etoíriak esatea.

*Pekatu laíriak, laíria izateko, iru gauza
eskatzen ditu.*

1. — Zure iritziz laíria dala uste izatea,

bera egin baño len.

2. — Ezaguera osoz egiña izatea.

3. — Naita egiña izatea.

Iru baldintz (kondizio) auetatik, batek uts-egin ezkerro, pekatua ez da laña izango.

Beraz:

Nai ezta, edo gogo oso gabe, edo ezaguera osorik gabe (ametsetan ala erdi-ametsetan) egiten dana, ez da pekatu laña.

Zerbait eginda *gero*, ez ordea egin baño len, pekatu dala igartzen badezu, ez dezu pekatu egin, aitortu bearik ere ez dezu.

Zalantzan, eztabaidan zaudenean, pekatu egin dezun ala ez, egin dezuna pekatu laña edo ariña ote dan, lenago aitortu dezun ala ez, aitortu bearik ez dezu.

Aztuta utzi dituzun pekatuak geroago gogoratzen badituzu, *urén* aitortzen zera-nean esan. Oiek lenbailen aitortzera joatea ez da bearikoa, ta bitartean Jaunartu zenezake, biotzez damuturik.

Lotsaz edo bestela, nai izanda, pekatu laña esan gabe utzi badezu, txarki aitortu

zera, ta ondorengo aitortzak ere txarrik dira. Ori azaldu arte, beraz, gaizki egindako aitorpeneko pekatuak eta ondorengo guztiak aitortu bear dira; gañera zenbat aldiz aitortu zeran ta Jaunartu dezun.

Bein ongi aitortu ezkeru, ez da bearekoa esan diran pekatu larriak beñiro aitortzea.

2.—*Oben ariñak.*

Pekatu ariñak aitortzea ez da bearekoa, baño bai on aundikoa.

Ara zergatik: Aitorpenaren bidez:

Aisago ta ezezago pekatu ariñen barkamena iritxiko dezu.

Jaungoikoaren maitetasuna zure barenean geiago piztuko dezu.

Esker eta indar beñiak Jaungoikoarengandik iritxiko dituzu.

Pekatuen zoñra gutxituko dezu.

Txit ona ta egokia da, beraz, oben ariñak ere aitortzea; baño ongi oartu, oiek egizko pekatuak izan bear dutela, bestela, apaizaren askapena utsean eroriko da. Ai-

fortza pekatuak askatzeko da, ta, pekatuak ez badituzu, ezin askatuko dizkizu. Beraz, egizko pekatu arin bat bederik esan bear dezu.

Orobat, fixit ona ta egokia da, pekatu ariñak baizik ez diranean, lengo pekatu lariren bat aitortzea, benetako damua sortzeko.

Azkenez, maiz aitortzen bazera, asko irabaziko dezu, aitorpen batetik bestera *asmo bat artzearekin* (pekatu ori edo bestea kentzeko asmoa) ta urén aitortzen zeranean, asmo ori nola bete dezun aitorleari agertuaz.

PEKATU - ORDAÑA

1.—Obenak aitorturik apaizagandik askespena (asoluzioa) artzea, ez da naikoa. Aitorpenak pekatua kentzen du, baño onek Jaungoikoari egin dion iraña oraindik ordaindu bearekoa da. Ora zergatik aitorleak, aitortu ondoren, pekatu-ordaña (peni-

tenzia) ematen digun, pekatuaren bidez, Jaungoikoari itzuli diogun iraña oben-nekeaz kitatzeko, bada aitorpenak pekatua kentzen duen bezela, orobat pekatu-ordaña *berez indaña* dauka pekatuaren zoña ordaintzeko.

2.—Pekatu-ordaña aitorpenaren zati bat da. Beraz, beańekoa da ori egitea, ta askotan pekatu larıpean agintzen zaigun lana: beragatik lenbailen bete bear da, aztu gabe, aitortu ta berealaxe al bada, ainbat laisteren.

3.—Pekatu-ordañarekin batean, oso ego-kia da, beste lan-neke, otoitz ta eginkizun onak Jaungoikoari eskeintzea pekatuaren zoña kitatzeko. Barkapenak batez ere, guztiz mesede aundikoak zaizkigu, ta txit ezez irabazi ditezke gańera.

Ez aztu emen luńean ordaintzen ez deguna, gero Garbitokian ordaindu bearke degula, askoz ta askoz aundiagoko ońazemıńakin.

AZTERPEN-GALDERAK

.....

Aldiz-aldizka aitortu oi diranentzat
azterpen luzea.

*(Ona lizake, ondoren jartzen diran az-
terpen-galderak noizean bein irakurtzea,
ta aitortzen zeran bakoitzean al badezu).*

I. JAUNGOIKOAREN AGINDUAK

¿Zenbat egun edo aste dira azkenengoz
aitortu zifiala?

¿Ondo aitortu zifian?

¿Aitorpen txarrik egin al dezu? ¿Zenbat
pekatu larri, lotsaz edo, aitortu gabe utzi
dituzu?

¿Zenbat aldiz geroztik pekatu larripean
Jaunartu dezu?

¿Apaizak agindutako pekatu-ordaña egin
gabe utzi dezu?

¿Zure pekatuak lagunen artean arókeriz
esan al dituzu? ¿Egin dituzunak ez ezik,

zure burua goratzearen zük asmatutakoak agian?

(*Oarpena*: Lengo pekatuak gogoraturik, oietzaz atsegin artzean, beriro pekatua egi-ten da, gogozko pekatua).

LENENGO AGINDUA

Jaungoikua maiteen izatea

1.—Sinismen edo fedearen kaltezko pekatuak.

¿Sinismen edo fedezko egiak *ukatu* al dituzu?

¿Eztabaidan edo zalantzan erlijioako egiak artu al dituzu, esanaz: «Nork daki oiek ala diran...»?

¿Oñelako egirik, zure barrenean sinistu aren, aoz *ukatu* al dezu?

¿Sinismen edo erlijioaren kaltez itzegin dezu, mintzatu zera? esanaz: «Il eta guztia bukatua dago... Inpernua... nor izan da bertan, inpernua bai dala esateko...? Apai-zak asmatutako gezuña da, guri beldur

emateko gezuña... ¿Zerua? beste txorakeria, aurai eta emakumeai sinistarazteko ona... erlijioa guztiak berdiñak dira...» eta abar?

¿Orelako autuetan dabilzaneri aurerapiderik eman diezu, galdetuaz, arpegi argia ipiñita, ala par eginda?

¿Izdeunetan (sermoietan) entzundakoa ukatu al dezu, ala jolasean artu?

¿Jaungoikoaren kaltez edo kontra, ona ez dala, zuzena ez dala, edo beste orelakoren bat esan al dezu?

¿Zeruratzeko itxaropena galdu dezu?

¿Sinismen edo fedezko ta erlijioaren egiak, elizkizunak eta abar iri ta pañez artu al dituzu?

¿Erljioaren kaltez mintzitzen diran *al-bistariak, izpeñingiak*, (periodikuak) eta *liburu txarñak* erosi, irakuñi edo norbaiteri irakurtzeko eman, ala saldu, ta aien esanak sinisturik?

¿*Añokeriz*, pekatu egiñik esaten dezula: «ba, naikoa da aitortzea... Jaungoikoa ona

da... barkatuko dit...» edo beste orelakobar?

¿*Aztiengana* joan, naiz gauz ilunak eta etorkizunaren beñi ezagutzeko, naiz gorputz-miñak sendatzeko, ala zoriona irixteko...? Ameskeri, sorginkeri edo orelakorik sinistu al dezu?

2.—Otoitzak.

¿Ikasbide edo dotriña bai al dakizu? ¿Jaungoiko ta Eliz-Amaren aginduak, *Aita gurea*, *Agur Maria*, *Sinisten det...* eta beste otoitzak ikasi al dituzu?

Luzaroan egon zera otoitzik egin gabe? ¿Ziltzaldian (tentazioan) Jaungoikoari laguntza eskatu al diozu?

¿Goiz-aratseko otoitzak, sinispen, itxaropen eta maitetasunezko egintzak, egunero esaten al dituzu? ¿Nola? ¿Nolanai agian, eta beste zure lanetan gogoa daukazula, ala laisterka, zer egiten dezun gogoratu gabe.

(Oarpenak:

1. — *Ez uste izan, agindu bakoitzean aitatzen diran gauza guztiak pekatupean agintzen diranik: ala, goiz-añatseko otoitzak ez egitea berez pekatu ez da; baño nagikeriz ala ańokeriz edo bestela uzten badira, orduan nagikerizko edo ańokerizko pekatua egiten da.*

2.—*Lenengo aginduaren kaltezko pekatuetan, asko ta asko oitzen dira gure egunetan, erlijio ta apaizetzaz gaizki itzegiñaz, ta sinismenaren egiak ukatuaz; onela mintzatzzen diraneri, gogor egin be-ar zaie, arpegira botaz beren ańokeri ta jakin-eza, lotsaturik ixildu ditezen.*

BIGAÑEN AGINDUA

*Jaungoikoaren izena alpeñik
ez aotan artzea*

1.—*Gezuñezko zin edo juramentuak.*

¿Epaile (jueza) ańrean gezuñetan zin egin al dezu?

¿Andik kampora ere, gezuñezko zin edo juramenturik egin al dezu?

¿Inñoren kaltez, epaile-auñean, gezuñezko zinañtzarik (testimonio) esan dezu?

¿Gauzen bat sinistarazteko egiaz ala gezuñez zinañik egin dezu beañik gabe?

¿Jaungoikoa, naiz bere izatea berariz agertzen duten gauzak, lekuko edo testigutzat ipiñi dituzu?

¿Zin edo juramentuakin emandako itza autsi dezu?

(Pekatu dan zerbait zin eginda agintzea, debekatua dago. Orduan pekatu bat egin dezu, zinañez itz emanda; baño oñela agindutakoa ez dezu bete bear, bestela bigañen pekatua egingo dezu.

Umeak atzapañaz gurutzea eginda, muñ egiten dutenean, edo *Jaungoikorekiko* esanaz, ez dute, noski, pekaturik egiten, baño oitura txar ori lenbailen utzi bear dute gero okeañagora jo ez dezaten).

2.—Birauak.

¿Jaungoiko, Andre Maria ta santuen edo

erlijioaren kaltez birauak esan al dituzu?

¿Egunean zenbat bezela esaten dituzu?

¿Oitura ote dezu, ta noiz ezkeroztik?

¿Birauak ez ezik beste itz zikiñak oiekin esaten al dituzu?

¿Jaungoikoaren izena nolanai aitutzen dezu?

(Birau zikiñak botatzeko oitura, atzeritik Euskalerira etorri zaigu, ez dauka gure euskera garbiak birau egiteko itzik, eta erdelizkuntzatik artzen dituzte guretarak. Jaungoikoaren izena zikintzen duten itz loitsuak Jainbat eta ainbat lotsagarriagoa!

Ongi begiratu bezate gai onetan eriko agintariak; ta legeak ematen dien eskubi-deaz, orela mintzitzen diranak gogor josten badituzte, laister kenduko dute gure Euskal-Eritik, erbesteko belar txar au).

3.—Eskeintzak.

¿Gai lañian, Jaungoiko edo santueri egingako eskeintza (promesa), al dezula, bete gabe utzi dezu?

(Eskeintza edo botoak (promesak) berez txit onak izan aŕen, *ez dira ariñegi egin bear*, norbere aitorlearen iritzia lendik eskatu gabe, batez ere betiko garbitasuna gordetzea, edo oŕelakoren bat agintzen danean. Askotan egin oi diran eskeintzak, ez dira pekatu larripean lotuak izateko asmoz egiten; auek eskeintzak baño asmo edo erabaki onak obeto deitu litezke, ta ez da pekatu auek austeaa).

IRUGAŔEN AGINDUA

Jai-egunak jai egitea

1.—¿Meza entzun al dezu?

¿Ilgande edo jaietan meza entzun gabe utzi al dezu, entzun zenezakeala, alperkeriz, zabarkeriz edo bestela?

¿Besteeri meza entzutea galazi al diezu? edo etxekoeri: zerbait lan emanaz, edo zerbaitera uruti bidaliaz, edo aien tokia betetzeko zerori etxera berandu eldurik. edo kanpokoeri: zure moŕoi ta neskameeri

lan egiñaraziaz, edo iñoren etxera zerori joanaz, zer edo zer egitearen, edo ostatuan, bidean ala jokoan, zeroekin egon ditezen zure moñoi eta lagunak bearturik?

¿Mezatarara berandu iritxi al zera, Kredoak apaizak bukatu ondoren agian? ¿Etxean, bidean, edo norbaitekin beriketean, ala pelota-jokuan egonik, berandu iritxiko zizñala jakinik?

¿Lenengo meza uts eginda, bigarena entzun gabe utzi dezu, batere aitzakirik gabe?

¿Apaizak Jaunartu baño lenago elizatik irten zera?

Oarpenak.

1.=Kredoak asi ta gero mezatarara irixten diranak, meza bukatu arte elizan baldin badaude, ez dute mezik uts egiten.

Moñoi-neskameak berandu iritxi badira, ta beste meza bat osorik entzun ezin badute, lenengo meza asi duten zatiraño entzun bezate bigarena.

2.=Ez daude beartuak meza entzutera:

a) Entzun ezin dutenak: gaxoak, makalak... eta abar.

b) Beste edozein beldur, kalte edo lotsa aunditxoa meza entzuteagatik artu bear lutekenak: osasuna galduko duten beldur diranak; moñoiak, nagusiak uzten ez badie (baño lenbailen beste nagusi bat artu bear dute); nai ta naiezko bidezkunde edo bajea igandean egin bear dutenak; aurdun arkitzen diranak... eta abar.

d) Elizatik uruti bizi diranak, zañak badira batez ere, ta bide edo egoaldi txañak badira.

e) Beren lana utzi ezin dutenak, artzaiak, amak edo iñudeak auñak etxean zaitu bear dituzte, beren ordezko iñor jañi ezin badute.

g) Gaxoak zaitu bear dituztenak, eta etxea gorde bear dutenak, bakarik baldin badira; eretzen dagoen etxea itzaltzera dijoazenak....

2.=Meza nola entzun dezu?

¿Gaizki entzun al dezu lotan edo erdi lotan zeundela, ala izketan eta beriketan?

¿Naiz mezetan egon, gogoa beste gauzetan euki al dezu, zure lan eta egitekoak, ala jolasak eta beste txorakeriak gogoraturik?

¿Onela luzaroan egon alzera, mezaren zati aundi batean agian, mez-erdiko Jaungoratzeko garaian bear bada, meza osoro gogotik galdurik?

¿Elizan abesten (kantatzen) ari diranean, zuk jakin arien ez dezu abesten, arrokeriz, besteak noiz uts egingo duten zelatan?

¿Era berean, abeslariari (kantoreeri) galerazi al diezu meza zati aundi bat, izketako bidea aieri emanaz?

¿Meza artean nola egon zera Jaungoikoaren aurrean? ¿Begirunez, ala atzera-aurrea begiraka, edo txistua lurrea boteaz, edo ez-tulka gogorik gabe, ta oñetakoekin otsa ta zarata egiñaz?

¿Meza bukaeran, iru «Agur María» ondoren, apaizak «Agur Erégiña» edo «Sal-

bea» aste duenean, elizatik irten al zera, otsa ta zalaparta aundian?

¿Izdeunean (sermoian) iri-parezka egon al zera, edo gogoa beste gauzetan zeneukala, ala izdeunlariaren esanak aintzakoizat ez arturik?

¿Al dezula meza nagusietara joaten al zera, agurtza, izdeun, dotriña ta beste elizkizunetara?

¿Ilgande-jai aratsaldeak nola igarotzen dituzu: bezperetara joan bearéan lo-zurunga luzea-egiaz, gero nai dezun garai txaréan etxera biurtzeko?

1. - Kristaua: ez uste izan, doi-doi ta nolainai meza motx bat entzutearekin naikoa egin dezula, Jaungoiko ta Eliz-Amaganako zure kristau egtinbearak zintzo bete dituzula, ori ez da naikoa. Jaungoikoak irugarén aginduan eskatzen dizu bere jai-egunak gordetzeko ¿ta agian uste dezu ordu erdi bat nolainai bere aurean elizan egotearekin jai-eguna gorde dezula, bere agintea bete dezula?

2. - Beñiz oartu nai det, emen aitutzen diran zenbait gauza, berez pekatuak ez dirala; baño bai oitura oso itxusiak, lenbailen kendu bear diranak: ez da pekatu, elizan txistua botatzea, meza bukatu baño len elizatik zalapartan irtetzea, eta abar; baña eliza Zeru-luñaren Erege Altsuaren jauregia-dala ez aztu.

3.—Igandeko lanak.

¿Igande ta jai-egunetan lanik egin al dezuz? ¿Bi ordutik gora, bearik gabe?

¿Besteeri lan egiñarazi al diezuz? ¿Zure seme, moñoi edo neskameeri, lanen bat aieri aginduta? ¿Edo kanpokoeri, jostun, oski-egileari (zapatagilea) eta abar, zuretzako soñeko edo oñetakoak egin ditzaten, aieri igandean lan egin-eraziaz?

Naiz igandean lan egin, ez dute pekatu-rik egiten:

Baseñitañak eta baratzaiak, soroko gauzak ez galtzearen lan egin beañean arkitzen badira.

Bizar-kentzaleak, moñoi-neskameak, nagusiak agintzen badie (baño beste bat bilafu bear dute.

Jostunak agindutako laña bukatu ezin badute.

Irabazi aunditxoa bestela galduko lutekenak.

Astegunean etxeko jantziak garbitu edo konpondu ezin dituztenak.

Beartsueri laguntzearen lan egiten dutenak... eta abar.

Baño onela lan egin bearean arkitzen diranak, ixilik eta gordean al badute, egin bezate.

LAUGAÑEN AGINDUA

Gurasoak aintzakotzat eukitzea

Seme-alaba.

¿Gurasoeri zor diezun begirapena ukatu al diezu? ¿Nola? ¿Itz gaiztoak eta lotsagabekeriak aieri esanaz? ¿Gogorki eta purustadaz aiekin itz egiñaz?

¿Erantzun txarrik emanda? ¿Iseka edo burlarik egin diezu? ¿Mutur egon al zera aiekin, edo kopeta beltzakin muxin? ¿Berak zu ondo artu aŕen, zuk naigabetu al dituzu, itz banakak eta gogoŕak bakarrik esanaz? ¿Zematu edo beldurtu al dituzu, naiz itzez, naiz eskuz, bultzaka edo joka?

¿Eriotza opa izan diezu, agian, beren ondasunak zureganatzeko edo lasaiago bizi-tzearen?

¿Biraunik ezaŕi aien aurrean eta kaltez?

¿Gurasoen kaltez txarki mintzatu al zera, etxetik ate edo kanpora?

¿Gurasoaz iñoren aurrean, lotsatu al zera?

¿Gurasoen esanak, ardurazko gauzetan, ezetsi edo ukatu al dituzu?

¿Lagun gaiztoekin ez ibiltzeko, meza entzun, Jaunartu ta beste elizkizunetara joateko, ta gabean goiz etxeratzekeo esan dizutunean, aien esanak ukatu dituzu?

¿Gurasoen azken-naia bete al dezu?

¿Irabazten dezuna eman al diezu, ta gor-

putz-animaren bear izanetan lagundu al diezu?

¿Etxeko zañeri zor zaioten begirapena euki al diezu?

¿Zure anai ańebak bear ez danik erakutsi al diezu, ala aien ańean ori egin dezuedo ońetaz mintzatu zera?

¿Pekatu egitera bultzatu al dituzu? ¿Zertara?

1 - Seme-alabak gurasoeri zor diote beste ińori bańo geiago. Beraz, etxetik kanpoz beti alai dabiltzanak, eta etxe bańenean arpegi beltzakin beti, pekatu egiten dute ta askotan pekatu lańia.

2 - Gurasoeri «ika» erantzuteko oitura erabat baztertu bear da. Semea ez da aita-amaren ańakoa, ezta ere auek bere lagunak; askoz geiago dira, ta begirapenez itzegin bear zaie.

Gurasoa:

a) - ¿Ardura aundia euki al dezute zuen

seme-alaba gaxtetxoari ainbat laisteren otoitzak erakusteko? «Gurutze santuaren», «Aita Gurea», «Agur Maria», «Sinisten det», «Sinispen, itxaropen, eta maitetasunezko egintzak» eta abar..?

¿Gazte gaztetandik erakusten al dizkiezu sinismen edo fedezko egiak: Jaungoiko bat dala, guztia ikusten duena.... pekatuak Bera naigabetzen dutela..badala zero bat.. baita ere suleiza edo inpernua?

¿Etxean, erakusten al diezute zuen seme-eri dotriña, ta ez ote dezute zabarkeriz lanbide ain aundi au utzi, ori apaizen lana dala esanaz? (1)

¿Egunero goiz-aratsetan, egiñerazten al dizkiezu otoitzak?

(1) Gure egunetan kristau gurasoen lanbide (nagusiena da, semeak Jaungoikoaren itzalpean aztea, gero kristau onak izan ditezen. Ofetarako lanik beařena, nagusiena, lenena da: etxean gazte-gaztetandik semeei dotriña erakustea. Beragatik ots-egin nai diet bertatik apaiz Jaun agurgafieri, estu ta zořotz gurasoak gai onetan artu ditzaten, eginbear nagusi au bear bezela bete dezaten.

¿Zazpi urtetara irixtean meza entzutera ta ezaguerara iritxi ezkerro, aitortu ta launartzera bidali al dituzu, baita ere aragi-uzteko egunak gorde-erazi?

¿Txarki dabilzala ikusirik, ala gezurak esaten, edo gaiztakeriren bat lagunengandik ikasia egiten, zuzendu al dituzu bertatik, gerorako oitura txarrik artu ez ditzaten?

Ez gerorako utzi zuen semeak zuzentzea, oraindik gazteak dirala-edo esanaz. Zuaitz gaztetxoa aisa zuzentzen da, baño bein makurtzen danean oso nekez zuzenduko da

b). - Auñak aunditxoak diranean:

¿Lagun gaiztoetatik aldendu ai dituzute?

¿Eskolara edo dotriñara dijoazenean lagun gaixtoekin biltzen diran, ikusi al dezute.

Ala bidean, agirian ez bada gordean, naiz ikusten naiz ikasten edo gauza txarrik egiten ote dabilzan?

¿Erian bertan aien ibilera guztiak zaitu

al dituzute, norekin biltzen diran jakiteko, zer irakurtzen duten, nola mintzatzan diran, igandea non igarotzen duten eta nola? ¿Edo bestela, utzi dituzu kalerik-kale nolainai dabilzala, aratsean, zure kolporako esanaz, zure aurak ez dutela bear ez danik egingo?

¿Zine'ra joaten utzi diezu? ¿Oretarako dirua zero'ek eman diezu? ¿Zinera zero'ek lagundu diezu?

Zine geienak kaltegarriak dira, eta kalte aundiak egiten dituzte, batez ere umeetan.

¿Bilera gaizto ta eromerietara, edo neska-mutilak biltzen diran beste toki batera, zaituko dituen lagunik gabe, bakarrik joaten utzi dituzute?

¿Iluntze ezkerro, batez ere alabak, etxeratu al dituzute?

¿Senar edo andregaiarekin, alabari edo semeeri bakarrik egoten utzi diezu?

¿Pekaturako beste edozein galbidetik, al dendu al dituzute?

Gurasoak jakin bear dute, edo etxeko edo besteengandik, beren semeak nola dabilzan. Badira, alabaña, guraso zabañak, beti azkenak diranak, beren semeen berri jakiteko; auek, beren semeaz au edo ura norbaitek esaten dienean, asaretu egiten dira, bekaizkeri edo gaiztakeriz onela mintzitzen dirala uste dute, ta azkenik esaten dute: «eriko edozeñenak bezin onak dirala beren semeak». Beste batzuek beriz, «oraindik gazteak dirala» esanda, naikoa egin dutelakoan daude, ta lasa-lasai gelditzen dira: «gazteak dira» diote... oraindik jolas-tu bear dira... beste ainbeste egin genuen guk ere...» ¡Guraso zabañak, guraso itxurak; ez dute ikusten, beren semeen galera ez ezik, beren buruen ondamena ere onela irabazten dutela!

Azkenik, guraso txoroak ere badira, beren semeak eromeriz-eromeri dabilzala jakinda, estutu beaŕean, iri-paŕezko arpegiz erantzuten dutenak, «onela aisago ezkonduko dirala»; ba-diteke, baño baita ere aisago galduko dute animaren garbitasuna,

ta agian-agian baita beren izen-ona ere.

d)---Itzez edo egitez, semeeri ikasbide txarrik eman diezu?

ITZEEZ: ¿Apaiz, praile edo erlijioaren kaltez aien aurrean itzegiñaz?

¿Ala jardun loitsuak erabiliñaz... birauak boteaz... artu-emanetan egin dituzun lapurretak aitatuaz, eta inoren utsegiteak aien aurrean aitaturik...? eta abar.

EGITEZ: ¿Igandeko mezari uts-eginda... jai-igandetan lan-egiñaz, izpeñingi edo periodiko txarrik, edo bertsoak, erosi ta irakuriaz, moskortuta gauean berandu etxeratuaz, seme bateri besteari baño maitetasun geiago erakutsiaz, agian biurriagoa dalako, seme-alabak ez dagokien eran apainduaz? ¿Gogorkiro agintzen al diezu zure semeeri, arpegi beltzakin eta gisa-txarrean beti... maitetasuna aieri erakutsi bearean, esker-gaiztoa agertuaz?

Gurasoak seme-alaben aurrean itzez edo egitez pekatu egiñaz izugarizko lan txarra

egiten dute, bada orain ereiten duten belar txararen azia, gero beren buruen kaltez bilduko dute; gañera, bi pekatu egiten dituzte, txarki egiten dutelako, ta besteak pekatu bidean jartzen dituztelako.

Nagusia:

¿Nolako moñoi-neskameak artu dituzu?
¿Zure seme-alabai bear ez dana erakutsiko dietenak agian, mingain txardunak, lotsagabeak?

¿Seme-alaben aurrean txarki mintzatzen diranean, ala gaizkirik egiten dutenean, estu ta zorotz artu al dituzu?

¿Maitetasunaz oiek artu beaurrean, gaizkikiro agintzen al diezu beti?

¿Meza entzutera, aitortu ta Jaunartzera bidaltzen al dituzu?

¿Dotriña erakusten al diezu, edo erakutsierazi? (Igande aratsaldetan eskolara, dotriña ikastera bidaliaz, urietan oitzen dan bezela).

¿Lan aundirik igandeetan ematen al diezu?

¿Arduraz begiratu al dezu moñoi-neskameak beren artean lañotasun geiegirik artu ez dezaten?

¿Neskameak bakarrik utzi dituzu eromeritara joaten, edo gauean berandu mandatuak egitera bidali, etxe-atarian gizasemeekin beriketan egoten utzi?

¿Itz batean: pekaturako bidetik moñoi-neskameak aldendu dituzu?

¿Beren sari edo irabaziak, ta beña zaiotena janari edo jantzietan, eman al diezu bere garaiz?

Nagusi zikoitzak, lapuñetako bidea beren moñoi-neskameeri ematen die.

¿Beren utsegiteak, beñik gabe, agertu dituzu?

¿Beste etxe batera joateko bizibide onaren agiria eskatu dutenean ukatu diezu, ala oien beñi eskatu dizuteneri gezuñik esan?

Nagusiak, seme-alabak bezela zaitu bear dituzte beren moñoi-neskameak; batez ere,

gazteak diranean, beren aita-amaren tokia euki bear dute.

Moñoi-neskamea.

¿Asaíe bizi al zera, moñoi edo neskame zeralako?

¿Zure ardurapeko gauzak galtzen utzi al dituzu? (esan zenbat, gutxi gora-bera).

¿Etxeko gauzarik artu al dezu, saldu, eman? (gauza aundia, edo txikia, eta zenbatekoa dan esan).

¿Zure eginbear eta lanak nolana eta ajolik gabe egin al dituzu?

¿Lan egin beaíean, alperkerian luzaro egon al zera?

¿Nagusi-etxekoandrearen kaltez gaizki esaka ibili al zara?

¿Ixilik gorde bear ziran gauzak, kanpoan agertu al dituzu; nagusiak beaíean arkitzen dirala esanda, ala bere artean ongi etortzen ez dirala... eta abar?

¿Lotsagabekeriz nagusieri erantzuten al diezu?

¿Nola zaitu dituzu zure ardurapeko aurak: itz lasaiak entzungo dituzten edo gauza txarrik ikasiko dituzten bileratara eramaten al dituzu? ¿Gauz itxusiak egiten erakutsi al diezu?

¿Neskame zauden etxean, pekatuak bi-dea arkituko dezula ezaguturik, ez al zera sayatu andin lenbailen irtetzen?

¿Etxeko seme-alaben kartak beren senargai edo andregaiari, gurasoak ez dakitela, eman al dizkiezu?

¿Mandatuak egiteko eman dizutenetik, edo beste tokiren batetik, zuretzat zerbaite gorde al dezu?

¿Zenbait emakume okeñen esanak jaraitu dituzu?

BOSGARREN AGINDUA

Iñor ez iltzea

¿Iñori kalte egin diozu?

Gorputzean:

¿Jo, zauritu, ala il dezu... edo oñelakorik egin nai izan diozu?

Animan:

¿Pekaturako bidea eman diozu, pekatu dan zerbait egin dezala esanaz, eta zero-
lek erakusbide txarrik emanaz, naiz itzez,
kiñuz edo egitez?

¿Oraindik okeágoa dana, erakuste txar-
oiek gaztetxoeri eman al dizkiezu?

¿Lagun-urkoari iseka ta para egin al dio-
zu, pekatu dan zerbait egin nai izan ez due-
lako, egin zaion okeá ordaindu ez duela-
ko, emandako itza autsi ez dueleko, zora
ukatu ez duelako... ta abar?

¿Pekatu egiten lagundu al diozu? ¿Zer-
tan?

Bere izen onean:

¿Ezertan artzen ez dezula, erakutsi dio-
zu? ¿Itzez ala egitez? ¿Inoren aúrean edo
atzetik, aúren utsegiteak agertuaz?

¿Gezuréz ere, norbaiten kalte itze gin al
dezu?

¿Bestetzaz nolanai jarduten al dezu?
¿Entzuten dituzun berri txarénak zabalduaz,

gezurak dirala jakinik? ¿Zeroek entzun dituzula esanaz, agian, edo zeroek ikusi dituzula?

Pakean bizi diranak:

¿Elkarrekin pake santuan ziranak nastu al dituzu? ¿Bateri bestearen jardunak edo eginkizunak agertuta?

¿Lenagotik asare ziranak, adiskidetu bearean, ez ote dituzu bata bestearen kaltez geiago berotu?

¿Norbaitek txarki egin dizunean, mada-rikazioz ta biraez bete dezu?

¿Eriotza edo okeeren bat opa izan al diozu, esanaz: «itoko baziña, ilko baziña, lertuko baziña... edo orelakoaren bat»?

¿Kalte egin dizunari gofotoa gorde al diozu?

¿Barkapen eske zetorkizunean, barkapena ta diosala ere ukatu al diozu?

¿Noiz kalte egingo diozun, aukera onaren bila ibili zera, ala etori zaion kalteaz poztu zera?

¿Inoren aberastasunak ikusita, ta batez

ere zure etsaiaren zoriona, ez al zera be-
kaizkeriz beteta, biotzez naigabetu?

Zure buruaren kalte:

¿Naigabe edo bear-eza txiki batengatik
zure buruari eriotza opa izan diozu?

¿Zure osasunaren kaltez ibili al zera,
geiegi janaz eta batez ere edanaz, edo zu-
re burua erail nai izan dezu?

Gure egunetan moskorkeriak gure Eus-
kal-Eri maitea galtzen du. Moskoren seme-
ak aulak eta erdi ustelduak izan oi dira
geienez, eta moskoren azkena, beriz, zoro
biurtzea.

¿Beste zer edo zertan zure edo besteen
osasunari kalterik itzuli diozu?

¿Nekazaritza lan gogořetara, aurdun e-
maztea edo alaba gazteak beartu al dituzu?

.....

SEIGAÑEN ETA BEDERATZIGAÑEN AGINDUAK

*Aragikeririk ez egitea. Besteren
senar edo emazterik ez nai izatea.*

Bi aginde auen kaltezko pekatuak, berez beti lañiak dira. Berez esan det, zear aña-ko ezaguera ez bada, edo pekatu egiteko nai osorik ez bada, askotan ez da pekatu lañirik egingo.

Askok uste izaten dute, burura datozki-en gogapen txar guztiak pekatu dirala; gogapen lizunak, berez, guk nai ez izan añen datozkigunean, ez dira pekatuak: pekatua, oieri leku ematea edo oietan atsegin artzea da.

Agindu auen kaltez, *gogoz, itzez* edo *egitez* pekatu egin diteke.

Gogoz:

¿Gogapen edo pentsamentu loitsuak gogoan erabili al dituzu, edo lizunkerizko

gauzak gogoan erabiliatz, atsegin izan al dezu, baita ere gauz oiek egiteko asmorik gabe? ¿Zenbat aldiz gutxi gora-bera?

¿Gogapen txarrik ez ezik, asmo txarrik izan ote dituzu? ¿Asko, zenbat?

¿Len egindako pekatuak gogoraturik, oietan atsegin artu dezu?

Itzez:

Bakarlean lagun batekin:

¿Jardun loitsuak, ipui zikiñak, gertaera lizunak aitatu dituzu?

¿Zerori asi zera? ¿Zerori asi ez bazera ere, lagunari izketako bidea eman diozu, par egiñaz ala bere jardunak pozik entzunik?

¿Askotan elkarrekin bakarrik egoten zerate?

Lagun askoren artean:

¿Lizunkerizko gauzak aitatu al dituzu?
¿Jardun loitsuak, abesti (kanta) zikiñak... gazteen aurrean agian edo gauz oiek ez zekizkitenen aitzinean?

¿Zure burua goratzearen bear bada, ala besteak zure esanak txalotu ditzaten?

Egitez:

¿Anima-gorputza zikinduaz, loikerizko pekaturik egin al dezu? ¿Zenbat aldiz?

¿Bakarrik edo beste norbaitekin? ¿Gizon, emakume, ezkongai edo ezkonduarekin, edo persona ez danakin? ¿Begiratzez, ikutzez, beste era batera? ¿Zenbat aldiz?

¿Loikerizko pekatu itxusirik egiten nor baitieri erakutsi diozu?

¿Liburu txarrik irakurri dituzu, irudi txarrik begiratu ala gorde? ¿Edo inori erakutsi, batez ere gaztetxoeri?

¿Bileretan edo eromerietan ibili ote zera, bultzaka, musuka, laztanka, ziri ta beste loikerietan...?

¿Antzoki (teatro) txar, zinema ta lasaikerizko beste tokietan bildu?

¿Danza lotuan ibili zera?

Dantza lotua geien-geienez, pekatu larria da. Jesukristo Jaunak esan badu: «asmo

txaíez emakume bat begiratzen duen ańek, pekatu egiten duela» ¿nor ausartuko da esaten, gizaseme baten besoetan dabilen neskatxa garbi irtengo dala?

¿Zure jantzietan nolako begirunea erakusten dezu? ¿Ez ote zabilta maiz kaleetan, pańagańizko itxuran, gona-motz, kolko ta besoak agirian dituzula?

Gure egunetan neska txoro askok, onela jantzirik, ainbat eta ainbat gazte liluratu ta galbidean jartzen dituzte. ¡Zori txańekoak, beren buruak ondatu ez ezik, ińoren, lagun-urkoaren gogoa galdu nai duten oiek..! «Obe litzake, bai, jaió izan ez balira».

Ara Isaias Igarleak, onela jazten diraneri, agintzen dizkien zigorkadok: (Isai. III. 17-24).

Sion'go alaberi Jaungoikoak ilea kenduko die, ta oien buruak bilutsik agertu dira.

Orobat, egun artan, ońetako apańak kenduko dizkie, ispiluak, ańi-edeńezko le-

*pokoak, besokoak, belarrikoak, erastu-
nak, usai-gosoak, jantzi-argiak; eta usai
gozoen ordeez, burusola, ta gerrikoaren to-
kian zakutzar bat emango zaie.*

¿Eskontzeko asmorik gabe, astia igaro-
tzearen, artu-emanik bai daukazu?

¿Etxetik kanpoan gaua igarotzen dezu?

¿Oitura txarez berandu etxeratzen zera?

Bi agindu auen kaltezko pekatuak, apai-
zari argiro esan bear zaizka: pekatua nola
egin dan ez da esan bear, baño bai zenbat
aldiz egin dan, bakañik ala nolako notin
edo personakin. Ongi aitortu zaitez, pake-
an bizi nai badezu, ta erabili beti begien
auréan, gure Liburu santuen itz beldurgarri
auek: «*Zeruan, ez da bat ere zikiñik sar-
tuko, (Apoc. XXI-20).*

ZAZPI TA AMARGAÑEN AGINDUAK

*Ez ostutzea. Oker-bidez besteren
ondasunik ez nai izatea.*

¿Zerbait ostu al dezu?

Era askotara ostu leike: naiz besteren gauza lapurtuaz, naiz arkitutakoa gordeaz, jabea bilatu gabe, naiz gauz ostua erosiaz, edo gordeaz, ala salduaz eta abar.

¿Norbaiteri bere ogasunetan *kalte egin* al diozu, moñoia bazera batez ere, nagusiaren gauzak nolanai ibiliaz. ostuko dituzten tokietan utziaz...?

Zorak ordaindu gabe luzean euki al dituzu, ezin ordaindu dituzula esanaz?

¿*Sal-erosketan bidegabekeririk* egin al dezu? ¿Eman bear zenukeana baño gutxiago emanaz, edo sal-neuri (prezio) aundiak eskatuaz... eta abar?

¿Dirutza aundirik jokoan galdu al dezu?

Edariak jokoarekin gure Euskal-Eria ondatu bear dute. Gaurko egunean ez bakarrik aberatsak, peritik datozen baseñitarak ere, joku-etxe oietan beren eta bere semenen irabazi guztiak galtzen dituzte.

¿Jokoan atzipez edo engañuz, irabazi al dezu?

¿Zure moñoi neskameak, zor diezun saria ordaindu gabe luzaro euki al dituzu?

¿Ostu dezuna, edo bere ordaña, jabeari biurtu al diozu?

Emen oartu bear da, ez dala naikoa zazpigarren aginduaren kaltezko pekatuak airtortzean esatea: gañera bear da ostu dan guzti-guztia bere jabeari itzuli, eta jabea ezagutzen ez bada, beartsu edo pobreen ertean eta beste eginkizun onetan eman.

Orobat ordaindu bear da bidegabenez egin dan kalte guztia.

ZORTZIGAREN AGINDUA

*Gezuritzko teztigutzarik ez egin eta
gezurik ez esatea.*

¿Ñoren kaltezko *gezurik* esan al dezu?

¿Norbaiteri kalterik egin al diozu, arien utsegite ixilak azalduaz edo gezuritzkoak asmatu?

¿Ñorengatik gaizki esaka ibili zera, arien

gauza onak txartzat emanda, ala txarrik geituta, edo besteak goratzen dutenean, zerori ixilik egonda?

¿Ñorengatik gaizki esaten dana atseginez entzun dezu, edo, galderak eginda, onela mintzatzan diraneri aurerapiderik eman diezu?

¿Itz-erdika edo zeozer esan nairik bezela, norbaitentzat susmo txarrik sortu al dezu?

¿Bata besteari elkarren kaltez esandakoa azaldu dizkiezu, bien artean asarea sortzeko?

¿Ñoren eskutitzak (kartak), baimenik gabe, irakurri dituzu?

¿Ixileko gauza larriak agertu dituzu?

¿Ixilekoak entzuten egon al zera?

¿Ñori izen-ona kenduko dion gauzik idatzi dezu?

¿Eskubide batere gabe, ñor txar-etsi edo juzgatu dezu?

¿Lekuko edo *testigo gezurzkoa* izan al zera?

¿Lekuko edo geznrezko testigu bildu nairik ibili al zera?

¿Zure lagun-urkoa aldeztu gabe utzi dezuz, errez al dezularik?

¿Besteen izen-ona galdu dezunean, kendu diozun izen-ona biuritzen saiatu al zera, gezurá esan zenuela esanaz, edo uste gabean ori sinistu zenuela?

II.—ELIZAREN AGINDUAK

LENENGO AGINDUA

Igande ta jai-egunetan Meza osoa entzutea.

Jaungoikoaren irugañen aginduan esan dana irakuri.

¿Igande-jai egunetan, noiz iritxi zera mezara? ¿Asieran, edo Kredoá bukatuta gero?

¿Noiz irten zera? ¿Apaizak Jaunartu aurretik?

BIGARĒN AGINDUA

*Aitorketa urtean bein gutxienaz egitea,
ta oñezaz geñera iltzeko ariskoan
arkitzean, eta Jaunartu baño len,
baldin oben aztunean bagaude.*

¿Gutxienaz urtean bein aitortzen zera?
¿Ondo, edo aitorten txar bat egiñik?

Txarki aitorturik, pekatu larria egiñaz gañera, ez da agindu au betetzen.

¿Pekatuan egonik, jaunartu edo ezkondu aurretik, aitortu al zera?

Pekatu larripean ezkontzen diranak Jaunartzen dutenak bezelaxe, sakrilejioa egiten dute.

¿Gaxo zeundela, apaiza deitu al dezu, aitortu ta Elizakoak artzeko?

¿Zure etxeko aide edo lagunak gaxo ikusirik, gaizki daudela adierazi al diezu apai-

za deitu dezaten, ala gezuñezko maitetasu-
naz atzipetu (engañatu) dituzu?

IRUGAÑEN AGINDUA

Pazko-aldian gutxienez Jaunartzea

¿Pazko-aldian aurten Jaunartu al dezu?
¿Ondo ala txarki?

Txarki Jaunartuaz, pekatu egiñaz gañe-
ra, ez da agindu au betetzen.

LAUGAÑEN AGINDUA

*Eliz-Ama Doneak agintzen duanetan
aragi-uzte ta barau egitea.*

¿Al dezularik barau egin al dezu?

¿Aragi-uzteko egunak zaitu al dituzu?

¿Gizen egiñerazi al diozu iñori?

¿Bulda erosi gabe, al dezakezula, bulda-
ren eskubideak artu dituzu?

BOSGAÑEN AGINDUA

Oi danez, amañenak eta asigiñak

Elizara ematea.

¿Eriko elizari ta apaizeri, kristau onari dagokion bezela, laguntzen diezu?

III.—BAKOITZAREN EGIN-

BEAÑAK

Senar-emazteak.

¿Elkar arteko ongi naia autsi al dezute, asare jarita edo arpegi beltza batak besteari erakutsiaz? ¿Seme-alaben aurrean agian?

Senara:

¿Zure ondasunak zaitu ta geitzen alegindu al zera; ala edanean eta jokoan ez ote dituzu ondatzen, emaztearen ezkon-saria batez ere?

¿Zure irabaziak emazteari eman al dizkiozu, ta etxeko gora-beratako bear duena?

¿Irabazpide ta beste arazo aztunetan elkar aditu zerate?

¿Emazteari eskua altxa al diozu, zematu edo jo, ala naigabe aundirik eman?

¿Sakramentuak sañi artzen eragotzi al diozu?

¿Emaztea aurdun dagoela *lan geiegerik eragin al diozu?*

¿Gauetan berandu etxeratzen al zera?

¿Emaztearen baimenik gabe ibilkunde luzeak egin dituzu?

Emaztea:

¿Zure setaz etxeko pakia autsi al dezu?

¿Ez ote dezu senara aspertzen, beti asarre ibiliaz, uskeri batengatik agian?

¿Senaraaren baimenik gabe zerbait saldu al dezu, alabak apaintzearen?

¿Ezkontzako Sakramentuari utsegin al diozute?

Etxeko-jauna:

¿Guraso zañak etxean badauzkazu, berai zor zaien begirapena gorde al diezu?

¿Zure puñustadaz eta gogorkeriz, ez ote dituzu naigabetu?

¿Jan-edan eta jazteko bear dutena ukatu al diezu, ala gogo txañez eman?

¿Gaxo jañi diranean, ez ote dituzu bazterturik utzi, sendagairik ez erosi naiaz?

¿Lenbailen il ditezen gogoa ez al dezu agertu?

¿Oien azken-nai edo testamentua zintzorro bete al dezu?

¿Oiek agindutako mezak atera, egikizun onak egin?

¿Guraso zañak beartu al dituzu, naiz itzez, naiz egitez, zuri beste anai-arebaeri baño geiago azken-naian uzteko?

Sendi edo famili-buruzagia:

¿Nola zaitu dituzu zure seme-alabak, ezkondu ala apaiz egin edo lekaidetxean (komentuan) sartzeko asmoa agertu dutenean?

¿Eskontzeko asmoz zebiltzanean nolainai ezkondu ditezen utzi diezu, edonorekin, nai duten bezela, agian lendaurietik itz emanda zeudelako?

¿Edo bestela, zuri ongi ez deritzazula ta besterik gabe, ezkontzea galazi al diezu?

¿Agian ezkon-saria (dotea) eman nai ez diezulako?

¿Edo luzaerazi dezu ezkontza, al dan beranduen ezkontsaria emateko?

¿Zure seme-alaba beartu al dezu, nai ez zuenarekin ezkontzera, beste aldekoak dirua ugari edo daukalako?

¿Zure seme-alabaeri galerazi al diezu monja, apaiz edo prale izatea, edo oretararako beartu al dituzu?

¿Dirua ekartzearen, baseñtik aterata, urietara, ola edo fabriketara, ala Ameriketara bidali al dituzu?

¿Seme-alabak moñoi edo neskame jañi dituzun etxeak berak galtzeko bidekoak ote dira?

Gurasoak: diru apur bat baño geiago

zuen seme-alabak maite badituzute, ez oiek baseñtik urira bidali, oraindik gutxiago Ameriketara, noiz eta besterik eziñean arkitzen ez bazerate. Ez dute toki uruti aietan asko irabaziko, animaren aldetik beintzat, eta sañi askotan ezta gorputzaren aldetik ere.

Begiratu orobat zuen alabaeri, ez nolainai eta noranai neskame bidaltzeko. Eta etxe onak, esan oi dan bezela, eskeintzen dizkizutenean ere, al badezute, zuen alde-menean gorde: norbere etxea onena.

Eriko agintaria:

¿Arduraz zaitu al dituzu lege zuzenak, eta oiek autsi dituzteneri legeek agintzen duten isun edo multa eman?

¿Arduraz begiratu al dezu, batez ere, biraozale ta moskoñak estu ta zoñotz artze-ko?

¿Ardandegiak edo tabernak bear dan garaiean itxi ditezela agindu al dezu, ta jokoa eñian galazi?

¿Eriko petxak banakatzeko iru-lau jauntxoen iritzia ala zuzentasuna jaraitu dezu?

¿Autarki-aldian (elezioetan) zure menpekoak bidegabenez beartu al dituzu?

¿Meza nagusi ta beste elizkizunetara joaten al zera?

Menpekoa;

¿Apaiz-jaun, alkate-jaun ta eriko agintarieri zor zaien begirapena agertu al diezu?

¿Lege onak zaitu ditezen, alkate ta agintarieri lagundu diezu, ala ez; esateko: biratzaileak zematurik, eta bear bada, agintarieri salataturik, lege arauaz zigorkatu ditzaitezten?

¿Eriko petxa zuzenak ordaintzea luzatu dezu, edo atzipez (engañuz) ukatu?

¿Zure autarkia (botoa), Erlijioa ta eria-
ren alde geien egingo duenari, ala diru gei-
ago ematen dizunari eman diozu?

Ugazaba:

¿Zure langileeri zor diezun saria, luzatu gabe, ordaindu al diezu?

¿Maitetasunaz begiratzen al dituzu, ala gogorki ta gañaztasunaz?

¿Ilgande-jai egunetan lan eginerazi al diezu?

¿Bear-ez batean arkitu izan diranean, ala gaxorik beaŕean ikusi dituzunean, lagundu al diezu?

¿Arduraz begiratu al dezu birauak zure olatik (fabrikatik) aienatzeko, neska-mutilen arteko jardun lasaiak, abesti zikiñak... eta abar debekatzeko?

Langilea:

¿Lan-orduak zintzoro betetzen al dituzu?

¿Ugazabaren tresnak arduraz zaitzen al dituzu?

¿Ugazabari bere ogasunetan kalterik egin al diozu?

¿Oporik (uelgarik) sortu, edo besteak opoŕera bultzatu, oŕetarako biderik gabe?

¿Iñori lan egitea, bidegabenez, galerazi al diozu?

Ostalari ta ardo-saltzaleak:

¿Moskortua edo erdi-moskorturik dagoanari eskatu aña edaten eman al diozu, kaltegarí zaiola jakiñik?

¿Zure ardandegira datozeneri nolanai ibiltzen utzi al diezu, batez ere zerbait beroturik daudenean, otsa-zarata ateratzen, iskanbila sortzen, madarikazioz edo biraoka, abesti zikiñak abestutzen... eta abar?

¿Beste edozein jolas txoroetara gaztedia bultzatu al dezu? ala esateko ¿karta-jokoan gurasoen ixilik, dantza-lotuan, laztanka, musuka, ziri-egiñaz ta besarkaturik... neska-mutilak ibili ditezen zure ostatuan?

¿Gauetz agindutako garaian zure ardandegia itxi al dezu?

Ostalari ta ardo-saltzateak oartu bear dute beren etxeetan egin oi diran ainbat pekatuaz erantzun bearako dutela, beren eruz edo beren kulpaz askotan egin oi dirata.

AITORTZA-AURĒKO OTOITZA

.....

(Veni Sancte Spiritus. 50 egun. barkap. bakoi-
tzean).

¡Atoz Espiritu Santua, bete zure fededu-
nen biotzak, ta zure maitetasunaren su-bi-
zia, oietan piztu!

v). Zure espiritua bidali ta zuzenduko
dira.

R). Ta lurbira osoa berituko dezu.

OTOITZA

Zure jaraitzaleen biotzak, Espiritu San-
tuaren argien bidez, zuzendu dituzun Jaun
ořek, emaguzu: Espiritu Santu berořen bi-
dez, ona dana beti maite izatea, ta bere
pozkidaz beti atsegintzea. Jesu-Kristo gure
Jaunaren izenean. Alaxe.

¡Nere Jaungoiko maitea, nere pekatu guz-
tiak ezagutzeko argitasun bizia, emaidazu,

ta oiek guztiak biotz-biotzez gorotatu ta aitortzeko indarra!

¡Andre Maria, Ama erukioña, Jose Doatsua, nere Aingeru zaitzalea, guztiok lagundu nazazute, aitorpen on bat egiten, bada zuen laguntza bear-bearekoa zait!

Ondoren, zure barrena aztertu, Jaungoiko ta Eleiza-Amaren agindu bakoitza arakatuaz, zertan uts egin dezun ikusteko.

DAMU-EGINTZA

Agindutako goiko zeruak
Ez naramate zu maitatzea;
Ez eta ere beko sugańak
Obenkeritik alde egitera.

Zuk naramazu; zakusdalako
Iltzez josia gurutz batean;
Zuk naramazu, zure nekeaz,
Zure zauriaz, erio-unean.

Zuk naramazu: t'ain naiz zuregan,
Zeru gabe ere naiz zure alde;

Maitatzen zaitut inpernu gabe,
T'ez ni zerutu naiaren orde;
Bada saririk ez banu ere
Nai dizudan lez, nai zaitut maite.

*(Esaten danez, Xabier'tar Franzisko
Doneak gazteleraz antolatua).*

Otoitz au egin ondoren, aitortza egitera
zoaz. Zure aurrekoa aitortzen dan bitarte-
an, esazu biotzez:

Nik, pekatari onek, aitortzen diot Alguz-
tidun Jaungoikoari, Andre Maria beti-birji-
ñari, zoriondun Migel Goiaingeruari, zo-
riondun Juan Bautistari, Pedro ta Paulo
apostolu Doneai, beste Done guztiai eta
zuri, ene Aita, pekaturik asko egin dedala,
gogapen, itz eta egiteetan, nere eruz, nere
erú aundiz. Oregatik eskatzen diot Andre
Maria beti-birjiñari, zoriondun Migel Goi-
aingeruari, zoriondun Juan Bautistari, Pe-
dro ta Paulo Apostolu Doneai, beste Done
guztiai ta zuri, ene Aita, otoitz egiozutela
nere alde Jaungoiko gure Jaunari.

AITORTZEKO ERA

«*Nik pekatari onek*» esan ondoren, joan zaitez aitortegira, ta belaunikaturik, esan lendabizi:

Agur. Maria, guztiz garbia.

Apaizak erantzungo dizu: *pekatu gabe sortua.*

Esan gero:

Ilabete (edo astebete, ala noiz dan) da azkenekoz aitortu nintzala, eta ez nuan ezer utzi, ez lotsaz, ez azturik.

Askapena artu nuen.

Geroztik. Lenengo aginduan...

Bigarēnean...

Eta onela lenengo agindutik asi ta esan zeroŕek egin dituzun utsegite ta pekatu guztiak. Ez, asko bezela, aitorlearen galderen zai egon.

Onela egiñaz, eŕezago ta lenago bukatuko dezu, ta zuk esan ondoren, aitorleak beste galderaren bat egiten badizu, erantzun apalki, baño garbi.

Entzun gero berak emango dizkizun erakuste (konseju) onak, gogoan oiek arturik, eta azkenik, askapena ematera dijoakizunean, esan biotz-biotzez:

«*Jesukristo nere Jauna...*».

Gero zoaz zure tokira, ta antxe egizu aitorleak emandako pekatu-ordaña (penitentzia), ta ondoren jartzen dan otoitza esan.

ONDORENGO OTOITZA

Jaungoiko Aita Betikoari, Andre Mariaren bitartez.

Aita Erukioña, ta ondasun guztien iturburua! Biotz-biotzez eskatzen dizut, beti zure atsegiña dan Jesus zure Seme maite ta gure Eroslearen Biotz txit santuaren bitartez, emazkidazula: sinismen bizia, itxaropen sendoa ta maitetasun sutua, Zugarako ta nere lagun-urkoaganako. Gañera eskatzen dizut, nere pekatu guztien benetakoko damua, ta asmo sendo-sendoa, iñoiz aurerakoan ez Zu iraindu ta naigabetzeko: Zuk nai dezun bezela beti bizitzeko, zure gogo santua biotz guztietan betetzeko, ta

zure maitetasunean eriotz arteraño irauteko. Alaxe.

¡Nere erosle ta Jaungoikoaren Ama maittea, Maria Birjiña txit doatsua, aŕen, eskatzen dizut, zure erukiaren bidez, emaidazula: galbide ta laŕi-aldi guztietan Zugana joatea, ta zure laguntza beti eskatzea!

(40 egun. barkap., bein).



GEIGARÍA

.....

BIZIBIDEA AUKERATU

Zerurako bideak.

Guziok egin gaitu Jaungoikoak zerurako; ta guziok daukagu betiko zoriona irabazi beara.

Baña zorion oretarako bide bat baño geiago daude: ezkontza bidea; ezkondu gabe, baño nor bere buru geldituaz; eta erligioan edo menpetasunean biziaz.

Gutako bokoitzarentzat aukeratuta dauka Jaunak bide oyetakoren bat. Neretzat ze bide aukeratu du? ¿Nik nundik daukat zerura jua beara, Jaunak nai duana egingo badet?

Bizibidea aukeratzeko jakin bearak..

Bizibidea ez du norberak aukeratu bear. Jaungoikoak aukeratu edo deitu du gutako bakoitza bizibide edo estadu onetarako edo artarako. Ta nola edo ala adiraziko dio bakoitzari zertarako aukeratu duan. Gugandik Jaungoikoak nai duana ikustean dago, beraz, lan guzia. Zuretzat bizibiderik onena da zuretzat Jaungoikoak aukeratu duana. Zu ezkontzarako aukeratu bazaitu, zuretzat ezkontzabidea da zerurako biderik onena. Erligiorako edo apaiztzarako aukeratu bazaitu, bide ori da zuretzat onik onena, ta beste bide bat artzen badezu, ez dituzu bide artan Jaunak zeuzkan laguntasunak arkituko. Zuretzat zegoan bidea galtzen badezu, bildur izan! Joangoikoaren naia egin gabe, ez dago zerurako bide zuzenik.

Erligioko bidea (erligioso edo moja izatea) berez bide obea da. Ezkontza bidea geiagok nai izaten dute, ezezagoa ta labañagoa dala uste dutelako edo...

Baña zuk ez dezu begiratu bear zein dan berez abea ala ezezago dirudiena; baizik

ze bizibide dan zuretzat Jaunak aukeratu duana. Ori da zuretzat onen onena.

Nola eukera egin, edo nola ikusi Jaungoikoak zertarako naukan.

Zertarako dira zure gogorik beroenak?

Zertarako daukazu egokitasunik aundiena?

Eriotzako ordua gogora zazu, ta ikusi orduan zer nai izango dezun.

Kontu egin zuri gertatzen zaizuna beste bati gertatzen zayola; zuri galdetzen dizula zer egin bear duan; eta ari esango zenio-kena egin.

Jakin zer esan nai duan erligioan sartzeak, zer esan nai duan ezkondata bizitzeak, zer esan nai duan ezkondu gabe ta erligioan sartu gabe bizitzeak. ¿Zertara geiago jotzen du zure biotzak, bide oyetako batetik zerura juan beara daukazula gogoratzean? Nundik obeto juango zerala uste dezu?

Zure gogoia ondo ezagutu ta zuzenduko

duan zuzentzaile on eta jakintsu bat artu, ta etzera galduko.

Batez ere, otoitz egin eta eskatu Jaunari argitu zaitzala ikusi dezazun zure zerrurako bizibidea.




ARKIBIDEA

Orialdea

Sustrai ta oñaria. - 1'go. Atala.....	9
» » » 2'ren. »	16
» » » 3'ren. »	27
» » » Lengoak berituaz.	31
Zerua irabazi.....	39
Iru oker edo pekatuak	47
Norbearen gaizkiegiñak	57
Lengo biak beriro gogoratzea	65
Betiko sugařak. - Lenengoa	69
» » » Bigařena	75
Eriotzaz. - Lenengoa	81
» Bigařena.....	87
Azken eguna	95
Seme galduarena	103
Jesukristoren Deya	113
Jainkoaren gizon egitea ... :.....	121
Jainko-semearen jayotza	127
Jesus galdu ta arkitua.....	133

Jesus'en etxe-baruko bizitza	139
Bandera bi	145
Iru bikoena	153
Iru apaltasun mala	159
Jesus'en neke oñazeak	163
Jesus'en ber-piztuera	171
Maitasuna irixteko gogoraldia	177
Gogartea egiten ikasteko	185
Azterpena egiten ikasteko	205
ARGI DONEA'tik, Aitortza	217
Geigaría	283

A . M . D . G .



EDITORIAL VASCA, S. L.

CELAYA Y COMP.^A

ZARAUZ (Guipúzcoa)